

οΤοιΤζ

ΑΒΕΣΤΙΑΚ



**OTOITZ-  
ABESTIAK**

Meza-Ilburutxo au eskatu egizu:

**R. P. IÑAKI GOIKOETXEA, S. J.**

PP. JESUITAS

Durango (Vizcaya)



Imprimi potest:  
XAVERIUS OLAZABAL

JESUS'EN BIOTZAREN DEYA  
EL MENSAJERO DEL CORAZON DE JESUS

Depósito Legal: BI - 236 - 1961

Gráficas ELLACURIA - Buenos Aires, 13 - BILBAO

GURUTZE SANTUAREN señaleagaitik geure are-  
rioakandik, zaindu gaizuz gure Jaun eta Jaungoikoa.

AITAREN eta Semearen eta Espiritu Santuaren  
izenean. Amen.

#### AITA GUREA

Aita gurea zeruetan zagozana;  
santifikadu bedi zure izena;  
betorkigu zure erreñua;  
egin bedi zure borondatea, zeruan lez lurrean be.  
EMOIGUZU gaur gure eguneroko ogia;  
parkatu eiguzuz gure zorrak, geuk zordunai par-  
katzen dautseguzan lez;  
eta ez eiguzu itxi tentaziñoan yausten;  
baña gatxetik yagon gaizuz. Amen.

#### AGUR MARIA

Agur Maria, graziaz betea; Jauna da zugaz;  
bedeinkatua zara zu andra guztien artean,  
eta bedeinkatua da zure sabeleko frutua, Jesus.  
SANTA MARIA, Jaungoikoaren Ama,  
erregutu egizu gu pekatarioen alde,  
orain eta gure eriotzako orduan. Amen.

#### AINTZA

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari.  
Len lez, orain, beti, ta amaibako egunetan. Amen.

## KREDOA

Sifñisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru lurren egillea.

Sifñisten dot Jesu-Kristo, bere Seme bakar gure Jauna, Espiritu Santuaren egitez sortu ta Maria Birjiñagandik yayo zana; Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean yosia, illa ta obiratua izan zana; inpernuetara yatsi ta irugarren egunean illen artetik biztu zana; zeruetara igon eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean yesarrita dagoana; andik biziak eta illak epaitzera etorriko dana.

Sifñisten dot Espiritu Santua, Eleiza Santu Katalikua, Santuen alkartasuna, pekatuen parkamena, ildakoen biztuera ta betiko bizitzea. Amen.

## SALBEA

Agur Erregiña, Ama errukiorra, geure bizitza, gozotasun eta itxaropena, agur.

Zuri deyez gagoz Ebaren ume erbestetuok; antziz eta negarrez gatorkizuz negar erri onetan.

Ea bada, geure bitarteko Andrea, zure begi errukitsu orreik gugana biurtu egizuz, eta erbeste onen ondoren, erakuskuzu Jesus, zeure sabeleko Seme onetsi ori.

O Biotz bigun! O errukior! O Maria Birjiña gozoa!

Gure alde otoi egizu Jaungoikoaren Ama Done orrek, Jesukristoren agintzariak yadetsi daikeguzan. Amen.

## JESUKRISTO NEURE JAUNA (zarra)

Jesukristo neure Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egille ta Salbagillea: zareana zarealako, ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, DAMU DOT, JAUNA, DAMU DOT biotz biotzez Zu iraindua. Asmo sendo bat artzen dot ez geyago pekaturik egiteko, Zu irainduteko bide guztietatik alde egin, autortu ta oben-nekea betetako. Amen.

## JESUKRISTO NEURE JAUNA (barria)

Jesukristo neure Jauna, Jaungoiko ta gizon egiazkoa, neure Egille ta Salbagillea, zareana zarealako; ta on utsa zareanez, gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, DAMU DOT, JAUNA, DAMU DOT, zu naigabetu izana. Zure grazi zerutarrak lagundurik, asmo sendoa artzen dot, ez geyago pekaturik egiteko, autortu ta oben-nekea betetako. Amen.

## NIK PEKATARI

Nik, pekatari onek, autortzen dausat Alguztidun Jaungoikoari, Andra Maria beti Birjiñari, Santu guztiei ta zuri, ene Aita orri, pekatu larregi egin dodala, gogapen, itz eta egitez, NEURE ERRUZ, NEURE ERRUZ, NEURE ERRUZ ANDIZ. Augaitik eskatzen dausat Andra Maria beti Birjiñari, Santu guztiei eta zuri ene Aita orri, otoi egin dayozuela nire alde, Jaungoiko gure Jaunari. Amen.



## GOIZEKO OTOITZAK

NEURE JAUNGOIKO MAITEA; kristiñau onari dagokion lez, gura dot gaur bizi; baña zeu barik, ezer ezin neinken ezkeru, lagun egidazu, Jauna.

ZUGAN SIÑISTEN DOT, Jauna, Egi utsa zarealako.

Zugan daukat neure itxaropena, siñesgarri, ta agindurikoa betetan, zintzoa zarealako.

Maite zaitut, Jauna, On ona zarealako.

### JESUS'EN BIOTZARI EGUNEROKO ESKINTZA

Jesus'en Biotz jaungoikozkoa, Maria'ren Biotz garbi garbiaren bitartez, eskintzen dautzudaz, gaurko nire otoitz, lan, eta neke-miñak, egiten yatzuzan txarkerien orde, eta Zeu beti eskiñiaz, altaran daukazuzan asmoetarako.

Eskintzen dautzudaz batez bere, Apoztoladuak il onetan, izentauta daukezan asmoetarako.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

### ANDRA MARIA'RÍ

Andra Maria, neure Ama: oso osorik eskintzen nayatzu, ta neure maitasuna obeto agertzeko, neure begi, belarri, min eta dodan guztia, eskintzen dautzut. Zurea naz ba, Ama errukitsua, zure gauza ta ondasuna lez, arren zaindu ta gorde nagizu.

Zure sortze garbiagaitik, Andra Maria, neure gorputz eta arima garbitu. Agur Maria... (Iru bider).

## JOSE DOATSUARI

Jose doatsua, neure zaindari estitsu maitea: lagun egidazu.

### NORBERE IZENEKO SANTUARI

Neure izeneko Santua: Jaungoikoari nireztat eskatu, kristiñau egin bear guztiak ondo bete dagidazan.

### AINGERU YAGOLEARI

Jaunaren aingerua, Berak nire errukiz, graziz, mesede andiz, ni zaintzeko autua. Goi-goyetako argiz, bide gaizto guztietatik, ondo zaindu nagizu, egun baten ez nadin inpernuan aurkitu.

### AINGERU OTOITZA (Anjelus)

Jaunaren aingeruak Maria'ri iragarri eutsan.

**Eta Espiritu Santuaren egitez sortu eban.**

(Agur Maria...)

Ona emen Jaunaren mirabea.

**Zeuk diñozun lez egin bekit.**

(Agur Maria...)

Eta Jaungoiko Semea gizon egin zan.

**Eta gure artean bizi izan zan.**

(Agur Maria...)

Gure alde otoi egizu Jaungoikoaren Ama Done orrek,

**Jesukristoren agintzariak yadetsi daikeguzan.**



## OTOITZA

Izuri egizu arren, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen gizon egitea, aingeruaren esanaz ezagutu genduanok, bere Nekaldi ta Gurutzearen bidez, zeruko biztuera aintzatsura eldu gaitazan: Gure Jaun Jesukristo berberaren bidez. Olantxe.

### AIINGERU OTOITZA (Abestia)

Aingeru batek Maria'ri  
difoitso: graziz betea;  
Jaungoikoaren Semeari  
Emon dautsazu sortzea.

**Goiz, arrats eta eguerdian**

**Ama, goresten zaitugu,  
Aingeruaren itzak eurak**

**Guk bere esaten ditugu.**

(Agur Maria...)

Jaungoikoaren nai santua  
Nigan dedilla egiña;  
Izan nadin bai bere Ama,  
Baña geldituz Birjiña.

**Goiz, arrats eta...**

(Agur Maria...)

Jaunaren Semea gugaitik  
Gizon aragiz da yasten  
Au maitasun egiazkoa  
Jauna gurekin bizitzen.

**Goiz, arrats eta...**

(Agur Maria...)

## AIINGERU OTOITZA (II)

Aingeru bat dator  
Egaz lurrera,  
Neskatil garbi bat  
Agurtutzeroa.

**Agur Maria**

**Graziaz betea,**

**Jainkoaren Ama**

**Zara Zu, guztiz garbia.**

(Agur Maria...)

Jaunaren mirabe  
Apala naz ni:  
Zuk diñozun legez  
Nigan ein bedi.

(Agur Maria...)

Jaunaren Semea  
Gizon egin zan,  
Ta gure artean  
Bizi-izan zan.

(Agur Maria...)

### REGINA ZELI (Paskoaldian)

Zeruko Erregiña, poztu zaitetz, **Aleluya.**

Sabelean ekarri zenduana, **Aleluya.**

Biztu da, esan ebanetz, **Aleluya.**

Gure alde otoi egiozu Jaungoikoari, **Aleluya.**

Poztu ta alaitu zaitetz, Birjiña Maria, **Aleluya.**

**Benetan Jauna biztu dalako, Aleluya.**

### Otoitza

Jesukristo zure Seme ta gure Jaunaren biztue-  
reaz, mundua poztu zendun Jaungoikoa; egizu,  
arren, Andra Maria bere Amaren bitartez, betiko  
bizitzako pozetara eldu gaitazan. Jesukristo gure  
Jaunaren izenean. Olantxe.

## REGINA ZELI

Regina zeli letare, **Aleluya.**

Quia quem meruisti portare, **Aleluya.**

Resurrexit sicut dixit, **Aleluya.**

Ora pro nobis Deum, **Aleluya.**

Gaude et letare, Virgo Maria, **Aleluya.**

Quia surrexit Dominus vere, **Aleluya.**

### Oremus

Deus, qui per resurrectionem Filii tui, Domini nostri Yesu Kristi, mundum letificare dignatus est; presta quesumus; ut, per eius Genitricen Virginem Mariam, perpetue capiamus gaudia vite. Per eundem Kristum Dominum nostrum. Amen.

## BESTE OTOITZ BATZUK

### YAN AURREKO OTOITZAK

Bedeinkatu gaizuz, Jaun orrek, eta zure eskutik artutako yanari oneik be, bardin bedeinkatu egizuz.

(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)

Zeruko errege andiak, goiko mayan artu gaizala. Olantxe.

### YAN OSTERAKO

Eskerrak zuri, zure mesede guztiakaitik, beti bizi, eta agintzen dozun Jaungoiko Alguztidun orri.

Jaungoikoak bere bakea emon daigula.

Baita betiko bizitza be.

## OTOITZA ASTEN DOGUNEAN

Erdu, Espiritu Santu ori. Gure biotzak berotu egizuz eta zure maitasunugarretan biztu egizuz.

Zure Goi-arnasa bialdu eiguzu.

ETA GURE BIOTZAK BARRIZTAUKO DIRA .

Maite zaituen biotzak, Espiritu Donearen bidez, irakatsi eta argituten dozuzan Jaun orrek, emoiguzu, gauza onak beti maitatzea, gure biotzak Espiritu Donearen atsegiñetan poztu daitezen.

Jesukristo gure Jaunaren izenean.

OLANTXE.

### ESKERRAK EMOTEKO

Eskerrak zuri, mesede guztiakaitik, amaibako egunetan bizi ta agintzen dozun Jaungoiko alguztidun orreri. Jaungoikoak bere bakea emon daigula.

BAITA BETIKO BIZITZA BE.

### LANA ASTEAN

Lan au zuri eskintzen dautzut, Jauna. Arren, bedein-katu egizu, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

### JESUS'EN BIOTZARI

Jesus'en Biotz gozoa.—Zugan nire uste osoa.

### MARIA'REN BIOTZARI

Maria'ren biotz ona.—Zeruratu nagizu.

### GARBITOKIKO ARIMAI

Emoiezu, Jauna, betiko bakea, ta azkenbako argiak argi egin begie. Maria, Jaungoikoaren Ama errukitsua, gure ta ildakoen alde otoi egizu.



## GABEKO OTOITZAK

Aitaren eta Semearen...

**Emoidazu, Jesus maitea, gaurko nire pekatu eta utsegite guztiak ikusteko argia. Baita biotzez damututeko zeruko grazia.**

### AZTERKETA (Esamiña)

Begiratu egizuz zure egin-bearrak:

**JAUNGOIKOAGAZ:** Meza Santua, Jaunartzea, Agurtza (errosario) Santua... zelan? Altarako Jaunari ikustaldirik egin dautsazu? Goizeko eta gabeko otoitzak... zelan?

**ETXEKOAKAZ:** Gurasoakaz (edo seme alabakaz) gaur zelan portau zara? Nagusien esanak egin dozuz?... Zure lanak eta bearrak ondo bete dozuz?... Erantzun txarrik emon gurasoai...?

**LAGUNAKAZ:** Lagun onak edo gaiztoak daukazuz? Asarrerik euki dozu eurekaz...? Iñori gorrotorik...? Iñogaitik txarto berbarik egin dozu...? Lagunai al dozun bestean lagundu dautzezu? Iñori kalterik egin dautsazu?

**ZURE BURUAGAZ:** Asmo txarrik...? Gogorapen (pentzamentu) txarrai lekurik emon dautzezu...? Berba txarrik esan edo izketa (konbersaziño) txarrik erabilli dozuz...? Gurari (deseo) txarrik...?

JESUKRISTO NEURE JAUNA...

**Jesus, Maria ta Jose, — zuentzako nire gorputz eta arimea. (Agur Maria).**

**Jesus, Maria ta Jose, — eriotzako orduan artu nire arimea. (Agur Maria).**

**Jesus, Maria ta Jose, — zuokaz lo gozoan bego nire arimea. (Agur Maria).**

## AUTORTZA (Konfesiñoa)

ZER dan edo zer eztan pekatu, baita zelango aztuntasuna daukan zure obenak yakiteko, zure BORONDATE edo ASMO onari edo txarrari begiratu bear dautsazu. Zeinbat eta BORONDATE edo ASMO txarragoa, oben edo pekatu andiagoa egin dozu.—Borondate txarrik ez ba'dozu euki, ez dozu pekatu egin.

Orregaitik pekatu egiteko iru gauza bear dira:

1. Ezaguera eukitea: Burua argi eukitea. Zer egiten dozun ondo ta guztiz yakitea. Orregaitik, ume txikiak, zoroak, edo edanda dagozanak, ezin dabe pekatu egin. Zer egiten daben eztakielako.

2. YAKITEA.—Au edo bestea pekatu dala yakitea. Gauza bat, zure erru barik, pekatu dala yakin ez ba'dozu, Jaungoikoaren aurrean garbi zagoz.

3. GURARI TXARREZ edo BORONDATE TXARREZ egitea.—Konturatu barik edo deskoidu baten egiten dana ez da pekatu. Zeinbat eta asmo txarragoa euki, pekatua be andiagoa eta aztunagoa.

Oneik gauzok gogoan BETI eukita zure oben pekatuen azterketa edo esamiña egizu.

### AZTERKETA (Esamiña)

#### ZERUKO ARGIA ESKATZEKO

Argitu nagizu, Jauna, nire pekatuak ikusteko eta benetako damu zintzo bat artzeko.

Andra Maria, neure Ama, autortza on bat egiten lagun egidazu. (Aita gurea... Agur Maria... Aintza...).



**LENENGO AGINDUA: JAUNGOIKOA GAUZA GUZTIAK BAÑO MAITEAGO IZANGO DOZU.**

**Txarto autortu edo konfesau ete naz? Zeinbat bider?**

**Baita txarto Jaunartu?**

**Eleizaren edo Erlejiñoaren kontra ezer esan ete dot? Fedeko egiak siñestu dodaz?**

**Luzaroan egon naz otoitz egin barik?**

**Nire otoitzak: goizekoak eta gabekoak, agurtza edo errosario santua... zelan egin dodaz?**

**BIGARREN AGINDUA: EZ DOZU JAUNGOIKOAREN IZENA ALPERRIK AGOTAN ARTUKO.**

**BIRAURIK EDO JURAMENTU EDO MALDAZIÑORIK edo berba zikiñik Jaungoikoaren edo Santuen aurka yaurti ete dot? (Yakin egizu ori pekatu andia dala eta oitura zikin ori bertatik kendu egizu).**

**Jaungoikoari edo Santuei egindako promesa edo eskintxak bete ete dodaz? (Ezin ba'dozuz bete autorentzuleak (confesoreak) aldatu leikez).**

**IRUGARREN AGINDUA: YAI EGUNAK YAI EGINGO DOZUZ.**

**Domeka ta yayak zelan gorde dodaz? MEZA OSOA ENTZUN? Beranduegi eldu? (Eleiza urrin edo gexorik ba'zagoz ez daukazu Mezea entzun bearrik). Eleizan zelan portau ete naz? Igandetan lan gogorrik luzaroan egin dot, premiña andi barik?**

**LAUGARRENA: ZURE GURASOAK AINTZAT EUKIKO DOZUZ.**

**Gurasoai lotsa gitxi, esanak egin ez, erantzun txarrak emon... edo olango antzeko gauzarik egin dautset?**

**(Gurasoai naigabe edo disgusto andia emotea pekatu aztuna da).**

**GURASOA** ba'naz: seme-alabai yarraibide edo ejemplo txarrak emon dautset? Ondo azi eta ezi dodaz? Nondik eta zelan dabizan kontu artzen dautset? Bear danean zigortu edo kastigau egiten dodaz? (Semeak ez gogorregei, baña ez bigunegi be, ezi bear dira).

**UGAZABA** Ba'naz: **Neure menpeko morroyai (kriduai) alogerea edo jornala emon dautset?** (Sor yakon alogerea auxe da: Ezkondua izan ezkerro, beretzako eta bere etxe-koentzako beste. Ezkondua ezpada, beretzako beste. Orrezaz gañiera gexo edo beste edozein ezbearretan laguntza emon bear yake). **Nire menpean daukadazanak ondo erabili dodaz? Kristiñaua lez eurakin portau naz?**

**MENPEKOA** ba'naz: **Nagusiaren bearrak ondo bete dodaz? Zintzo lan egin dot? Ugazabaren gauzak eta lan-kayak ondo erabili eta gorde dodaz?**

**BOSKARREN AGINDUA: IÑOR EZ DOZU ILGO.**

(Ez gorputzik, ez iñoren arimarik iltea, agindu onek eskatzen dauku. Orregaitik ba, zure yantsi, dantza edo oitura txarrakin, iñori pekatu biderik emon ba'dautsazu, zuk be pekatu egin dozu).

**IÑOGAZ ASARRATU ETE NAZ? Iñor yo, zauritu edo iñoren kalteagaz poztu ete naz? Iñori neure parkamena ukatu? Baten bateri agurrik be ez dautsat egiten?**

**Dantzan edo yantsiak in edo... PEKATURAKO BIDERIK EMON? GEYEGI EDAN dot zentzuna galdu arteño? (oren-besteraño izan ba'da pekatu aztuna egin dozu).**

**SEIGARREN ETA BEDERATZIGARREN AGINDUAK: EZ DOZU ARAGIKERIRIK EGINGO: GOGORAPEN ETA GURARI LOYEI EZ DAUTSEZU LEKURIK EMONGO.**

**BURUAKIN EDO BIOTZAKIN ARAGIZKO PEKATURIK EGIN DOT?** Zeinbat bider, gitxi gora bera? **GAUZA LOIRIK EGIN DOT?**

Neuk bakarrik? Beste inogaz? Gizon, emakume, ezkongai edo ezkonduekin? Senide edo parientea izan da? Persona ez danagaz? Abesti, kanta, ikusketa, dantza, izketa-berbeta zantarrrik erabilli? Ezkongai ba'dezu, berarekin faltau dozu? Zeinbat bider?

**ZAZPIGARREN ETA AMARGARREN AGINDUAK: EZ DOZU OSTUKO. — IÑOREN ONDASUNEN GURARI BIDEBAKORIK EZ DOZU EUKIKO.**

**OSTU ETE DOT ezer, edo kalterik gogo txarragaz egin? OSTUTAKOA BIURTU DOT?** (Lagun urkoari egun bat edo bien irabazten dauan beste kentzea, pekatu aztuna da).

**Sal-erosi, araso eta IRABAZI NASTUETAN IBILLI NAZ?**

Zorrak luzaroan ordaindu barik egon naz? Ilburu, testamentu ta beste agindu-promesak bete dodaz? Dirua geyegi gastau eralgi dot? Limosna edo ukarrrik emon dot?

**ZORTZIGARREN AGINDUA: EZ DAN GAUZARIK IÑORI EZ DAUTSAZU ESARRIKO ETA GUZURRIK BE EZ DOZU ESANGO.**

**IÑOGAITIK TXARTO BERBA EGIN DOT?** Izen ona kentzeko beste? Marmarka eta utsak ateratzen ibilli naz? Besteen txarto esanak pozik entzun? Ixilleko gauzak zabaldu dodaz? Eritxi txarrrik edo arinik euki dot buruan eta lekua emon?

**ELEIZ AMA DEUNAREN AGINDUAK:**

Bijiliak eta barau egunak bete dodaz?

Urtean bein gitxienez autortu-konfesau, eta gure Jau-na artu dot? Buldak artzen dodaz?

Eleizeari bearrizenetan lagundu dautsat?

Bizitza guztiko oben edo pekatuen damu egiazko bat artu egizu.

Orretarako begiratu GORA: Zerua galdu dozu. Begiratu Bera: betiko sugarrak irabazi dozuz. Baña batez be begiratu Jesus gurutzekoari: Zure gaiztakeriak zuk yosi dozu gurutz orretan.

Zure pekatu guztien damua artzeko, "Nik pekatari", edo "Jesukristo neure Jauna" esan egizu.

Zure pekatuak (aztunak gitxienez) autor-entzulleari zintzo esan egiozuz. Pekatua aztunak ba'dira ZEINBAT BIDER be esan bear da.

Emoten dautsun Oben-nekea edo Penitentzia bete egizu eta bein ondo autortu ezkeru etzaitez ibilli lengo bizitzako pekatuak ostera gogora ekarten, eta gauzak nas-tuten.

Zeozer aitzu ba'yatsu, Jaungoikoaren errukiari itxi egiozu.

Jaunari eskerrak emoyozuz, ainbeste gaiztakeri par-katu dautzuzalako.

Amen.



# JAUNARTZEA

## LENENGO EREA

NOR DATOR? Jaungoiko alguztidun, amaibakoa. Zeru-lurrak anditasun eta aintzaz betetan dituna. Gauza guztien egille ta yabea.

Belen'go estalpean yayo, ta gurutzean gugaitik il zana.

Munduaren azkenean illak eta biziak epaituko dituana.

NORENGANA DATOR? Nigana, pekatari gaizto onengana.

Pekatzuz eta utsegitez beterik dagoan biotzera. Autsa ta ezebeza baño gitxiago nazengana.

Ainbeste bider Jaungoiko Santua iraindu do dan pekatariarengana.

ZETARAKO DATOR? Gexorik, pekatuz beterik nago-ta, osasuna emoteko.

Gosez ilten nago-ta, indarrak emoteko.

Txiro ta pobrea naz-ta, zeruko graziz aberastuteko.

Illun negarrez nago-ta, argia ta poza ekarteko.

ZELAN DATOR? Ogi ta ardao antzean, bildur barik artu dagidan.

Errukiz beterik, maitasunez artu dagidan.

Zeruko aberastasunez beterik, biotz beroz artu dagidan.

Aingeruz inguraturik, aintzaz ta lotsaz artu dagidan.

ZEGAITIK DATOR? Maite naualako bakarrik dator.

Maitasun utsak dakar nigana, ez bere irabaziak. Ene maitasun neurri bakoa!!!

Erdu, Jauna, nire biotzera.

Zu zara nire osasun, nire argi, nire aintza ta nire poza.

Zu barik ezertxo be enaz. Zu barik ezin naiteke bizi.

Erdu nire biotzera, biok alkar artuta beti bizi gaitezen.

Biotz guztiaz maite zaitut.

## JAUNARTZEA

### BIGARREN EREA

**SINISMEN EGINTZA.**—Siñisten dot, Jauna, Osti Done orretan zure gorputza ta odola, zure arima ta Jaungoikotasuna dagoala. Zintzo siñisten dot, baña indartu nire siñismena.

Siñisten dot, Jauna, Osti Done orretan, Aita, Semea ta Espiritu Santua dagoala, Irutasun Guztiz Santua. Siñisten dot, Jauna, baña sendotu nire fedea.

Siñisten dot, Jauna, zu zareala nigaitik estalpe baten yayo ta gurutzean il ziñan berbera. Benetan siñisten dot, eta egi orren alde neure bizitza pozik emongo neunke.

**MAITASUN EGINTZA.**—Maite zaitut, Jauna, Zuk lena-go maite izan nozulako, nigaitik gurutzean iltzeraño.

Zure Gorputz eta Odol agurgarriak yaten emoten daustazuz.



Ene maitasun ugaria, gizonarentzat geyegia.

Maite zaitut, Jesus ona, biotz biotzetik.

Nire biotza zure maitasunean sutu egizu.

Ez dagizala Zu besterik maite.

**DAMU EGINTZA.**—Zuk ni ainbeste maite izan arren, milla bider nik iraindu zaitut.

Parkatu, Jesus errukitsua, nire ainbeste oben, gaiztakeri, esker-txar eta utsegite guztiak.

Neurea da erru guztia.—Damuturik nago.

Ez geyago pekaturik, Jauna.

**APALTASUN EGINTZA.**—Baña nor naz ni, Jauna, Zu nigana etorteko? Jaun altsua zara, ta nigana, gizon gaizto onengana zatoz. Santurik santuena, pekatari gaiztoarenengana?

Aingeruak eurak be bildurrez dagoz zure aurrean, ta ni nor naz ba Zu nigana etorteko?

**ITXAROPEN EGINTZA:** Erdu nigana lenbailen, Jauna, etzaitetz luzarotu.

Asko ta sarri iraindu zaitut, baña zure errukia andiagoa da.

Zure Biotz errukitsuan nire uste osoa ipinten dot. Apaindu egidazu nire arimea, bear dan lez Zu artzeko.

Gose-egarri naz Zu nire biotzean artzeko.

#### JAUNARTZE OSTERAKO

**JAUNA GURTZEKO** (adoratzeko).—Zure aurrean be-launiko nago, Jesus maitagarria. Zeruko aingeru ta santuekin batean, apaltasunik andienagaz nik gurtuten zaitut. Milla biotz euki gura neunkez, millakaz Zu maitatzeko. Milla ago, zu aintzatu ta goratzeko. Milla bizi, milla bider nire bizitza zure alde emoteko. Goratua, aintzatu, be-deinkatua izan zaitez, ludian eta zeruan, Jaungoiko andi, on, errukitsua.

**ESKERRAK EMOTeko.** Jesus ona, arriturik eta pozez zoraturik nago, nigana etori zarealako. Zer emongo dautzut mesede onen orde? Ni nazan eta daukadan guzti guztia zurea dozu. Nire gorputz eta arima dana. Nire sentzun eta almen guztiak zuretzat dozuz. Zu zara nire Jaun eta Yabe osoa. Ez daitela nigan ezertxo be geratu, zurea ez danik.

**MESEDE BARRIAK ESKATZEKO.** Ain errukitsu eta aberatsa zarean ezkeru, Zugana nator, Jauna, mesede bariak eskatzera.

Lenengo niretzako. Zu beti maitatzeko grazia eskatzen dautzut. Ni ona, esaneko, garbia, apala izateko indarra ta laguntasuna emoidazuz.

Nire etxeko, senide, adizkidentzat be, bardin eskatzen dautzut. Bizitza onetan kristiñau zintzoak izanik eriotz on bat euki daigula. Baita eskatzen dautzut, Aita Santu, eleizgizon, mixiolari, fedebako errukarren alde. Baita pekatarien alde. Gaur ilgo diran guztiei, zure adizkide iltea emoyezu. Garbitokiko arimen alde be eskatzen dautzut, batez be nire etxeko edo lagunen bat an ba'dago.

Azkenez danen alde eskatzen dautzut, Jauna. Zure laguntza danoi emoiguzu, Zu barik ezertxo ezin dogu-ta.

#### ANDRA MARIARI

Birtu nigana zure begiok, Maria Birjiña goragarria, orain zure begien atsegin poza eginda nago-ta.

Eskatu nire alde biotzean daukadan zure Semeari. Zure irabaziak eskindu nire gaiztakeri, uts eta bearri-zan andien orde.

Eskerrak emon, Ama maitea, nire izenean zure Semeari, eta eskatu: ez daitela nire biotzetik yoan, nire gorputz eta arimea, bere eskar eta mesedez bete bete egin barik. Olantxe.

## GURE JAUNARI IKUSTALDIK

Gora Jesus sakramentukoa.

**Gora ta danok maitatua.**

### Lenengo ikustaldia

1. Emen naukazu, Jauna, zure aurrean, — eskeko bat aberats baten aurrean lez, — Emoidazu zure grazia-  
ren ogi zati bat.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
2. Emen naukazu, Jauna, menpeko bat nagusiaren aurrean lez. — Emoidazu Zure Gorputz ta Odolaren yanaria.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
3. Emen naukazu, Jauna, gexo bat osagillearen aurrean lez. — Nire arima makala sendatu egizu.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
4. Emen naukazu, Jauna, eskola ume bat, maixuaren aurrean lez. — Zerurako bidea erakutsi egidazu.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
5. Emen naukazu, Jauna, seme bat aitaren aurrean lez. Zure zeruko etxean betiko bizi naitela.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
6. Aita Santuaren asmoen alde.  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)

### Bigarren ikustaldia

1. Ene Jesus ona, maite zaitut, maite etzaituen orde.
2. Ene Jesus andia, goratzen zaitut, berba-loi eta biraularien orde.
3. Sagrarioko Jauna, Zu ikustera nator, or bakarrik izten zaituen orde.

4. Jauna, Zu poztutzero nator, pekatari ta gaitoen orde.
5. Jauna, Zugañ siñisten dot, ezagutzen etzaituen orde.
6. Aita Santuaren asmoen alde.

### Irugarren ikustaldia

1. Jesus, Zu zaitut zeruko Ogia; nire eguneroko yanaria izan zaituz.
2. Jesus, Zu zaitut zeruko argia; arimako illunpetan argi egidazu.
3. Jesus, Zu zaitut egia ta bizia; Jaunaren grazian bizi naitela egidazu.
4. Jesus, Zu zaitut zeruko bidea; bide eder ori erakutsi egidazu.
5. Jesus, Zu zaitut zeruko atea; eriotzaldian zabaldu egidazu.
6. Aita Santuaren asmoen alde.

### Laugarren ikustaldia

1. Ene Jesus, sagrario txiki ori, Belen'go estalpe pobreaken antzeko da, — Aberastasunak zapaldu dagidazala.
2. Ene Jesus, Sagrario etxe ori, Nazaret'eko aroztegiaren antzeko da, — Nire lanak santutu dagidazala.
3. Ene Jesus, Sagrario eder ori, Eukaristi apaltokiaren antzeko da. — Bizitz beroz sarri jaunartu dagidala.
4. Ene Jesus, Sagrario mendi ori, Kalbario'ko gurutzaren antzeko da. — Bizitz onetako nekeak Zugaitik eroan dagidazala.
5. Ene Jesus, Sagrario ixil ori, gurutz ondoko obi edo iltokiaren antzeko da. — Mundurako illa izan naitela, gero Zugaz Zeruan bizitzeko.
6. Aita Santuaren asmoen alde.



## Boskarren ikustaldia

1. Jesus'en Biotz maitetsua, nire biotza Zure maitasunean gartu egizu.
2. Jesus'en Biotz indartsua, arerioen zirikaldira ta tentaziñotan indartu nagizu.
3. Jesus'en Biotz errukitsua, nire bizitza pekataria paratu egidazu.
4. Jesus'en Biotz alaitsua, egun illun baltzetan poztu nagizu.
5. Jesus'en Biotz aberatsa, nire arimea onbide ta birtutez bete egizu.
6. Aita Santuaren asmoen alde.

## Seigarren ikustaldia

Or zagoz Jauna, gau t'ekun nigaitik sakramentu orretan.

1. Zugaz berba egiten eztakit-eta, apostoluen antzera diñotzut: "Jauna, otoi egiten erakutsi egidazu".
2. Ariman itsuturik nago-ta, Yerikon'go itsuaren antzera diñotzut: "Jauna, nik ikustea gura dot".
3. Pekatuz beterik nago-ta, lepradunaren antzera diñotzut: "Jauna, gura ba'dozu, garbitu naikezu".
4. Makal eta gexoa naz-ta, Marta ta Maria'ren antzera diñotzut: "Jauna, maite dozuna gexorik dago".
5. Griña gaiztoz ito bearrean nago-ta, San Pedro'ren antzera diñotzut: "Jauna, salbau nagizu, ito larrian nago-ta".
6. Aita Santuaren asmoen alde.

## Altarako Jesus'ekin ordu lauren

Jesus'ek:

Eztozu bear, ene semetxoa, yakitun andirik izatea, Nigana etorteko. Biotzez maite ba'nozu neikoa dozu.

Zure amagaz edo lagunakaz berba egiten dozun lez, Nigaz be egizu.

Besteentzat ez dozu ezer bear? Bere izena esaidazu: zure aita dala, edo anayen bat, edo lagunen bat. — Zer gura dozu, nik euren alde egitea? Eskatu egidazu. Eskatu bildur barik. Norbere buruagaz aiztuta, beste iñoren alde eskatzen dabenak, orreik maite dodaz.

Zuretzako ez dozu ezer bear? Zure bearrizan guztiak erakutsi egidazuz. Esaidazu arroegia zareala, zure gorpuztagaz ezin dozula, sarri berakin uts egiten dozula. Alperra zareala, zure burua maiteegi dozula. Zure griña makurrak ezin ezi dozuzala... Eskatu ta Neuk lagunduko dautzut. Etzaitz lotsatu. Zure antzeko izan diran, ainbeste santu andi dagoz Zeruetan. Apaltasunez erregutu eta apurka ondu ziran.

Ez bildur izan Niri gorputz eta arimako mesedeak eskatzeko: osasuna, yakituria, lana, zure irabazietan ondo urtetea. Eskatzen ba'daustazu, ta zure onerako ba'da, ori guzti ori emongo dautzut.

Zer geyago bear dozu? Zer darabizuz eskuen artean? Nire aintzarako, edo zure guraso, adizkide, edo lagun urkoen arimen onerako, eztozu ezer bear?

Zer daukazu gaur gogoan? Zek txarto urten dautzuz?

Ze arantza zorrotz yosi yatzuz biotzean? Neu naz biotzen yabea, ta neuk ara ta ona daroadaz, nai dodazan tokira.



Nok kalte egin dautzu? Illun eta triste zagoz? Erdunire Biotzera, ta Neuk arinduko zaitut. Neure maitasunarren parkatu egiezu, ta bedeinkatuko zaitut.

Gero zer etorriko ete yatzun, edo zugaz zer izango ete dan, bildur zara? Ez bildurrik euki, Neu naz Jaungoikoa. Neuk zainduko zaitut, eta ezertxo bere, ez yatzu faltako.

Lagunen bat maite izan, eta aldendu egin yatzu? Bere alde otoi egidazu, eta kaltegarri ez ba'yatzu, Neuk, ostera be, zure ondora ekarriko dot.

Pozik zagoz? Zegaitik esaidazu, Ni be zurekin batera poztu naiten. Jaungoikoaren grazian bizi danak, beti pozik egon bear dau.

Premiña edo arrizku andien batetik, ondo urten zara? Eskerrak emoidazuz. Esker onekoa izatea da, gauzarik onena, Nigandik mesede barriak lortuteko.

Egia esaidazu: gizonai guzurra sartu leikiezu, baña Jaungoikoari ez. Bene-benetan esaidazu: ori edo beste lagun gaiztoa, itxiko dozu? A edo bestea etzara ikusten yoango? Indarrik ez ba'dozu, Neuk lagunduko dautzut.

Orain zoaz pozik. Ni ikustera etorrita, ze pozaren andia emon daustazun!!! Ze bakarrik emen gau t'egun nagoan ba'zenki!!! Orain zoaz lantegira, zure etxera edo bearrera. Neuk emendik lagunduko dautzut. Ez naz zurekin aitzuko. Ona izan zaitetz, etxean, kalean, bearrean, leku guztietan. Nire Ama ta zure Ama Maria, biotz biotzez maite egizu.

Erdun beste egun baten be, nire Biotza poztuteko eta zurea baketuteko. Sagrariotik bedeinkatzen zaitut.

Agur, semetxoa, urrengorarte. Jesus'ek.

## GURE JAUNARI IKUSTALDIA (Abestiz)

- 1. Aita Santua dogu, — Eleizearen buru.**  
**Oker ta gatx guztitik, — Jauna, gorde egizu.**  
**Gotzain ta abaden alde — Eskatzen dautzugu:**  
**Biotz Santutasuna, — Danoi emoyezu.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
- 2. Fede bakoan alde, — Jauna, eske gatoz:**  
**Gaxo errukarriak, — Illunpetan dagoz.**  
**Kristiñau aldenduak — Eleizara betoz.**  
**Fede bat ta buru bat, — Maitetasun goxoz.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
- 3. Zuk agindua dogu — Alkar maitatzea.**  
**Arerioari be — Zorrak parkatzea.**  
**Guda gogorrek kendu — Kendu asarrea.**  
**Emon, Jauna, lurrera — Biotzen bakea.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
- 4. Gaur ilgo diranakin — Errukitu zaitetz.**  
**Zure maitasunean — Guztiok il bitez.**  
**Erreguka gaukazuz — Pekatarin aldez.**  
**Ondu daitezen gure — Otoitzen bitartez.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
- 5. Zaindu egizuz, Jauna, — Txiro ta gexuak.**  
**Gosetuak asetu, — Ta askatu lotuak.**  
**Poztu, Jaun ona, arimak — Garbitokikuak**  
**Zeruratu egizuz — Ildako zintzuak.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)
- 6. Aita Santuaren asmoen alde.**  
(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)

## MEZA AURRETIK

Asperges me, Domine, hyssopo, et mundabor: lavabis me et super nivem dealbabor.

Miserere mei, Deus, secundum magnam misericordiam tuam.

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum. Amen.

### (Paskoaldian)

Vidi aquam egredientem de templo a latere dextro.

Aleluia. Et omnes ad quos pervenit aqua ista, salvi facti sunt et dicent: Aleluia, Aleluia.

Confitemini Domino, quoniam bonus; quoniam in seculum misericordia eius. Gloria Patri et...

---

Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

**Et salutare tuum da nobis.**

Domine, exaudi orationem meam.

**Et clamor meus ad te veniat.**

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

### Oremus

Exaudi, Domine, sancte, Pater omnipotens, eterne Deus: et mittere digneris sanctum angelum tuum de celis, qui custodiat, foveat, protegat, visitet atque defendat omnes habitantes in hoc habitaculo. Per Kristum Dominum nostrum. Amen.

## MEZA AURRETIK

Garbitu nagizu, Jauna, eta parkatu nire pekatuak. Edurra baño zuriago zure altarara urreratu naiten. Errukitu zaitez, Jauna, nigaz, zure erruki ugarian. Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan. Amen.

### (Paskoaldian)

Eleiza nagusiko altara ondotik Grazi urak dario.

Aleluia. Eta Grazi ur onek garbitu dauzanak, salbauko dira, eta zeruetan abestuko dabe: Aleluia, Aleluia.

Gutziz ona da Jauna, eta bere errukia amaibakoa Aintza Aitari eta...

---

Zure errukia; Jauna, erakutsi eiguzu.

**Eta zeruko osasuna emoiguzu.**

Entzun, Jauna, gure eskaria.

**Gure deadarra betor Zuganaño.**

Jauna zuekin bego.

**Baita zugaz be.**

### Otoitza

Aita alguztidun, Jaungoiko betikoa, bialdu eiguzu zerutik zure aingeru santua, eleiza onetan gagozan guztiok, gorde, berotu, zaindu ta yagon gaizala, Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.



## MEZA SANTUA

Sarrera.—Introitoak

In nomine Patris et Filii et Spiritu Sancti, Amen.  
Introibo ad altare Dei.

**Ad Deum qui letificat iuventutem meam.**

Yudica me, Deus, et discerne causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo et doloso erue me.

**Quia tu es Deus fortitudo mea, quare me repulisti, et quare tristis incedo, dum affligit me inimicus?**

Emitte lucem tuam et veritatem tuam: ipsa me deduxerunt et adduxerunt in motem sanctum tuum et in tabernacula tua.

**Et introibo ad altare Dei, ad Deum qui letificat iuventutem meam.**

Confitebor tibi in citara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea et quare conturbas me?

**Espera in Deo, quoniam aduc confitebor ili, salutare vultus mei, et Deus meus.**

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.

**Sicut erat in principio et nunc et semper, et in secula seculorum. Amen.**

Introibo ad altare Dei.

**Ad Deum qui letificat iuventutem meam.**

Adiutorium nostrum in nomine Domini.

**Qui fecit celum et terram.**

Confiteor Deo Omnipotenti...

Orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

## MEZA SANTUA

Sarrera — Introitoak. (Belauniko)

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.  
Amen.—Jaunaren altarara urreratuko naz.

**Pozez betetzen gaitu jaunagana.**

Bialdu eiguzu, Jauna, zure egiaren argia.

**Argi orrek eroango gaitu zure mendi santura, zure aldara aurrera.**

Gure itxaropena Jaunagan ipiñi daigun.

**Bera da gure betiko osasuna eta Jaungoiko altsua.**

Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari.

**Len lez orain, beti, ta amaibako egunetan. Amen.**

Jaunaren altarara urreratu gaitzean.

**Gure biotzak garbitu daiguzan.**

Jaunaren errukia andia da. Gure pekatuen parkame-na eskatu daigun.

**Nik pekatari onek autortzen dauzat.**

**Alguztidun Jaungoikoari,**

**Andra Maria beti birjiñari,**

**Zori ondun Migel goiaingeruari,**

**Zori ondun Juan Bautisteari,**

**Pedro ta Paulo apostolu deunai,**

**Beste santu guztiai, eta zuri ene aita orri,**

**Pekatu larregi egin dodala gogapen, itz eta egitez.**

**Neure erruz, neur erruz, neure erru andiz,**

**Augaitik eskatzen dauzat**

**Andra Maria beti birjiñari,**

**Zori ondun Migel goiaingeruari,**

Misereatur tui omnipotens Deus, et dimisis peccatis tuis, perducat te ad vitam eternam.

Amen.

**Confiteor Deo Omnipotenti, Beate Maria semper Virjini, Beato Mikaeli arkanjelo, Beato Yoanni Baptiste, Sanctis Apostolis Petro et Paulo, omnibus sanctis et tibi Pater, quia pecavi nimis, cogitacione, Verbo et opere, mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa.**

**Ideo precor Beatam Mariam semper Birjinem, Beatum Mikaelem arkanjelum, Beatum Yoannem Baptistam, Sanctos Apostolos Petrum et Paulum, omnes sanctos et te Pater, orare pro me ad dominum Deum nostrum.**

Misereatur vestri Omnipotens Deus et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam eternam.

**Amen.**

Indulgenziam, absoluzionem et remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis omnipotens et misericors Dominus, **Amen.**

Deus tu conversus vivificabis nos.

**Et plebis tua letabitur in te.**

Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

**Et salutare tuum da nobis.**

Domine exaudi orationem meam.

**Et clamor meus ad te veniat.**

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

**Zoriondun Jaun Bautisteari, Pedro ta Paulo Apostolu Deunai, Beste santu guztiai, eta zuri ene aita orri, Otoi egin dayozuela nire alde, Jaungoiko gure Jaunari.**

Jaungoiko alguztiduna gutzaz errukiturik, gure obenak parkatu, eta betiko bizitzara eroan gaizala.

**Olantxe.**

Gure pekatu guztiak azkatu ta parkatu daizala, Jaun alguztidun errukitsuak.

**Olantxe.**

Jauna, entzun gure otoia.

**Gure eskaria zuganaño igon bedi.**

#### **Introitoa. (Zutunik)**

Gure pekatuak parkatu eiguzuz, Jauna, Altara Deun onetara biotz garbitz urreratu gaitezan. Zeruko Santu guztien irabazien bidez, gure oben guztiak asketsi eiguzuz.

Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari. Len lez, orain, beti ta amaibako egunetan. Amen. Gure pekatuak parkatu eiguzuz, Jauna.



## K Y R I E

Kirie, eleison.

**Kirie, eleison.**

Kirie, eleison.

**Kriste, eleison.**

Kriste, eleison.

**Kriste, eleison.**

Kirie, eleison.

**Kirie, eleison.**

Kirie, eleison.

## G L O R I A

### Gloria in excelsis Deo

Et in terra pax hominibus bone voluntatis.—  
**Laudamus te.** — **Benedicimus te.** — **Adoramus te.** —  
Glorificamus te.—**Grazias agimus tibi, propter mag-**  
**nam gloriam tuam.** — Domine Deus, Rex celestis,  
Deus Pater Omnipotens. — **Domine Fili Unigenite,**  
**Jesu Kriste.**—Domine Deus, Agnus Dei, Filius Pa-  
tris.—**Qui tolis peccata mundi, miserere nobis.**—**Qui**  
**tolis peccata mundi, suscipe deprecationem nostram.**  
**Qui sedes ad dexteram Patris, miserere nobis.**—  
**Quoniam tu solus sanctus.**—**Tu solus dominus.**—**Tu**  
**solus Altissimus, Yesu Kriste.**—**Cum Sancto Spiritu**  
**in gloria Dei Patris.** Amen.

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

## Kyrie

Jauna, erruki zakiguz.

**Jauna, erruki zakiguz.**

Jauna, erruki zakiguz.

**Kristo, erruki zakiguz.**

Kristo, erruki zakiguz.

**Kristo, erruki zakiguz.**

Jauna, erruki zakiguz.

**Jauna, erruki zakiguz.**

Jauna, erruki zakiguz.

## Gloria — Aintza

**Aintza Jaungoikoari zero goyetan,** —eta lurrean ba-  
kea biotz oneko gizonai.

**Jauna, goratzen zaitugu.**—Bedeinkatzen zaitugu.

**Agurtzen zaitugu.**—Eskerrak zuri, Aita alguztidunari.

**Munduko obenak kentzen dozuzan Jaungoiko bildotsa,**  
**erruki zakiguz.**

Jauna, entzun gure eskaria.

**Zu bakarrik zara santu.**—Zu bakarrik, Jauna,—

**Zu bakarrik goren gorengoa, ene Jesukristo.**

Espiritu Santuarekin batean. Olantxe.

Jauna zuekin bego.

**Baita zure ariman be.**

## OREMUS - OTOITZA

Gaurko egunean ospatzen dogun Santuaren bi-tartez — eta zeruko guztien irabaziakaitik — meza emolleak gure ordezkarien dauana — arren, emoiguzu, Jauna.

Gure Aita Santu, — gure Gotzain, obispo, — Nagusi eta etxeko guztiak — gatz guztietatik yagon egizuz. — Bakea eta osasuna lur onetan emoiguzu,

Zure eleizatik aldenduak, batu egizuz — eta siñiste bakoak fedearen argira ekarri egizuz — Jesukristo gure Jaunaren bidez. Olantxe.

## EPISTOLA - IRAKURGAYA (Yesarrita)

Paul Deunak Korinto'ko kristiñauai:

Anai maiteok: Jaunak irakatsita dakit orain esatera noakizuen: Jesus gure Jaunak, ilgo eben aurreko egunean, ogia artu eta eskerrak emonik, zatitu eta esan eban: "AU NEURE GORPUTZA DA, zuen alde salduko dana, egizue au nire gomutaz".

Apalondoan bardin, ontzia artuta esan eban: "ONTZI AU NIRE ODOLEKO ITUN-TESTAMENTU BARRIA DA; egizue au neure gomutaz".

Ogi au yaten eta odol au edaten dozuen bako-txean, Jaunaren eriotza iragarriko dozue. Begiratu bekio bakotxak bere barruari eta olan yan bei OGI onetatik eta edan ARDAO onetatik. Bear ez danez yaten eta edaten dauanak, bere ondamentia yaten eta edaten dau, Jaunaren gorputza galtzen daualako.

DEO GRAZIAS.—Jaunari eskerrak.

## GRADUALE - ZURUBIA

Nire aragia benetan da yanari, eta nire odola benetan edari. Nire aragia yan eta nire odola edaten dauana, Nigan bizi da eta Ni beragan.

## EBANJELIOA - BARRI ONA (Zutunik)

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

Sekuenzia Sancti Evanjelii...

**Gloria tibi, Domine.** (Aintza zuri, Jauna).

Beñola Jesus'ek esan eutsen:

Ni naz ogi bizia zerutik etorria. Ogi onetatik iñok yaten ba'dau, betiko biziko da. Nik emongo dodan Ogia, neure aragia da, gizonak bizi daitezana.

Bene benetan diñotsuet: Nire aragia yan eta nire odola edan ezik, ez dozue zuen arimetan bizitzarik eukiko. Nire aragia yan eta nire odola edaten dauanak betiko bizitza dauko, eta neuk azken egunean bizituko dot. Nire aragia yanari da benetan eta nire odola edari benetan. Nire aragia yan eta nire odola edaten dauana Nigan dago eta Ni beragan. Nin naz zerutik yatsitako ogia. Ogi au yaten dauana betirako biziko da.

**Laus tibi, Kriste** (Aintza zuri, Kristo Jauna)



**Kredo in unum Deum**

Patrem Omnipotentem, factorem celi et terre, visibilium omnium et invisibilium.—**Et in unum Dominum Yesum Kristum, Filium Dei Unigenitum.** Et ex Patre natum ante omnia secula.—**Deum de Deo, lumen de lumine, Deum vero de Deo vero.**—Jenitum non factum, consubstantialen Patri: per quem omnia facta sunt.—**Qui propter nos homines, et propter nostram salutem, descendit de celis.**—Et incarnatus est de Spiritu Sancto, ex Maria Virjine, et homo factus est.—**Cruzifixus eziam pro nobis, sub Ponzio Pilato: passus et sepultus est.**—Et resurrexit tertia die secundum Scripturas.—**Et ascendit in celum: sedet ad dexteram patris.**—Et iterum venturus est cum gloria, iudicare vivos et mortuos: cuius regni non erit finis.—**Et in Spiritum Sanctum Dominum et vivificantem, qui ex Patre Filioque procedit.**—Qui cum Patre et Filio simul adoratur et conglorificatur: qui lokutus est per profetas.—**Et unam, sanctam, catholicam et apostolicam ecclesiam.**—Confiteor unum baptisma, in remissionem peccatorum.—**Et specto resurrectionem mortuorum.**—Et vitam venturi seculi. Amen.

Siñisten dot Jaungoiko Aita alguztiduna, zeru lurren egillea.

Siñisten dot Jesukristo, bere Seme bakar gure Jauna. Espiritu Santuaren egitez sortu, ta Maria Birjiñagandik yayo zana.

Pontzio Pilatoren menpean nekaldua; gurutzean yosia, illa ta obiratua izan zana.

Inpernuetara yatsi, ta irugarren egunean illen arte tik biztu zana.

Zeruetara igon, eta Jaungoiko Aita alguztidunaren eskumaldean yesarrita dalgana.

Andik biziak eta illak epaitzera etorriko dana.

Siñisten dot Espiritu Santua.

Eleiza Santu Katolikua.

Santuen alkartasuna.

Pekatuen parkamena.

Ildakoen biztuera,

Ta betiko bizitza. Amen.

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

## MEZAREN BIGARREN ATALA OFFERTORIUM = ESKINTZA

### OGIA ESKINTZEAN (Yesarrita)

Artu egizu, Aita alguztidun betikoa, eskintzen dautzugun ogi opari garbi au. Nire ainbeste pekatu eta utsegiten orde. Meza onetan gagozan guztien onerako. Baita kristiñau il eta bizien alde. Danon betiko bizitzarako, Mezako opari au izan dakigula. Olantxe.

### ARDAOA URAKIN NASTUTEAN

Ene Aita Jaungoikoa, Zure Seme Bakarra, Jaungoiko izanik, gu erostearren gizon egin zan. Arren eiguzu, Meza onen bitartez, gizonek Jaungoikotu gaitzela, ur apur ori, ardao goxo biurtu dan antzera. Olantxe.

### ARDAOA ESKINTZEAN

Zuri eskintzen dautzugu, Jaun errukitsu orreri, ontzi osasungarri au. Usain gozoz igon dedilla, Jaungoiko Aundiaren aurrera, gure ta mundu guztiaren osasunerako. Olantxe.

### ESKUAK GARBITZEAN

Nire eskuok orban guztitik garbitu — eta zure altarara elduko naz, Jauna.

Maite dot, Jauna, zure etxe ederra, — eta zure bizileku argitsua.

Ez daitela galdu nire arimea. — Gizon gaiztoakin ez naitela nastu.

Beti garbi ibilliko naz. — Yagon nagizu eta erruki zakidaz.

Aintza Aitari, ta Semeari ta Espiritu Santuari. Len lez orain, beti ta amaibako egunetan. Amen.

### IRUTASUN DEUNARI

Artu egizu, Irutasun Deun orrek, eskintzen dautzugun Opari Santu au. Jesukristoren eriotza, bizkunde ta zerura igotearen gomutaz; Maria beti Birjiña zorionsuaren, apostoluen eta beste Santu guztien aintzarako, Zeruan gure bitarteko izan daitzan. Olantxe.

### ORATE FRATRES

Orate, fratres: ut meum ac vestrum sacrificium, acceptabile fiat apud Deum Patrem omnipotentem.

Suscipiat Dóminus, sacrificium de manibus tuis, ad laudem et gloriam nóminis sui, ad utilitatem quoque nostram, toziusque Ecclesie sue Sancte.

Otoi egizue, anayok, nire ta zuena dan opari au, Jaungoiko Aita alguztidunari, gogoko izan dakion.

Artu bei Jaunak, zure eskuetako opari ori, bere aintzarako. — Baita gure onerako — eta Eleiza Ama Deunaren alde.

Olantxe.

### IXIL-OTOITZA

Zuri eskindutako opari onek, garbitu gaizala, Jauna. Eta egunetik egunera Zu geyago maitaturik,



zeru ederrean Zugaz batera aurkitu gaitzela. Jesukristo gure Jaunaren izenean.

### SAGARA AURREA - PREFACIUM (Zutunik)

Per omnia secula seculorum.

**Amen.**

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

Sursum corda.

**Habemus ad Dominum.**

Grazias agamus Domino Deo nostro.

**Dignum et iustum est.**

Bai benetan egoki ta bidezkoa da, Jaun alguztidun betikoa, guk zuri nonai ta beti eskerrak emotea, Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Goiko aingeru talde guztiak biotz baten goratzen zaitue. Zeru ta zerutarrak txalotuten zaitue.

Aingeruekin batera, gure gorapenak bere artu egiaz, esanaz:

**Sanctus, Sanctus, Sanctus, Dominus Deus sabaoth — pleni sunt celi et terra gloria tua. — Hosanna in excelsis.**

**Benedictus qui venit in nómine Dómini. — Hosanna in excelsis.**

Gora biotzak.

Jaunagan daukaguz.

Eskerrak gure Jaungoiko Jaunari.

Egoki ta bidezkoa da.

Santua, Santua, Santua, gizon ta aingeruen Jaungoikoa. — Zeru ta lurak zure Aintzaz beterik dagoz.

Bedeinkatua Jaunaren izenean datorrena. — Gora zeru goyetan.

## MEZAKO IRUGARREN ATALA

### KANON - ARAUA (Belauniko)

Zuri, Aita errukitsuenari, zure Seme Jesukristo gure Jaunaren bitartez, makurturik eskatzen dautzugu, gure opari garbi oneik, ontzat artu eta bedeinkatzeko.

Lenengo Eleiza Ama Donearen alde eskatzen dautzugu. Lurbira guztian baketu, batu ta zuzendu dagizun.

Baita gure Aita Santu, Gotzain, agintari, eleizgizon eta katoliku fededun guztien alde, eskatzen dautzugu.

### BIZIEN MEMENTOA

Gure asmo guztien alde be eskatzen dautzugu. (Erakutsi orain Jaungoikoari bakotxak bere asmoak.) (Ixil-aldia...)

Gure arimak zeruratu daiguzan, zure laguntza eta betiko osasuna emoiguzu, Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

### ZERUTARREN LAGUNTZA ESKATZEKO

Jaungoikoaren Ama, Mari beti Garbi, — Zorioneko apostolu ta martiri — eta zeruko beste Santu guztien bitartez, zure laguntzaren indarra aurkitu daigula, Jauna, — Jesukristo gure Jaunaren izenean. Olantxe.

## HANC IGITUR

Zure menpekoen oparia au, atsegiñez artu egizu, Jauna. Bizitz onetan bakea emoiguzu. Betiko sugarrretatik aldendu gaizuz, egunbaten zeruan aurkitu gaitazan. Gure Jaun Jesukristo'ren bidez. Olantxe.

Ogi-ardao opari au bedeinkatu egizu, — Zure Seme maite Jesukristo'ren Gorputz eta Odol biurtu daiten.

Kalbario mendiko misterio andia laster altara gañean dogu.—Jesukristo gure Jaunak bere bizia ta odola gure pekatuen ordezkinduko dautso bere Aita Jaungoikoari.

(Meza emolleak Osti Santua goratzen dauanian, biotz biozez gurtu eta esan egiozu):

NEURE JAUN ETA NEURE JAUNGOIKOA.

NIK GURTUTEN ZAITUT — JESUS'EN GORPUTZ NIGAITIK GURUTZEAN ILDAKOA. — ESKERRAK, JAUNA, AINBESTE MAITASUNAGAITTIK, — PAKATU GURE PEKATUAK — ETA EZ GALTZEN ITXI AIN KARU EROSITAKO ARIMAK.

(Ontzi Deuna goratzean esan):

NIK GURTUTEN ZAITUT — JESUS'EN ODOL — NIGAITIK GURUTZEAN IZURIA, — GARBITU, JAUNA, ODOL ORREGAZ MUNDU GUZTIA.

† † †

## SAGARA OSTEAN

Andra Maria'gandik yayo, Kalbario mendian il, ta irugarren egunean zoriotsu biztu zan Jesus, altara gañean dago. Gurtu daigun gure Jaun Andia.

Osti garbi, — Osti Santu, — Osti errubakoa eskintzen dautzugu, Jauna, — Betiko bizirako Ogi Donea, — eta betiko osasuna dakarkigun Ardau Ontzia.

Opari Deun oneik artu egizuz, Jauna, Lege Zarreko Abel, Abraam eta beste gurasoenak artu zenduzan lez.

Zeruko aingeruak, bere eskuetan artu, eta eroan dagizala zeruko altare bikañera, zure anditasunaren aurrera. Zure Semearen Gorputz Odolak artzera goazenok, Goi-esker ugariz bete beteak izan gaitzen. Olantxe.

## ILLEN ALDE OTOITZA

Gomutau zaitetz, Jauna, orain bake gozoan le dagozan, eta len fededun izan ziran zure ildakoakaz. (Eskatu bakoitxak Jaunari illen alde).

## GURE ALDE

Guri, pekatarioi be, baztertxo bat zeruetan emoiguzu, zure apostolu, martiri eta Santu guztiak batean. Ez dogu irabazi, baña zure erruki andi ugarian, gure itxaropen guztia ipinten dogu, Jesus'en gurutzeko irabazien bidez.

Zure Semeagaitik dana egin dozu, dana deundu, dana bedeinkatu et guretzat emon.



## OSTI YASOTZE TXIKIA

Jesukristo'ren bidez, Jesukristo'rekin, eta Jesukristo'gan, Zuri Aita alguztidun orreri, Espiritu Santuarekin batean, aintza eta gorapen guztia dagokizu, amaibako egunetan. Olantxe.

### MEZAKO LAUGARREN ATALA (Zutunik)

#### Aita gurea

Per omnia secula seculorum.

**Amen.**

Oremus.

Preceptis salutaribus muniti et divina institutione formati audemus dicere:

**Pater noster, qui es in celis, sanctificetur nomen tuum, adveniat regnum tuum, fiat voluntas tua sicut in celo et in terra.**

**Panem nostrum quotidianum da nobis hodie, et dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris, et ne nos inducas in tentationem.**

**Sed libera nos a malo.**

**Amen.**

Eskaririk ederrena; Jesucristo'k erakutsitako otoitza esan daigun:

#### Aita gurea.

Aita gurea, zeruetan zagozana: — Santifikadu bedi zure izena; — betorkigu zure erreiñua; egin bedi zure borondatea zeruan lez lurrean be.

Emoiguzu gaur gure eguneroko ogia; parkatu eigu-zuz geure zorrak, geuk gure zorduani parkatzen dautseguzan lez; eta ez eiguзу itxi tentaziñoan jausten; baña gatxetik yagon gaizuz.

Amen.

Lengo, oraingo eta geroko gatx guztietatik — yagon gaizuz, Jauna, — eta Jaungoikoaren Ama Mari beti garbi, — zure apostolu Pedro eta Paul eta Ander, — eta gañerako Santu guztien bitartez, — bizibide baketsua emoiguzu, — Baita pekatutik yagon gaizuz, — Jesukristo'ren bidez. — Olantxe.

### OGI ZATITZEA

Per omnia secula seculorum.

**Amen.**

Pax Domini sit semper vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

**Laster artuko doguzan, Jesus'en Gorputz et Odolak, betiko bizitzara eroan gaizala.**

Amaibako egunetan goratu daigun Jauna.

**Olantxe.**

Jaunaren bakea zuekin bego beti.

**Baita zure ariman be.**

### AGNUS DEI

**Agnus Dei, qui tolis peccata mundi. — Miserere nobis.**

(Dona eis requiem).

**Agnus Dei, qui tolis peccata mundi. — Miserere nobis.**

(Dona eis requiem).

**Agnus Dei, qui tolis peccata mundi. Dona nobis pacem.**

(Dona eis requiem sempiternam).

Gizonen obenak kentzen douzuzan Jaungoiko Bildotsa. — **Erruki zakiguz.**

(Bakea emoiezu).

Gizonen obenak kentzen douzuzan Jaungoiko Bildotsa. — **Erruki zakiguz.**

(Bakea emoyezu).

Gizonen obenak kentzen douzuzan Jaungoiko Bildotsa. — **Bakea emoiguzu.**

(Betiko bakea emoyezu).

## JAUNARTZE AURREKO OTOITZAK (Belauniko)

Jesus gure Jauna, Zuk zure apostoluei esan zeun-  
tsen: Nire bakea emoten dautzuet. Gure pekatuei  
ez begiratu, zure eleizaren siñismenari baño. Elei-  
zea baketu eta bat egizu; eta Jaunartzera goazeno  
zure parkamena eta errukia emoiguzuz.

Jesus gure Jauna, Zure eriotzaren bidez, gizo-  
nak erosi zenduzana. Zure Gorputz et Odol agur-  
garrien bitartez, parkatu gure gaiztakeri eta oker  
guztiak. Zure aginduak beti betetzen lagundu, eta  
Zugandik alde egiten ez guri iñoz be itxi.

Jesus gure Jauna, Zu gure biotzean artzeko iñor  
ez gara. Baña arren eskatzen dautzugu, zure Gor-  
putz Santu ori, ez daitela izan gure ondamendirako,  
gure gorputz-arimaren osasunerako baño. Aitare-  
kin bizi zareana, Espiritu Santuarekin batean.  
Olantxe.

## ABADEAK JAUNARTZEAN

Zeruko Ogia artu, ta Jaunaren laguntza eskatu-  
ko dot. Jesukristo gure Jaunaren gorputzak, betiko  
bizitzarako gure arimea yagon bei. Olantxe.

Jesus, gure Jaun maitea, Zuk esan zenduan: Ni  
naz Ogi bizia zerutik yatsia. Ogi orren gose gara,  
erdu gure biotzera.

Jesus, gure Erosle maitea, Zuk esan zenduan:  
Ogi ori neure aragia da, mundu guztiaren bizirako.  
Erdu gure biotzera bizitza emotera.

Zurekin bat egiñik bizi nai dogu. Erdu gure  
biotzera bizitzeko batera.

Zeruko Ogia artu daigun, ta Jauna izango da  
gure lagun.

Jesukristo gure Jaunaren Gorputzak, nire ari-  
mea zeruratu dagiala. Olantxe.

(Agoz Jaunartzen ez ba'dozu, gogoz egizu).

## GOGOZKO JAUNARTZEA

Neure Jesus maitea, Altarako Sakramentu orretan, be-  
netan zagozala siñisten dot. Zeruko aingeruekin batera,  
gurtuten zaitut. Neure biotzean artu gura zinduket.

Baña orain ezin dodan ezkerro, erdu, beintzat, gogoz  
nire biotz onetara. Zugaz bat eginda bizi nai dot. Iñoz  
ez al naz Zugandik aldenduko.

## JAUNARTZE OSTEAN

(Lenengo Jauna gurtu egizu eta bear dozuzan  
mesede barriak eskatu. Gero esan egizu):

Jaunaren Gorputza artu, ta bere Odol agurga-  
rria edan dot. Zer emongo dautsat Jaunari, egin  
daustan mesede ain andi onen orde? Jauna beti  
pozez goratu daigun, eta gure arerioak ez daukue  
kalterik egingo.

Ago garbiz artu doguna, biotz garbiz be artu  
daigula.

Ogi Done onek, zeruetan betiko osasuna emon  
daigula.

Artu dogun zure Gorputza, ta edan dogun zure  
Odola, landaratu beitez, Jauna, gure biotzetan, eta  
Eukaristi Done onekin indartu gareanok, ez gaitze-  
zela gaiztakerietan zikindu.



## AZKEN OTOITZA (zutunik)

Pozez artu egizu, Irutasun Done orrek, zure menpekook eskindu dautzugun Opari Deun au.

Ta Jaungoiko andia izan arren, zure errukia andi-  
diagoa dan ezkeru, ontzat artu egizu.

Meza Santu onetan egin doguzan utsegiteak par-  
katu eiguzuz, Jesukristo'ren irabazien bidez. Olantxe.

### (Belauniko)

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

Ite, Missa est.

**Deo grazias.**

Benedicat vos: Omnipoten-  
s Deus, Pater, et Fi-  
lius et Spiritus Sanctus.

**Amen.**

Jauna zuekin bego.

**Baita zure ariman be.**

Mezea amaitu da.

**Eskerrak Jaungoikoari.**

Jaungoiko alguztidunak  
onetsi bedeinkatu zagieza-  
la: Aitak, Semeak eta Es-  
piritu Santuak.

**Olantxe.**

## AZKEN EBANJELIOA

Dominus vobiscum.

**Et cum spiritu tuo.**

Inizium Sancti Evangelii  
secundum Yoannem.

**Gloria tibi, Domine.**

(Zutunik).

San Joanen barri onaren  
asikera.

**Aintza zuri, Jauna.**

Asieran Jaungoikoaren Semea ba-zan. Ta Au  
Jaungoikoagan zan. Guztia berak egiña da. Be-  
ragan egoan bizitza, ta bizitz ori gizonen argia zan.  
Argia illunpetan agertu zan, eta illunak ez eben ain-

tzat artu. Bera da, gizon guztiak argitu ditun argia,  
baña gizonek ez eben ezagutu. Bereengana etorri,  
ta beretarrak ez eben artu. Ondo artu ebenai, os-  
tera, Jaungoikoaren Seme izateko eskubidea emon  
eutsen. **ETA JAUNGOIKOAREN SEMEA GIZON EGIN  
ZAN,** eta gure artean bizi izan zan. Eta guk bere  
anditasuna ikusi dogu, aintzaz ta egiz betea.

Deo grazias.

Jaunari eskerrak.

## AZKEN OTOITZAK (Belauniko)

**Agur Maria...** (Iru bider).

AGUR ERREGIÑA, — AMA ERRUKIORRA. —  
GEURE BIZITZA, GOZOTASUN ETA ITXAROPENA,  
AGUR.

ZURI DEYEZ GAGOZ EBA'REN UME ERBESTE-  
TUOK: ANTZIZ ETA NEGARREZ GATORKIZUZ NE-  
GAR ERRI ONETAN.

EA BADA GURE BITARTEKO ANDREA, ZEURE  
BEGI ERRUKITSU ORREIK, GUGANA BIURTU EGI-  
ZUZ, ETA ERBESTE ONEN ONDOREN, ERAKUSKU-  
ZU JESUS, ZURE SABLEKO SEME ONETSI ORI.

O BIOTZ BIGUN.

O ERRUKIOR.

O MARIA BIRJIÑA GOZOA.

GURE ALDE OTOI EGIZU JAUNGOIKOAREN  
AMA DONE ORREK, JESUKRISTOREN AGINTZA-  
RIAK YADETSI DAIKEGUZAN. AMEN.

## OTOI EGIN DAIGUN

GURE IGESLEKU TA INDAR ZAITUGUN JAUNGOIKO ORREK, — DEYEZKA DAUKAZUN ERRIA BEGI ONEZ BEGIRATU EGIZU. — TA MARIA JAUNGOIKOAREN AMA, BETI BIRJIÑA ZORIONTSUA, TA BERE SENAR SAN JOSE, TA PEDRO TA PAULO APOSTOLU DOATSUAK BITARTEKO DIRIALA, — PEKATARIEN DAMUA, TA ELEIZ AMA SANTUAREN ASKATASUNA TA GORAMENA ESKATUAZ, ZUZENTZEN DAUTZUGUZAN ERREGUAK, ERUKIZ TA BIOTZ BIGUNEZ ENTZUN EGIZUZ. AMEN.

MIKEL GOI AINGERUA, GURE ARIMAREN BURRUKALDIETAN GORDE GAGIZUZ, — ETA DEABRUAREN GAIZTAKERI TA AZPIKERIEN AURKA, ZAINDARI IZAN ZAKIGUZ. — JAUNGOIKOAK MENERATU DAGIALA, ERREGU TA ERREGU ESKATZEN DAUTZUGU. — TA ZERUKO GUDARI TALDEAREN BURU ZAREAN EZKERO, MUNDUAN ZEAR, ARIMAK ONDATZEN DIARDUEN SATANAS, TA GAÑERAKO DEABRU GAIZTOAK — ZURE JAUNGOIKOZKO INDARREZ, INPERNURA YAURTI EGIZUZ. AMEN.

**Jesus Biotz guztiz Donea,**  
ERRUKI ZAKIGUZ.

## MEZA OSTERAKO

### LITURJI OTOITZAK

Ene bazkari Donea, Kristoren Gorputza yan dogu, bere nekaldia gogoratu ta barriztau.—Gure arimea eskarrez bete, eta zeruko zoriona eskuratu dogu.  
Zeruko Ogia emon dauskuzu yateko.

### GOZOTASUN GUZTIA DAUKAN OGIA.

#### Otoitza

Sakramentu arrigarri onetan, zure gurutzeko oñazen gorantzia itxi dauskuzun, Jaungoiko Jauna. Arren emoguzu, zure Gorputz-Odolaren ezkutuki Doneak biotzez gurtutea, Zure gurutzeko irabazien bidez, gure arimak geroago ta geyago aberastu daitezcan. Olantxe.

### LOYOLA'KO IÑAKI DEUNAREN OTOITZA

Kristoren arimea, deundu nagizu.  
Kristoren gorputza, salbau nagizu.  
Kristoren odola, ase nagizu.  
Kristoren sayetzeko ura, garbitu nagizu.  
Kristoren nekaldia, indartu nagizu.  
Ene Jesus ona, entzun nagizu.  
Zure zauri barruan, gorde nagizu.  
Zugandik alde egiten, ez niri itxi.  
Arerio gaiztoakandik, yagon nagizu.  
Eriotz aldian, dei egidazu.  
Eta zugana yoateko, agindu.  
Zure deunekaz, betikotasun osoan,  
Zu goratzeko. Olantxe.



## GURUTZEKO JESUS'ERI

(Gurutze baten aurrean esan bear da)

Ona emen ni, ene Jesus, on eta gozo gozoa.

Zure aurrean auzpaz ta belauniko nago.

Gogorik bizi ta gartsuenagaz, bein eta barriro eskatzen dautzut:

Arren nire biotz oneri, siñismen, itxaropen eta maitasunaren sua;

Neure obenen damu zindoa;

Eta oker orreik zuzentzeko asmoa, esarri ta arrazo dayozuzala.

Maitazun andiz ta damu zintzoz, zure bost zauri orreik gogoz ikusita, auznartzen dodazan bitartean.

Dabid igarleak, zure agoan ipinten ebazan itz oneik, neure aurrean dodazala:

Nire esku ta oñak zulatu, ta nire azur guztiak kontau dabez.

(Aita gurea... Agur Maria... Aintza...)

## LOYOLA'KO IÑAKI DEUNAREN ESKINTZA

Nire azkatasuna osoro zeugandu egizu, Jauna.  
Nire oroimen, adimen eta naimen osoa artu egizuz.

Daukadan eta dodan guztia zeuk emon zeustan, eta zeuri biurtzen dautzut.

Zurea nozu, ta nayen dozunez erabilli egizu.

Zure maitasuna ta eskarra, arren, emoidazu.

Eta neiko aberatsa naz.

Orrezaz gañera, besterik ezertxo be, ez dot eskatzen.

## JAUNARI ESKERRAK EMOTEKO, LENENGO GIZALDIKO KRISTIÑAUEK OTOITZA

Eskerrak zuri, Gure Aita orreri, zure Seme Jesus'en bitartez, ardao Santu au emon dauskuzulako.

Aintza zuri betiko.

Eskerrak zuri, gure Aita orreri, zure Seme Jesus'en bidez, bizitza ta yakituria emon dauskuzulako.

Aintza zuri betiko.

Soloetan zabalduta egon dan garia, yan dogun Osti Santua egiteko, batu dan antzera; munduaren lau alderdietan bizi diran kristiñauak, eleiza batean batu daitezela, Zure Erreñuaren batasunean.

Zurea da aintza, Zurea betiko indarra, Jesukristoren izenean.

Eskerrak Zuri, Jauna, gure biotzetan zure izen Santua yosi dozulako. Baita zure Semearen bidez, emon dauskuzun yakituri, siñismen eta betiko bizitzagaitik.

Zure aintzarako gauza guztiak egin zenduzan Jaun algutzidun orrek, Yanari ta Edari atsegingarriak emon dauskuzuz.

Eskerrak Zuri, zure Semearen bidez, bazkari eta Edari Done au, emon dauskuzulako.

Eskerrak Zuri, ain altsua zarealako; aintza Zuri betiko.

Gomutau zaitetz, Jauna, zure eleizatza, gatx guztietatik yagon egizu, eta zure maitasunean santutu egizu.

Lau aldeetatik batu egizu, zuk eragi zenduan Erreñuan donetu daiten.

Zurea da indarra, zurea da aintza, betikotasun guztian. Olantxe.

## AGURTZA (Errosarioa)

Gurutze Santuaren... Jesukristo neure Jauna...

Domine, labia mea aperies. Jauna, nire espariak idegi egizuz.

**Et os meum anunziabit Ta Nire agoak goratuko laudem tuam. zaitu.**

Deus, in adiutorium meum intende. Jauna, lagun zakidaz. **Niri laguntzeko, Jauna,**

**Domine, ad adyuvandum me festina: bizkortu zaite. Aintza Aitari...**

Gloria Patri... **Len lez orain, beti, ta Sicut erat... amaibako egunetan. Amen.**

**Ama eskartsu ta errukiorra,  
Gure areriokandik zaindu  
Ta eriotz-aldian artu gaizuz.  
Olantxe.**

### POZEZKO EZKUTUKIAK (Misterioak)

(Astelen, egunetan)

1. Jaungoiko Semearen gizon egitea.
2. Andra Maria'k lengusifia ikustea.
3. Jaungoiko Semearen yayotzea.
4. Andra Maria eleizan sartzea.
5. Ume Jesus galdu ta eleizan aurkitzea.

**Ama eskartsu ta errukiorra, geure areriokandik zaindu — ta eriotzaldian artu gaizuz. Olantxe.**

### NEKEZKO EZKUTUKIAK (Misterioak)

(Martisen, Barikuetan)

1. Jaunaren Getsemani'ko otoitza.
2. Jauna zigor gogorrez urratua.
3. Jesus'en arantzazko koroya (burestuna).
4. Jauna gurutzeagaz Kalbario'ra bidean.
5. Jesus'en gurutzeko eriotza.

### AINTZAKO EZKUTUKIAK (Misterioak)

(Eguasten, Sapatu, Domeketan)

(Eguasten, Larunbata, Igandetan)

1. Jaungoiko Semearen berbizkundera.
2. Jaunaren zerura igokundera.
3. Espiritu Santuaren etorrera.
4. Andra Maria'ren zerura yasokundera.
5. Andra Maria'ren zeruko aintza.

### ARRENTZA - KIRIELEISONAK

Jauna, erruki zakiguz.  
**Jauna, erruki zakiguz.**  
Kristo, erruki zakiguz.  
**Kristo, erruki zakiguz.**  
Jauna, erruki zakiguz.  
**Jauna, erruki zakiguz.**



Kristo, entzun gagizuz.

**Kristo, entzun gagizuz.**

Kristo, arren entzun gagizuz.

**Kristo, arren entzun gagizuz.**

Zeruko Aita Jaungoikoa.

**Erruki zakiguz.**

Gizonen erosle, Seme Jaungoikoa.

**Erruki zakiguz.**

Espiritu Santu Jaungoikoa.

**Erruki zakiguz.**

Irutasun Deun, Jaungoiko bakarra.

**Erruki zakiguz.**

Maria Donea

Jaungoikoaren Ama Deuna,

Birjiñen Birjiña Deuna,

Kristoren Ama,

Jaungoiko eskarren Ama,

Amarik garbiena,

Ama errugabea,

Ama kutsugabea,

Ama orbangabea,

Ama sortzez garbia,

Ama maitagarria

Ama miragarria,

Aolku oneko Ama,

Egillearen Ama,

Otoi gure alde

Eroslearen Ama,

Birjiñarik zurrena,

Birjiña agurgarria,

Birjiña goragarria,

Birjiña altsua,

Birjiña errukiorra,

Birjiña zintzoa,

Zuzentasun ispillua,

Yakituriaren Yarlekua,

Gure pozaren etorburua,

Gogozko ontzia,

Ontzi omengarria,

Eraspenez ezagungarria,

Larrosa miragarria,

Dabid'en torrea,

Urrezko etxea,

Alkartasun kutxa,

Zeruko atea,

Goizeko izarra,

Gaixoen osasuna,

Pekatarien igeslekua,

Atsekabetuen pozgillea,

Kristañauen laguntza,

Aingeruen Erregiña,

Erri gurasoen Erregiña,

Igarleen Erregiña,

Otoi gure alde

Bidalien Erregiña,  
 Martirien Erregiña,  
 Autorleen Erregiña,  
 Birjiñen Erregiña,  
 Deun guztien Erregiña,  
 Yatorrizko erru barik sorturiko Erregiña,  
 Zerura yasoriko Erregiña,  
 Agurtza guztiz deunaren Erregiña,  
 Bakearen Erregiña,

Otoi gure alde

Munduko obenak kentzen dozuzan Jaungoiko  
 Bildotsa.

**Parkatu eiguzu, Jauna.**

Munduko obenak kentzen dozuzan Jaungoiko  
 Bildotsa.

**Entzun gagizuz, Jauna.**

Munduko obenak kentzen dozuzan Jaungoiko  
 Bildotsa.

**Erruki zakiguz.**

Otoi egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done  
 orrek.

**Jesukristo'ren agintzariak yadetsi daikeguzan.**

**Otoitza**

Zure menpekoai, Gorputz eta arimako osasuna,  
 une guztietan emoiguzu, arren Jaungoiko Jauna.  
 Eta Andra Maria, beti garbi, doatsuaren bitartez,  
 oraingo bitzta illunetik urtenik, betiko pozetara  
 eroan gaizuz. Jesukristo gure jaunaren izenean.  
 Olantxe.

## ARRENTZAK (Latiñez)

Kyrie eleison  
 Kriste eleison  
 Kyrie eleison.  
 Kriste audi nos,  
 Kriste exaudi nos.  
 Pater de zelis Deus, **miserere nobis.**  
 Fili redemptor mundi Deus, **miserere nobis.**  
 Spiritu Sancte Deus, **miserere nobis.**  
 Sancta Trinitas Unus Deus, **miserere nobis.**

Sancta Maria  
 Sancta Dei genitrix  
 Sancta Virgo Virginum  
 Mater Kristi  
 Mater Divine grazie  
 Mater Purissima  
 Mater castissima  
 Mater inviolata  
 Mater intemerata  
 Mater immaculata  
 Mater amabilis  
 Mater admirabilis  
 Mater boni consilii  
 Mater Creatoris  
 Mater Salvatoris  
 Virgo prudentissima  
 Virgo veneranda  
 Virgo predicanda  
 Virgo potens  
 Virgo clemens  
 Virgo fidelis  
 Speculum iustizie

Ora pro nobis

Sedes sapienzie  
 Causa nostre letizie  
 Vas spirituale  
 Vas honorabile  
 Vas insigne devozionis  
 Rosa mistica  
 Turris davidica  
 Turris eburnea  
 Domus aurea  
 Federis arca  
 Yanua zeli  
 Stela matutina  
 Salus infirmorum  
 Refugium peccatorum  
 Consolatrix afflictorum  
 Auxilium kristianorum  
 Regina angelorum  
 Regina patriarcarum  
 Regina profetarum  
 Regina apostolorum  
 Regina martirum  
 Regina confesorum



Regina virginum  
Regina sanctorum omnium  
Regina sine labe originali concepta  
Regina in zelum asumpta  
Regina sacratissimi rosarii  
Regina pacis.

Agnus Dei, qui tolis peccata mundi.

**Parce nobis, Domine.**

Agnus Dei, qui tolis peccata mundi.

**Exaudi nos, Domine.**

Agnus Dei, qui tolis peccata mundi.

**Miserere nobis.**

Ora pro nobis Sancta Dei Genitrix.

**Ut digni eficiamur promissionibus Kristi.**

#### Oremus

Graziam tuam, quesumus Domine, mentibus nostris infunde, ut qui Angelo nunziante, Kristi Filii tui incarnationem cognovimus, per passionem eyus et crucem, ad Resurreccionis gloriam perducamur. Per eundem Kristum Dominum nostrum. Amen.

#### GURE JAUNA AGIRIAN IPINTEKO

Pange lingua gloriosi  
Corporis misterium,  
Sanguinisque preziosi  
Quem in mundi prezium  
Fructus ventri generosi  
Rex efudit genzium.

Goratu daigun biotzez  
Jesus Eukaristia,  
Gorputz ta Odol Santua  
Golgota'n ixuria.  
Maria'gandik yayo da  
Gizonen Eroslea.

**Tantum ergo Sakramentum  
Veneremur cernui:  
Et antikum Documentum  
Novo cedat ritui:  
Prestet fides supplementum  
Sensuum defectui.**

**Genitori, genitoque  
Laus et yubilazio,  
Salus, honor, virtus quoque  
Sit et benediczio,  
Procedenti ab utroque  
Comparsit laudazio.**

**Amen.**

Panem de zelo prestitisti  
eis.

**Omnem delectamentum  
In se habentem.**

#### Oremus

Deus, qui nobis sub sacramento mirabili, passionis tue memoriam reliquisti, tribue quesumus, ita nos Corporis et Sanginis tui sacra Misteria venerari, ut redemzionis tue fructus in nobis yugiter senziamus, qui vivis et regnas in secula seculorum.

**Amen.**

Sakramentu ain andia  
Gurtu dagigun auzpez.  
Eukaristi Deuna dogu  
Lengo manaren ordez.  
Begiz ez ikusi baña,  
Bai guk siñistu fedez.

Aitari ta Semeari  
Aitza ta gorapena,  
Txalo ta indar guztia  
Baita be osasuna.

Espiritu Santuari

Bardin bedeinkapena.

Olantxe.

Zeruko ogia yaten emon  
daukuzu.

**Gozotasun guztia daukan  
Ogi Deuna.**

#### Otoitza

Sakramentu arrigarri onetan, Zure gurutzeko oñazen gorantzia itxi daukuzun, Jaungoiko Jauna. Arren, emöiguzu, Zure Gorputz ta Odolaren ezkutuki Doneak biotzez gurtutea, Zure gurutzeko irabazien bidez, gure arimak geroago ta geyago aberastu daitezán.

**Olantxe.**

## BIRAUEN ORDEZKO GORAPENAK

Bedeinkatua izan bedi Jaungoikoa.  
Bedeinkatua bere izen santua.  
Bedeinkatua Jesukristo, egiazko Jaungoiko ta  
egiazko gizona.  
Bedeinkatua Jesus'en izena.  
Bedeinkatua bere Biotz Jaungoikozkoa.  
Bedeinkatua Altarako Sakramentu guttiz Deuna.  
Bedeinkatu Jaungoikoaren Ama goragarri, Ma-  
ria guttiz Donea.  
Bedeinkatua bere Sortze deuna ta garbia.  
Bedeinkatua bere yasokunde aintzatsua.  
Bedeinkatua Ama Birjiña, Maria'ren izena.  
Bedeinkatua Jose Doatsua, Maria'ren senar guz-  
tiz garbia.  
Bedeinkatua Jaungoikoa, bere aingeru ta san-  
tuetan.

## AGURTZA ABESTIZ

### Eskintza

Jesus onaren Ama maitea  
Grazia dautzut eskatzen  
Bost ezkutuki Zure omenez  
Lagun idazu eskintzen.

Gogo beroaz esango dogu.  
Agurtza guttiz santua.  
Zuzendu gaizuz danok zerura.  
Ama on errukitsua.

## AGURTZA ABESTIZ

### POZEZKO EZKUTUKIAK.

1. Aingeru batek ekarri dautzu  
Egaz zerutik barria:  
Zugan aragiz yantziko dala  
Jaungoikoaren Semea.  
  
**Agur Marien Amarrekoa**  
**Aita Gureaz batean,**  
**Ama ederren, maite, onari**  
**Eskintzen asi gaitzean.**
2. Jesus'en Ama mendira doa  
Lengusiña ikustera,  
Joan Batistea yayo baño len  
Goiko graziz betetzera. **Agur Marien...**
3. Estalpe baten yayo da Jesus,  
Ama garbia itxirik:  
Gurtu dagigun Jesus Umea,  
Aingeruakin baturik. **Agur Marien...**
4. Bere Semea eskintzen dago  
Jerusalem'go eleizan.  
Artu gagizuz, Ama maitea,  
Seme-alaben artean. **Agur Marien...**
5. Negarrez dabiz Mari ta Jose  
Aurkitu arte Semea;  
Damu negarrez billatu daigun  
Jaungoikoaren grazia. **Agur Marien...**



## NEKEZKO EZKUTURIAK

1. Jetsemani'ko atsekabetan  
Lurrean Jesus yausirik  
Otoika dago odol izerdiz  
Biotza illun larririk.  
  
**Agur Marien Amarrekoa  
Aita gurez batean,  
Ama ederren maite onari  
Eskintzen asi gaitzan.**
2. Zigor gogorrez errubakoa  
Dago Jesus urraturik.  
Ze gatx aundia dan pekatua  
Ikasi daigun emendik. **Agur Marien...**
3. Arantza zorrotz koroyak dauko  
Miñez Jesus'en burua  
Parkatu, Jauna, buru loyagaz  
Egin dogun pekatua. **Agur Marien...**
4. Gurutz aztuna leporaturik  
Lapur gaiztoen erdian,  
Ba-doa Jesus neke miñetan  
Ba-doa Jesus neke moiñetan  
Kalbario'ko bidean. **Agur Marien...**
5. Untzez yosirik gurutze baten  
Emon dau odol guztia.  
Gu zerurako erostearren  
Il da gure Jaun maitea. **Agur Marien...**

## AINTZAZKO ESKUTUKIAK

1. Illen artetik biztu da Jesus,  
Eguzki eder egifiñik:  
Grazi ederrez biztu gaitzan  
Pekatu eriotzatik.  
  
**Agur Marien Amarrekoa  
Aita gurez batean,  
Ama ederren maite onari  
Eskintzen asi gaitzan.**
2. Zeruetara igon da Jesus,  
Bere aintza ta indarrez:  
Igon dagigun guk be zerura  
Egite onaren bidez. **Agur Marien...**
3. Pentekostetan Gogo Santua  
Dator sugarren antzean,  
Gure biotzak berotuteko  
Jaunaren maitasunean. **Agur Marien...**
4. Zerura doa, Ama laztana,  
Semearen besoetan,  
Millaka aingeruz inguraturik  
Sartu da goiko pozetan. **Agur Marien...**
5. Zeruan dago Andra Maria,  
Jaungoikoaren ondoan,  
Koroi ederrez Erregiña da  
Santu guztien gañean. **Agur Marien...**

## AGURTZA (Abestiz II)

### POZEZKOAK

1. Aingeruak diñotso:  
Graziaz betea,  
Jaungoikoaren Ama  
Zara zu Maria.
2. Isabel lengusifia  
Doa ikustera  
San Juan aren semea  
Graziz betetzera.
3. Jainkoaren Semea  
Yayo da Belen'en  
Aingeruak ta artzañak  
Doaz bera agurtzen.
4. Eleizan egitean  
Lege garbikuntza,  
Biotzean sartu yako  
Ezpata zorrotza.
5. Negarrez gurasoak  
Semea galtzean.  
Baita pozez aurkitu  
Yakitun artean.

### AINTZAZKOAK

1. Biztu dalako Jesus  
Aintzaz apaindurik  
Zeru ta lurrak dagoz  
Pozez alaiturik.
2. Zerura igon yaku  
Jesus Eroslea  
Guri erakusteko  
Zeruko bidea.
3. Espiritu Santua  
Yatsi da lurrera

### NEKEZKOAK

1. Jetsemani baratzen  
Aitari otoika,  
Odol izerdi otza  
Dario tantaka.
2. Ara Jesus maitea  
Loturik abean,  
Zigorren urratua  
Lapurren antzean.
3. Arantzazko koroya  
Yosirik buruan,  
Birauka ta barreak  
Dabiz inguruan.
4. Gugaitik gurutzea  
Sorbaldan arturik  
Kalbario mendira  
Doa nekaturik.
5. Gurutzean yosita,  
Odoldurik dana,  
Atsekabe ta miñez  
Il da gure Jauna.

## GURUTZ - BIDEA

### ESKINTZA (Itz neurtuetan)

Ba-nator Jesus gozoa. — Gurutze-bide onetan,  
Atsekabez gomutetan — Zure Nekaldi Santua.  
Zure minak ikusirik — Damu dot, Jauna, biotzez,  
Emen naukazu negarrez — Neure pekatuagaitik.  
Gurutz oñean zengozan, — Ama neke larritua,  
Zure Seme zauritua, — Yosi nire biotzean.

### ESKINTZA (Itz lauz)

Jesus nire Jaun maite ori, nigaitik bizitza emo-  
tera zoaz, Kalbario mendira. Nire maitasunarren  
bakarrik eriotzara zoaz.

Nire gurutzea artu ta zuri yarraituteko diños-  
tazu. Bai, gurutz bide onetan, zure neke miñetan,  
lagundu gura dautzut.

Ama atsekabetua, nekez betea, Semearen atzetik  
yoan ziñan negarrez, gurutz-bide onetan. Zugaz ba-  
tera Kalbario mendira, yarraitu gura dautsat, zure  
Semeari. Lagundu egidazu, Ama maitea, gurutz-bide  
au ondo egiten.

### EGOTALDI BAKOTXEAN esan daiteke

**Danak:** Agurtzen zaitugu, Kristo,  
Baita onetsi biotzez.

**Batek:** Gurutz santuaren bidez  
erosi ginduzulako.

(Parkamena osoa, Gurutz-bide guztia egiten dozunian,  
biotza damaturik.

Bigarren parkamen osoa: egun orretan jaunartu  
ba'dozu.

Amar urtekoak egotaldi bakotxean, ezin izan ba'dozu  
amaitu).



†

**LENENGO EGOTALDIA**

Jesus iltea erabagi dau Pilato'k.

**Pilatok agindu dau  
Lapurren artean  
Untez gogor yosteko  
Jesus gurutzean.**

Jesus Pilato'n aurrean — Aragiak zauriturik,  
Epaia dago entzunik: — Il daitela gurutzean.  
Esan daigun samindurik:—Guk dogu, Jauna, errua,  
Damu dogu pekatua, — Zu ilteko ikusirik.

Burruka gogorra dauka munduak, Kristoren kalte-  
tez. Pilato'k Jesus'en aurka. Pilato'k Jesus eriotzara  
daroa; baita munduak Jesus'en lagunak be. Guk  
barriz, bion lagun izan gura dogu. Zati bat Jaun-  
goikoarentzat, ta beste apur bat munduko zorake-  
rientzat. Alperrik gabiz Jaungoikoa ta deabrua al-  
kartu gurarik. Edo mundua bere ustelkeriekaz edo  
Jesus. Eztago besterik. Ezin nagusi bien lagun izan.

Orain arte ze alderditan egon naz? Parkatu,  
Jauna. Zu bakarrik izango zara nire nagusi, Zu  
bakarrik nire yabe.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

**BIGARREN EGOTALDIA**

Jesus Kalbario mendira gurutzeakin.

**Sorbaldan gurutzea  
Gogorra ta aztuna  
Eriotzara doa  
Jesus Gure Jauna.**

Guganako maitasunaz — Doa Jesus aldaz gora,  
Kalbario tontorrera, — Sorbaldan gurutzeagaz.  
Goazen gu bere atzean — Gure gurutzak arturik.  
Ezta zerura biderik — Lora ta atsegin artean.

Nekez daroa gurutze aztuna. Bai ba: Gurutze  
gañean nire pekatuak doaz. Ta ze aztunak diran!!!  
Orregaitik eriotzara doa. Bere odolagaz nire obenak  
garbitzeko. Neurea da erru guztia. Nik pekatu egin,  
ta Jesus eriotzara!!! Nik pekatu ta berak ordain-  
du!!! Ni, gaizto au bizirik, ta errubakoa il bear!!!  
Maitasuna bear da benetan, besteen ordeztu bizitza  
emoteko.

Ekatzu Jauna, zure gurutzearen zati txiki bat,  
nire ainbeste pekatugaitik, penitentzi apur bat egin  
dagidan.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

## IRUGARREN EGOTALDIA

Jesus lenengoz yausten da.

**Lur gañera yausi da  
Jesus nekaturik,  
Yagiten laguntzeko  
Ez da errukirik.**

Arnasa neke larrian — Zañak odol utzituri  
Dago Jesus zapaldurik — Gurutze aztun azpian.  
Gurutza baño aztunago — Nire pekatuak dira,  
Nik bota zaitut lurrera, — Jauna, damaturik nago.

Nire pekatuak, ez gurutz aztunak, Jesus lurre-  
ratu dabe. Bere gañean daroaz nire gaiztakeri, zi-  
kinkeri, eta egite txar guztiak. Txikitatik asita, orain  
arte egin dodazan gaiztakeri guztiak.

Ene Jaungoikoa! Zeinbat ete dira! Ezin esan  
beste. Ta ze aztun, lotsagarriak. Emen danen  
aurrean agertuko ba'litzakez, lotsaz ilgo nintzake.

Jauna, nik pekatu ta Zu lurrean! Errubakoa  
eriotzara ta erruduna bizirik!

Jauna, damaturik nago, parkatu nire pekatuak.  
Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

## LAUGARREN EGOTALDIA

Jesus'ek bidean Ama ikusten dau.

**Agertzen yako Ama  
Negarrez bidean,  
Ai, ze samintasuna  
Bien biotzean.**

Bidean Ama negarrez — Aurkitu dau gure Jaunak;  
Yosirik bien biotzak — Dagoz ezpata zorrotzez.  
Ama, gugana biurtu — Zure begi maitetsuak  
Ez gaizan betiko suak — Zoritxarreen ondatu.

Zazpi ezpata daukaz Maria'k biotzean. Ezpata  
zorrotzak, neuk Amaren biotzean yosiak. Neuk ne-  
gar eragin dautsat zeruko Amari. Baita beste lurre-  
ko askori be. Jesus'en Ama negarrez dago. Nigaitik  
negarrez. Lurreko gurasoak nigaitik negarrez dau-  
kadaz. Nigaitik: nire arrokeriagaitik, nire miñ zo-  
rrotz onegaitik, nire erantzun lotsabakoakaitik. Ez  
dot gura niri ezer aginterik, ez ezer esaterik, ez dot  
gura iñor nire gañetik.

Baita negarrez ikusten dodaz, ainbeste pobre ta  
beartsu, ta niri zer? Negarrez ainbeste gexo ta alar-  
gun, ainbeste umezurtz. Ta niri zer? Biotza gogorra  
daukat benetan nik. Ama laztana, biotz au bigundu  
egidazu.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...



†

## BOSKARREN EGOTALDIA

Simon Zirenek lagunduten dautso.

**Simon zirenetarra**  
**Da Jesus'en lagun**  
**Gurutza erroaten**  
**Ikasi dagigun.**

Makalik Jesus gaxoa, — Bidean ilgo litzake;  
Laguntzat Simon Zirene — Kalbario'ra daroa.  
Zatozkigu, Jauna, lagun, — Gure miñak biguntzeko;  
Zuk be gurutz-biderako — lagun bat aurkitu zendun.

Simon Zirenek Jesus'i lagunduten dautso. Nik ez. Ez dot gura. Jesus'ek eroan dagiala. Ni olan-goxea naz: gauza txarrak bestentzat. Jesus'ek iñoren gurutzea daroa, ta ze aztuna. Nik neurea be, txikia izan arren, ez dot gura. Ni beti ondo, beti pozik, beti atsegiñetan; Jesus atsekabetan, neke-miñetan, nigaitik lepoan gurutzeagaz. Jesus'ek neke apur bat, gurutze zati txiki bat, emoten ba'daust, laster nabil bere kontra berbetan. Lotsagarria!!! Emoidazu, Jauna, eroapen pazientzi apur bat, neure pekatuakaitik irabazi dodan gurutzea, maitasunez eroateko.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

## SEIGARREN EGOTALDIA

Beronika'k arpegia garbituten dautso.

**Pekataria non da**  
**Zure errukia**  
**Jesus'i garbitzeko**  
**Damuz arpegia?**

Beronika'k arpegia — Garbitu dautso Jaunari  
Ta zapi zurian itxi — Jesus'ek bere irudia.  
Irudi ori ba'neunko — Jauna, beti biotzean,  
Nire bizitza guztian — Zu geyago maitatzeko.

Lotsorra ni. Bildur naz besten aurrean, Jesus'en lagun agertuten. Beronika ezta olangoa, emakumea izan arren, Jesus'engana urreratu, ta arpegia garbitu dautso. Zeinbat bider lotsatu naz ni, Kristo'ren yarraitzalle agertuten!!! Entzun zer diñotzun Jesus'ek: Nigaz iñor lotsatuten ba'da, ni be beragaz lotsatuko naz, neure Aitaren aurrean. Begira, Jesus'ek Beronikari emondako zaria: Zapi zurian itxi dautso arpegiaren irudia. Lotsea itxita, goazen Jesus'en atzetik.

Emoidazu, Jesus, zure antzeko izatea.  
Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

## ZAZPIGARREN EGOTALDIA

Jesus bigarren aldiz yausten da.

**Gizonen pekatuen  
Aztunaren andiz,  
Lurra yo dau Jesus'ek  
Guruzpean barriz.**

Indarrak guztiz galdurik — Yausi da barriz lurrera.  
Pekataria begira — Jesus ezin zutundurik.  
Zu lurrean ikusirik — Damutu nadin biotzez.  
Emen naukazu negarrez: Ez geyago pekaturik.

Jesus gurutze azpian, Jesus ostikopean, Jesus ostera be danen azpian. Ta zelango zigorkadak yaurtiten dautsoez Jesus'eri, lurretik yaso daiten!!! Jesus lurrean dago, nire arrokeriak kentzeko. Jesus zapalduta, nik munduko zorakeriak zapaldu dagidazan; Jesus ostikopean, Nik munduko arrokeri ta andi nayak, oinperatu dagidazan. Jesus apal lurrean, ta ni arro danen gañean? Jesus borraruen oñetan, ta ni munduko arrokerietan? Ezta au, Jesus'ek irakatsia.

Emoidazu, Jauna, munduko zorakeri ta arrokeriak zapaltzea; emoidazu, Jauna, esanekoa izatea.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

## ZORTZIGARREN EGOTALDIA

**Jerusalen alabak  
Ez niri negarrik,  
Negar egidazue  
Pekatuagaitik.**

Ez niri, diño, negarrik — Jerusalem'go alabak,  
Zuokaitik bai garratzak — Ta zuen semeakaitik.  
Negar egin lur onetan — Ta pekatua gorroto,  
Nai ba'dogu gerorako — Toki on bat zeruetan.

Ez nigaitik negarrik, Jesus'ek diñotse, Jerusalem'go alabai: "Zuokaitik bai negar egin, ta zuen semeakaitik". Bai, guk be, negartxo bat egiten dogu, Jesus miñetan ikusirik; baña lastertxo lengora goaz. Lengo gaiztakerietara, lengo pekatuko bidera. Goizean negar eta arratsaldean barre zoro. Goizean damutu, eta arratsaldean pekatu. Goizean Meza Santua, eta arratsaldean jolas gaiztua.

Ze gitxi diran Jesus'en benetako lagunak. Goizetik gaberañokoak, bizitza guztikoak. Gaztetan eta zartzaroon.

Indarra emoidazu, Jauna, beti zure lagun zintzoa izateko.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...



†

**BEDERATSIGARREN EGOTALDIA**

Irugarren aldiz yausten da lurrera.

**Ainbeste neke-miñez  
Makaldurik Jauna,  
Iru alditan auzpez  
Yausi da lurrera.**

Gure Jaun errubakoa — Gurutz azpian da yausi,  
Baña bertatik da yagi — Ta Kalbario'ra doa.  
Zeinbat aldiz ni yausi naz — Pekatuzko lokatzetan;  
Yagi naiten bat-batian, — Ta garbitu damuagaz.

Irugarren aldiz yausi da, baña iru bider zutundu niri erakusteko, zelan azkeneraño yarraitu.

Kalbario bidea luzea da. Ni be aspertuko naz. Beti eleizan, beti otoitz egin bear, beti erreguka. Bai, luze egiten da, gogaitgarri yat. Munduakin pozago biziten da, baña azkenean galdumendia. Kalbario'tik bakarrik goaz zerura. Ezta beste biderik, gurutzeko bidea baño. Betiko bizitza nekez irabazten da. Zure arimea salbau nai ba'dozu, gurutzea bear-bearrezkoa yatzu.

Nire arima zeruratzea, emoidazu, Jauna.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

**AMARGARREN EGOTALDIA**

Jesus danen aurrean billozik.

**Indarka borraruak  
Yantziak kendurik,  
Danen aurrean dago  
Gutziz lotsaturik.**

Zauri barriak egiñik — Yantsiak indar gogorrez,  
Jesus'eri kendu dautsez — Danen aurrean billozik.  
Billozik Zu zagoz lotzaz — Eta nik ain lotza gitxi:  
Bide txarra nai dot itxi. — Jauna, errukitu nitzaz.

Jesus soñeko barik billozik: Ezertxo be ez da-roa gurutzera. Gorputza pobre billozik, baña arimea egite onez aberasturik.

Zegaitik guk orrenbeste urre-gose? Zetarako ainbeste diru egarri? Billozik yayo giñan, ta billozik lurperatuko gaitue. Eriotz orduan dana itxi bear: edertasuna, dirua, agintza, dana. Eriotz zitalak dana ostuko dausku. Zeruko aberastasanak irabazi daiguzan, Jesus'en antzera, bizi geran artean. Eriotzako orduan poztu gaitzean.

Gurutzeko Jesus; eriotz on bat emoidazu.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

### AMAIKAGARREN EGOTALDIA

Jesus gurutzean yosten dabe.

**Gurutzan yosi dabe,  
Zañak urraturik,  
Azurrak azkatuaz  
Euren giltzetatik.**

Esku Oñak zulaturik — Yosten dabe gurutzean,  
Mallukada gogorrean — Untze zorrotzak sarturik.  
Gurutzetik begiratu — Zure begi samurrekaz,  
Ta maitasun untiakaz — Nire biotz au zulatu.

Ze untze gogorrak! Bai mallukada aztunak!  
Neure gaiztakeriak dira, Jesus gurutzean yosi da-  
benak. Ez iñori errurik. Neu naz borrerua. Neu,  
lotsabako au, nire atsegin zatarrakaz, nire barre ta  
jolas zoroakaz, nire arrokeri ta biotz gogorragaz.

Nire esku zikiñ oneik, Jesus'en Gorputz San-  
tuan esarri dodaz. Nire aragikeriak, Jesus'en Gor-  
putz garbia zikindu dabe. Nire lotsabakokeriak,  
bere esku ta oñak zulatu. Jaungoiko baten odol  
beroa, bearrezkoa zan, nire pekatuak parkatzeko.  
Ain baltzak eta zikiñiak dira. Garbitu, Jauna, nire  
pekatuak, zure gurutzeko odol eder orregaz.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

### AMABIGARREN EGOTALDIA

Jesus il da gurutzean yosita.

**Gurutzean yosita,  
Miñez aseturik  
Il da Jesus maitea,  
Gure onagaitik.**

Ilundu da eguzkia — Ikaratu zero lurra,  
Ta aingeruetan negarra — Il dalako Jaun andia.  
Zurekin il naitela ni — Gurutzean maitasunez  
Zuk, ba, Jesus, nire ordez, — Odola dozu ixuri.

Bai, Jesus il da. Jaungoikoa gure ordez il da.  
Dana emon dausku. Nere bizitza, bere odola, bere  
gorputza eta azken arnasa.

Baita bere Biotza ta parkamena be. Zer egin  
eikean geyago? Gauza aunditzat ez daukat, ostera  
be pekatura noa-ta.

Pekatu bakotxagaz gurutzean yosten zaitut. Arria  
baño gogorra goa nire biotza. Zu nire onagaitik gu-  
rutzean il, ta nik ostera be Zu, gurutzean yosi.

"Egarri naz" diño Jesus'ek. Bai nire biotzaren  
egarri. Zuk, Jesus, eriotzaraño maite izan nozu, ta  
nik Zu ain gitxi maitatu.

Jesus'en Biotz maitetsu orrek, nire biotza zure  
maitasunean kiskaldu egizu.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...



†

### AMAIRUGARREN EGOTALDIA

Semearen gorpua Amak altzoan.

**Semearen gorputza  
Yatsi Dabenian  
Ai! ze ezpata zorrotza  
Amak biotzean.**

Otzik Jesus'en gorpua — Amak dauko besoetan.  
Ta diñotso negarretan: — Nok il zaitu, semetxoa?  
Ama, ez iñon billatu — Emen dozu gaizkillea,  
Neuk il dot zure semea — Baña ondo yat damutu.

---

Maria'k bere semearen gorpu illa, besoetan dauka. Illotzik dauka. Bere semetxo maiteari begira, negarrez dago Ama. Ixillik negarrez. Il bear dau tamalez. Orixe da nik neure pekatuakin egin dodana: Jaungoikoa il, ta bere Amari zazpi ezpata biotzean yosi. Ara, buruan arantza koroi zorrotza, esku oñak zulaturik, gorpu guztia urratuta. Amari semea kendu, ta gurutzean yosi dautsat. Bai, txarrerako lenengo naz. Zuk emon zeustan, Ama, semea bizirik, Nik biurtu dautzut, gurutzean illik.

Erregutu Ama, gu pekatarioen alde, orain eta eriotzako orduan.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

†

### AMALAU GARREN EGOTALDIA

Jesus'en gorpua lurperatu dabe.

**Lurpera dabenian  
Jaunaren gorputza;  
Itxaso samiña da  
Amaren Biotza.**

Arri zulo illunean, — Lurperatu dabe, Jauna,  
Epaituko gaituena, — Munduaren azkenian.  
Jauna, zure eskumaldean — Egotea emoiguzu,  
Eta gero zoriontsu, — Zugaz betiko zeruan.

---

Jesus lurperatu dabe. Baña lur aztun orj, Jesus'entzat ariña da. Lastertxo biztuko da, eguzki egiñik, aintzaz eta pozez irugarren egunean.

Jesus'en biztuera, nire bizkundera da. Kalbario mendia, ez da gurutzean amaituten, zeru ederrean baño. Kalbarica ez da gaba illuna, eguzkia argia baño. Orain Jesus'en zauri bakotxa, izar eder bat da. Zeinbat eta lur onetan neke geyago, gero zeruetan poz atsegin andiago: Jesus'en antzeko izan gaitzean, berakin batera egoteko zeruetan.

Erdu Jauna, ta eroan gagizuz, Zu zagozan zeru ederrera. Erdu Jauna, lenbait len. Olantxe.

Aita gurea... Agur Maria... Aintza...

# GURUTZ - BIDEA (Abestua I)

## ESKINTZA

Jesukristori kendu ezkero  
Pekatuakaz bizitza,  
Damuz ez ba'dot negar egiten  
Arrizkoa dot biotza.  
Guztiok lagun abestu daigun  
Gurutzeko eriotza.

## EGOTALDIAK

1

Pilato'k Jesus  
Errubakoa  
Erabagi dau iltzea:  
Untze zorrotzez  
Lotsa gogorrez,  
Gurutze baten jostea.  
Gurutz orretan,  
Neke miñetan,  
Nik bear neunke egotea.

2

Gurutz aztuna  
Lepoan dauko,  
Koroi zorrotza buruan;  
Gugaitik Jesus  
Iltzera doa  
Lapur gaiztoen erdian.  
Goazen mindurik  
Bere atzetik  
Kalbario'ko bidean.

3

Yausi da Jesus  
Gutziz altsua  
Gurutzearen azpian.  
Gizon guztien  
Gaiztakeriak  
Daroaz bere gañean.  
Gure obenak  
Bai dira aztunak:  
Ara Jaun ona lurrean.

4

Seme gaxoak  
Ama aurkitu dau  
Gurutz-bidean negarrez.  
Bien biotzak  
Yosirik dagoz  
Ezpata bakar zorrotzez.  
Ama maitea,  
Nekez betea.  
Nik bete zaitut samañez.

5

Simon Zirenek  
Errukiturik  
Gurutzea arindu dautsa.  
Jesus'en lagun  
Danen aurrean  
Agertzeko ez da lotsa.  
Jesus'en lagun  
Eroan daigun  
Gure miñezko gurutza.

6

Zapi zuriaz  
Garbitu dautso  
Beronika'k izerdia.  
Jesus'ek ordeztu  
An itxi dautso  
Arpegiren irudia.  
Nire ariman  
Damuz betean  
Bego Jaunaren grazia.

7

Gurutz azpian  
Yausi da barriz,  
Odol iturri dario;  
Judu gaiztoak  
Amurruz yoten  
Lurretik yagi arteño.  
Jesus gaxoa,  
Neu naz gaiztoa:  
Ez pekaturik geyago.

8

Ez niri negar,  
Diño Jesus'ek,  
Jerusalem'go alabak;  
Laster datoz bai,  
Erri onentzat  
Bildugarrizko zigorrak.  
Aldendu eizuz  
Gugandik, Jesus,  
Beti inpernuko sugarrak.

9

Irugarrenez  
Yausi da Jesus,  
Eta iru aldiz goratu;  
Yausi ta yagi  
Gurutzeraño,  
Nai dau Jesus'ek yarraitu.  
Yausi ba'gara,  
Goazen aurrera,  
Jesus'ek dausku parkatu.

10

Yantsiak dautsez  
Indarka kendu,  
Aragiak urruturik;  
Lotsaz beterik  
Daukagu Jesus  
Danen aurrean billozik.  
Lotsa gitxiko  
Garealako  
Dago Jesus lotsaturik.



11

Untze zorrotzez  
Zulatu dabe,  
Esku ta oñak yosirik;  
Gorputz Santua  
Zauriz betea  
Gurutzean urkaturik.  
Zelango miñak  
Esan eziñak  
Daroaz Jaunak gugaitik.

12

Zeru ta lurrak  
Arritu dira,  
Eguzkia be lotsatu;  
Jaungoikoaren  
Eriotzean  
Atxarriak be urratu.  
Ez dot biotzik:  
Zu il nigaitik  
Ta zu ain gitxi maitatu.

### GURUTZ-BIDEA (III)

1

Epaituta dago  
Jesus maitea  
Gurutzean ilteko  
O ze nekea.

13

Maria'k dauko  
Semea altzoan;  
Negarrez ezin da asetu:  
Amak diñotso:  
Ene Semea,  
Zein gizon gaiztok il zaitu?  
Ama maitea,  
Nekez betea,  
Neuk il dot baña parkatu.

14

Gorpu Santua  
Lurpetu dabe  
Arri-zulo illunean.  
Maria dago  
Ezin pozturik  
Negarrez bakartadean.  
Ama zurekin  
Samindu nadin  
Gero sartzeko zeruan.

2

Orain artzen ditu  
Gurutze batian  
Gure Pekatuak  
Bere gañian.

3

O zein aztuna dan  
Nire obena:  
Begira lurrean  
Jesus laztana.

4

Nok asmatu leike  
Amaren nekea,  
Miñetan ikusirik  
Bere Semea?

5

Gurutza eroaten  
Lagun gurozu?  
Ba emen gura dabe  
Lagun bat artu.

6

Zapi zuri baten  
Iru itzulitan  
Kristo'n arpegia  
Gelditu izan zan

7

Bigarrenez Jesus  
Emen yausi da,  
Gorrotau dagidan  
Neure obena.

8

Pekatuakaitik  
Negar egizu,  
Bada bestek eztau  
Jesus nekatu.

9

O pekatuaren  
Aztuntasuna.  
Jo eragin dautso  
Iru aldiz lurra.

10

Ona non daukazun  
Jesus billozik  
Burutik biatzera  
Zauriz beterik.

11

Oñak ta eskuak  
Untzez josirik  
Emen dago Jesus  
Miñez beterik.

12

Emen Jesus il zan  
Gizonen ordez.  
Beragaz zu beti  
Gomutau zaitze.

13

Amaren altzoan  
Jesus dago illik  
Eztago ikusteko  
Emen biotzik.

14

Toki bat gura dau  
Jesus'ek zugan;  
Beragaz zu beti  
Bizi zaitzezan.

## JOSE DOATSUARI

### ZAZPI ATSEKABE ATSEGIÑAK

#### Lenengo atsekabe atsegiña

Zure emazte garbia — aurkituta umedun  
Zelango larri miña — Jose artu zendun.  
Baita aingeruak gabaz — Bete atsegiñez,  
Yakiñik Ama zala — Goteunaren bidez.  
Lortu eiguzu, Jose, — Neke-poz onetan  
Beti garbi izatea — Gorputz arimetan.

#### Bigarren atsekabe atsegiña

Negu gorrian Jesus — Yayo da Belen'en,  
Otzak illik negarrez — Dago aska baten.  
Baña Jose Donea — Laster da pozetan,  
Aingeruak entzunda — Zeruan kantetan.  
Bizitz onetan, Jose, — Egidazu lagun,  
Gotzonakin zeruan — Abestu dagigun.

#### Irugarren atsekabe atsegiña

Neke miñetan dagoz — Yoseba ta Mari.  
Umeak erdaintetan — Odola ixuri,  
Jesus Salbatzailea — Yarririk izena,  
Zelango poz aundia — Aita ta Amarena.  
Neke poz orregaitik — Egiguzu, Jose,  
Jesus izan dedilla — Gure Salbatzalle.

### Laugarren atsekabe atsegiña

Eleizan egitean — Jesus'en eskintza,  
Simeon'ek igarri — Geroko gurutza.  
Baña zelango poza — Yakin zenduneko,  
Ume ori ilgo zala — Gu zeruratzeko.  
Neke poz onegaitik — Jose, guri emon  
Zeruan izatea — Betiko zorion.

### Boskarren atsekabe atsegiña

Erode'gandik iges — Zoaz Ejito'ra,  
Jaungoiko guzurrezko — Erri illunetara.  
Ainbat guzur tartean — Zeinbat poz atsegin,  
Egizko Jaungoikoa — Dozula zurekin.  
Itxita guzurrezko — Lurreko ondasunak,  
Emoiguzuz zeruko — Aberastasunak.

### Seigarren atsekabe atsegiña

Erodes il zanean — Ejito'tik zatoz,  
Belen yayoterrian — Biziteko asmoz.  
Arkelaio gaiztoa — An dalako Nausi,  
Nazaret'en baketsu — Gura dozu bizi.  
Arren, lortu eiguzu — Yoseba Donea,  
Gorrotoak itxita — Bakez bizitea.



### Zazpigarren atsekabe atsegiña

Yerusalem'en Jesus — Galdu zendunian  
Negarrez urtu ziñan — Iru egunian,  
Zelango atsegiña — Euki zendun gero,  
Yakitunen artean — Aurkitu ezkerok.  
Jesus galtzen ba'dogu — Oben aztunagaz,  
Laster aurkitu daigun — Maite damuagaz.

---

Jesus agertzen asi zanean, ogetamar urteko zan,  
Jose'ren Semea, uste zanez.  
Gure alde otoi egizu, Jose Doatsua.

### JESUKRISTO'REN AGINTZARIAK, YADETSI DAIKEGUZAN

#### Otoitza

Ene Jaungoikoa, Jose Doatsua zuk aukeratu  
dozu, zure amaren senartzat, ainbesteko arduraz;  
Arren emoiguzu, lurrean zaindari dogun lez, ze-  
ruan be bitarteko izan daigula. Amaibako egune-  
tan bizi eta agintzen dozun Errek. Olantxe.

### ANDRA MARIARI

#### Lore-illa

Zure aurrera gatoz, loretako Ama maitea orren-  
gana, gure b'otzeko lore txortakaz.

Zure magalpean artu gaizuz, zeruko Lore garbi  
orrek. Zuretzat gure arnas guztia, Zuretzat gure biotz  
taupada guztiak, Zuretzat gure gogorapen guztiak.

Zure antzekoak izan gura geunke. Zure maita-  
sunean il, Zugaz betiko zeruan zorion izateko.  
Olantxe.

Neure Ama maitea, errukiku zaitetz nitzaz, pe-  
katari onetzaz. Agur Maria...

Andra Maria, grazi guztien iturria, nire peka-  
tuen damu benetako bat yadetsi egidazu. Agur  
Maria...

Gure bitarteko Andrea, gure arerioen ekiñaldi  
tentaziño gogorretan gure laguntzalle izan zaitetz.  
Agur Maria...

Jaungoikoaren Ama eta zeruko atea, eriotz al-  
dian lagun zakiguz, eta zeruko ateak zabaldu. Agur  
Maria...

### Bernardo Deunaren otoitza

Gomutau egizu, Ama samur errukitsu orrek,  
iñoz be ez dala entzun, zure magalpean eskutatu,  
ta zuri deitu dautzunik, laguntza barik itxi dozula.

Uste onetan, gure itxaropen osoa ipiñirik, Zu-  
gana nator, ene Maria, Ama guztiz garbia.

Pekatzu beterik egon arren, zure aurrean nau-  
kazu, erruki eske. Nire negarrak entzun egizuz,  
Jaungoikoaren Ama Done orrek. Biurtu nigana zure  
begiok. Nire eskariak entzun eta gogo onez bete  
egizuz. Olantxe.

## MEZA SANTURAKO

Mezarako abestiak lau liburutxo oneitan dozuz:  
M. S. A.=Meza Santurako Abestiak. Seminario. (Donostia)  
larrea=Meza Deuna. Zornoza. (Amorebieta).  
Berriatua=Lagunarteko Meza Frantziskotarra. (Bermeo)  
Lasuen=Lagunarteko Mezak. (Zeberio). Txaunburua.

### SARRERA (m. s. a. 1)

1. Meza Santura goaz — Jaunari eskintzera  
Kalbario Mendian — Egin zana bera.  
**Garbitu gaizuz, Jauna, — Kendu pekatuak.**  
**Igon gaitezen danok — Zugana garbiak.**
2. Zugana gatoz, Jauna, — Baña pekatari.  
Zelan Zure aurrean — Zikinduta yarri?
2. Zeruko santuekin — Otoitzez Amari:  
Aren bitartez, Jauna, — Begiratu guri.
3. Izan dagigun danok — Gaur zure grazia,  
Indartu dedin gudan — Arima bizia.

### (m. s. a. 2)

**Igon nadin Jaunaren altarara,**  
**Bera dot nire poza, eta alaitasuna.**

1. Izan, Jauna, nire epailaria  
Gaiztoengandik urrundu nire bizia.
2. Gizon gaizto maltzurrakandik  
Atera nagizu onik.
3. Zu zaitut indar, ene Jaungoiko,  
Zegaitik nauzu uxatu Zugandik?

4. Bialdu zure egiaren Argia  
Ori dot nire Gidaria.
5. Eroango nabe mendi santura  
Zure altara santura.

### (m. s. a. 4)

1. Aita on zerukoa — Emen batu gara  
Gure opari Santua — Zure eskintzera.
2. Anaiak gareanez — Alkar maite gara  
Gatoz, Jaungoiko, Zuri — Aintza emotera.

### (m. s. a. 7)

**Entzun Jainko errukiorra**  
**Pekatarion negarra.**

1. Zuri begira, guztion Erosle  
Negarrez gagoz damutasun eske  
Ez aztu Jauna gaituzula maite.
2. Jaungoiko indartsu ta salbatzalea.  
Zorion bide, Zeruko atea:  
Garbitu, Kristo, gure esker bagea.
3. Jaungoiko andi, Santu, illezkorra,  
Samurki entzun gaixoen nagarra:  
Parkatu gure bizitza zabarra.

### (m. s. a. 8)

**Gure Aita zerukoa, goaz altarara,**  
**Kristau alaitasuna gogoz aurkitzera.**

1. Zugan bakarrik, Jauna, — Daukat nik bakea.  
Zu zara niretzako — Poz azken bagea.



2. Jauna, ez niri illundu — Zure arpegia;  
Emoidazu zerutik — Grazi ugaria.
3. Zure aintzarako da — Ni nazen guztia;  
Zuretzat emongo dot — Nik dodan bizia.

(m. s. a. 9)

1. Biotz baten alkaturik, — Zugana gatoz, Jauna.  
**Emoiguzu zure Argi, grazi ta maitasuna.**  
**Entzun, arren, Jauna.**
2. Altarean aurkitzen da, Kristiñau poztasuna.  
**Emoiguzu...**
3. Gurutzean ta altarean — Daukagu osasuna.  
**Emoiguzu...**
4. Jaun zerukoa, bear dogu — Biotz garbitasuna.  
**Emoiguzu...**

(Larrea)

1. Altara aurrean zagoz — Kristiñau maitia.  
Atlara ori zer da? — Golgota Mendia.  
**Jesukristo, bildots santua,**  
**Jesukristo gure eroslea,**  
**Emoiguzu fede bizia,**  
**Emoiguzu zure erreñua.**
2. An il zan Kristo Jauna — Zure maitasunez;  
Ona Kristo ber-bera, Maitasun ber-berez.
3. Altara ta Golgota, — Orra bat egiñik.  
Auzpeztu kristiñaua, — Fedea bizturik.
4. Zugaitik il zan Kristo, — Golgota mendian;  
Zugaitik bein ta barriz — Mezako oparian.

(Berriatua)

**Zugana gatoz erruki eske**  
**Aita Jaungoiko Santua;**  
**Parka eiguzu, garbitu gaizuz;**  
**Damu dogu pekatua.**

(Lasuen)

Emen gatoz, Jauna,  
Gure Jesus Ona  
Egiz Zuri eskintzera.

Confiteor

Damu dogu ainbestetan  
Zu naigabetua.  
Parkatu, Jainko ona,  
Parkatu gure  
Bizitzako pekatuak.  
Ontasun utsa zarala beti,  
Eztaukat, Jauna, aztua.  
Birjiña maite, Andra Maria,  
Eidazu biotz-damua.

Gurutzeko Oparia, — Meza astera doa:  
Altarean daukaguz — Ogia ta ardaoa.

**Gurutza ta mezea — Opari bakarra,**  
**Au dogu fede biziz — Siñistu bearra.**

Meza onen bitartez — Jauna emoiguzu:  
Gurasoen fedea — Ez dagigun galdu.

Au da neure Gorputza — Au nire Odola,  
Jesus'ek esan eban. — Egin nik bezela.

(Buenos Aires)

## KYRIE (Larrea)

Kyrie, eleison.

**Jauna, erruki zakiguz.**

Kriste, eleison.

**Kristo, erruki zakiguz.**

Kyrie, eleison.

**Jauna, erruki zakiguz.**

## GLORIA = AINTZA

(m. s. a. 10)

Aintza t'aintza, gure Aita Egilleari.

Aintza Kristo gure Erosleari, Jainko Semeari.

Aintza beti bake-emolle, Espiritu Santuari.

(m. s. a. 11)

**Gora Jauna zeruan, bakea emen lurreean.**

1. Goraltzen zaitugu, Aita, aundia zarealako.  
Gure Egille ta Jauna **betiko**.
2. Goraltzen zaitugu, Jesus, gure Salbatzalea,  
Gure maitatzalea.
3. Goraltzen zaitugu, Gogo Deun, gure laguna,  
Gizonak alkartzen dozuzana.

(Larrea)

Jaungoikoa lurreean, Seaskan da agiri;  
Ta aingeruak Belen'en, Belen'en kantari.

**Aintza beti goyetan goiko Jaun onari**  
**Ta bakia lurreean Biotz zintzoari.**

(Lasuen)

Aintza ta aintza

Zeru-lurren Egille Aitari.

Aintza ta aintza

Jesus bere Seme bakarrari.

Espiritu Santu, Maitasun utsari,

Aintza ta aintza.

Irutasun Deunari oin da len,

Maitasuna, gizaldi guztietan. Amen.

(Berriatua)

Gloria Jainkoari zeru gojanean,

Gizon zintzoentzako bakea lurreean:

Aingeruen kantua Belen'go estalpean.

Auxe kantatu daigun eurekin batean.

Amen.

## SIÑISTEN DOT (m. s. a. 12)

Siñisten dot, Jaungoiko Aita alguztiduna = zeru lu-  
rren egillea. **Siñisten dot, siñisten dot.**

Siñisten dot Jesukristo, = bere Seme bakar **gure**  
Jauna. **Siñisten dot...**

Espiritu Santuaren egitez sortu, = Ta Maria Birjiña-  
gandik yayo zana. **Siñisten dot...**

Pontzio Pilatoren menpean nekaldua / gurutzean yo-  
sia = illa ta obiratua izan zana.

**Siñisten dot...**

Inpernuetara yatsi / ta irugarren egunean = Illen  
artetik biztu zana.

**Siñisten dot...**



Zeruetara igon / eta Jaungoiko alguztidunaren = Eskumaldean yezarrita dagoana. **Siñisten dot...**

Andik biziak eta illak = Epaitzera etorriko dana. **Siñisten dot...**

Siñisten dot Espiritu Santua = Eleiza Santu katolikua. **Siñisten dot...**

Santuen alkartasuna = Pekatuen parkamena. **Siñisten dot.**

Ildakoen biztuerea = Ta betiko bizitzea. **Siñisten dot...**

(A. Lertxundi).

### (Berriatua)

Autortu daigun siñiste biziz  
Zeruko Trinidadeta;

Aita Jaungoiko alguztiduna,  
Zeru lurren egillea;

Seme Jaungoiko gizon egiña,  
Gizonen salbatzalea;

Baita Espiritu Santu Jaungoiko,  
Arimen donetzalea. Amen.

### ESKINTZA = OFFERTORIUM (m. s. a. 13)

Ogia ta ardaoa, eskintzen dautzuguz,  
Ogi ta ardao orreikin eskintzen gara gu.

1. Ogia dogu, Jauna, emen bearrezko,  
Baña zu barik ezin bizi, ene Jainko.
2. Ardaoa egingo da Jesus'en odola:  
Gure pekatu danak, parkatu daizala.
3. Gitxiegi ba'da be, emoten doguna:  
Zure esku-zabalez, ugaritu, Jauna,

### (m. s. a. 14)

**Gitxi da baña, Jauna, artu garan dana.**

1. Eleiz-zati bezela, alkaturik, Jauna,  
Goaz alaitasunez, gu danok Zugana:
2. Garia soloetan bildua izan da,  
Ogi biurtu yaku, garauak batuta.
3. Gaur txiki askogaz ogi bat bezela,  
Emen gagozan danok maite gaitezela.

### (m. s. a. 17)

**Zure semeak gara, artu eizu, Jauna  
Gaur danok biotz baten eskintzen doguna.**

1. Aita alguztiduna, — Zeruko nagusi,  
Osti txiki gurea — Eskintzen dautzugu.  
Pekatus beterikan — Beti gara bizi,  
Gure pekatua gaur — Ordaindu nai dogu.
2. Bizi diranen alde — Gaurko gure eskintza,  
Kristiñau danen alde — Gaur gure otoitza.  
Euki, Jauna, gogoan — Ildako guztiak  
Aurkitu daigun danok — Betiko bizitza.

### (m. s. a. 18)

**Artu, Aita maitalea, altarako opariak**

**Gu bere artu eurakin, — Zuretzat eskinduak.**

1. Ogi ardaoak, Jauna, — Zenduan aukeratu  
Eurakin neure gorputz — Auxe artu egizu.

2. Osti zuria, Jauna, — Jesus da biurtuko.  
Artu neure arima, — Zuretzat dot gordeko.
3. Biotza baten gu, Jauna, — Gara Zuri eskintzen.  
Erakutsi altarean — Alkar ondo maitatzen.

(m. s. a. 19)

**Artu, Aita zerukoa, — Jaungoiko jaun betikoa**  
**On artu gure eskintza — Ogia eta ardaoa.**

1. Ona Ogia, guztiz garbia.  
Arren, guztiei emon grazia  
Eta illeri zure bizia
2. Ona ardaoa zerurakoa  
Eldu daigula onen gozoa:  
Salbau dedilla mundu osoa.
3. Ona biotzak, ona bizia;  
Ona emen gu garan guztia:  
Egin daigula Zure naia.

(Lertxundi)

(m. s. a. 20)

1. Zuri eskerrak, Jauna, goaz altarara,  
Ogia ta Ardaoa Zuri eskintzera.  
Siñisemenik bakoak oraindik ba-dira:  
Bildu, Jesus, artzaña, zure artaldera.
2. Jesus etorri ziñan danok salbatzera,  
Zure Odol Santuaz gu zeruratzera.  
Ardau au egitean Zure Odol beran  
Bildu gizon guztiok Zure artaldera.

(m. s. a. 21)

**Entzun, Jauna, eskatzen dautzugu.**

Erroma'ko Aita Santua, = Gorde ta bedeinkatu egizu.  
Gure gotzayari emon, Jauna, = Zure argi ta santu-  
tasuna.

Zure Eleizako abade guztiak = Zure graziz bete egizuz.  
Gure errietako agintariak = Euki dagiela zure lagun-  
tasuna.

Eleizako kristiñau guztiei = Indartu bere siñismena.

(Berriatua)

Ogi ardao Doneak baita gura buru,  
Abadearen bidez eskintzen ditugu.  
Gure ardao ogiak, Jauna, bedeinkatu,  
Jesus'en Gorputz Odol daitezcan biurtu.

(Larrea)

Altarako Ogi zuria, artu Zuk, Jauna,  
Eta artu Osti errekin daukagun dana.  
Ardau ontzia nai dogu, usain gozo lez  
Igon dedilla Zugana danon izenez.

**Gure Opari Santua, usain gozo lez**  
**Igon dedilla zugana danon izenez.**

(Lasuen)

Abadea oin dau eskintzen Jaunari  
Kalizian ardaua eta eskuetan gari.  
Ba-dogu kristauok eskutuki ugari:  
Ogia yaku biurtzen Kristoren aragi,



Jesusen Odol, ardaia: ona emen mirari:  
Jaungoikua gure janari.  
Jauna, Zuregan bat eginda ni,  
Eskintzen naz Aita Goikuari,  
Nire egite txiki,  
Andi izan daitezan beti.

**SANCTUS (m. s. a. 22)**

Zeruak eta lurrak, zaitue autortzen.  
Zeruko aingeruak Zu beti goraltzen.  
Zeru osoarekin dautzugu esaten:  
Bizi nai dogu, Jauna, Zu beti maitatzen.

**(m. s. a. 23)**

Zeruko aingeruak, — Jaunaren aurrean.  
Beti daño abesten, — Beti itz berean.

**Zu bakarrik zara, Jauna, — Jaungoiko alguztiduna.**

2. Opari santu auxe — Eskintzean Zuri,  
Abestu nai dautzugu — Goralpen ugari.
3. Laster etorriko da — Jesus altarera:  
Siñisten dogu dala — Jaungoikoa bera.

**(m. s. a. 24)**

Zeru goyan aingeruak, — Baita gizonak lurrean,  
Kantau dagigun poz-pozikan:  
Aintza Jaunari munduan.  
Jauna Zuri goralpena.  
Andia da Zure izena.  
Zu zara gure Jaun bakarra,  
Beti betiko Jaun zara.

**(m. s. a. 25)**

Jaungoiko Santua, — Guk agurtzen zaitugu.  
Zure anditasuna — Guk autortzen dogu.  
Aintza Zuri, Aintza ta Aintza  
Zeru ta lurrak kantau beza.

**(m. s. a. 26)**

Santu, Santu, Santua,  
Zeru goiko aingeruen Jaungoiko indartsua.  
Beteak ditu zeru lurrak  
Zure ospearen indarrak.  
Gora, gora Jaungoikoa zeru goyenetaraño.  
Danok auzpez eta ongi etorri  
Jaunaren izenean datorrenari.  
**Gora, gora Jaungoikoa, zeru goyenetaraño.**

**(Berriatua)**

Zeruko santu ta Aingeruekin,  
Begirunez auzpezturik,  
Jaungoikoaren izen Santua  
Adora daigun apalik.  
**Gora, gora, gora diardu**  
**Mundu guztiak poz pozik**  
**Gugaz gogoz alkaturik.**

**(Larrea)**

Kanta dagigun aingeruekaz  
Zeruko kanta ederrena:  
Santua, Santu, Santua zara,  
Jaungoiko gure Jaun onena.  
**Zeru ta lurrak gañezka dagoz,**  
**Gañezka zure aintza deunez.**  
**Hosanna zuri zeru goyetan,**  
**Zeru goyetan betiraunez.**

Bedeinkatua datorkiguna  
Jaungoikoaren izenean.

**Hosanna zuri, Hosanna beti  
Zeru goyetan ta lurrean.**

(Lasuen)

Eskerrak, Jauna, biotzez,  
Jesus maitearen bitartez.  
Aingeru ta Goi-aingeruekin  
Zeru goiko taldeekin.  
Kantuz bear dautsagu ekin,  
Gora, gora beti gora,  
Aintza zeru goyetan  
Eta bakea lurrean.

### BIZIEN MEMENTOA

(Larrea)

Apaizagaz batera erregutu daigun:  
Emon daiskula Jaunak bake ta alkartasun  
Abadeagaz batera eskatu daitsagun  
Maite doguzanentzat — Poz ta laguntasun.

**Gomutan artu, Jauna; batez be  
Nire guraso maiteak,  
Anai-arreba, seme-alaba  
Eta adiskide guztiak.**

(Lasuen)

Biurtu, arren, Jauna, — Gugana begiak.  
Zaindu egidazuz — Neure adiskideak.  
Senide, baita ongille, — Munduko guztiak.

### SAGARA OSTEAN

(m. s. a. 30)

Artu Zuk, Jauna, Zure Semearen Opari bakarra.

**Artu eizu, Jauna.**

Gurtuten zaitu.

**Artu eizu, Jauna.**

Eskintzen zaitu gure alde.

**Artu eizu, Jauna.**

Gure ta mundu guztiaren alde. **Artu eizu, Jauna.**

Gure pekatuen parkamenerako. **Artu eizu, Jauna.**

Gure bear guztien osabiderako. **Artu eizu, Jauna.**

Zure on egiñen esker onerako. **Artu eizu, Jauna.**

Bere bitartez eskintzen gagizuz, Jaun ona.

**Artu eizu, Jauna.**

(m. s. a. 31)

Zeruko Aita, artu egizu, Jesus onaren Opari.

Begira errukiz gu danon alde

Otoitzetan dagonari

**Aspertu zñan Aita nerea,**

**Judutarren opariaz.**

**Emen nago zure semea,**

**Neure bizia emonaz.**

Zure aintza ta izen andia

Galduak dagoz lurrean,

Aintz ori Zuri emotearren

Eskintzen naz altarean.



(m. s. a. 32)

1. Altara onetan orain egin da  
Jesus Berak agindua:  
Kalbario'an zan bezelaxe  
Da Jesus gurutzatua.  
Artu egizu, Aita Jainkoa,  
Gure Opari Santua.
2. Zu gurutzean ikusirikan  
Dagigun danok ikasi,  
Eguneroko lan guztietan  
Zelan bear garan bizi.  
Ez dadigula, Jesus, beñi bere  
Gure gurutzea itxi.

(Larrea)

Ementxe zagoz, Jauna, Ogi ta  
Ardau antzian!  
Gure Eroslea, Kalbario'n, lez,  
Meza Deunean.  
Biotzez gurtzen zaitugu, auzpez  
Zure aurrean;  
Indartu gaizuz fede bizi ta  
Maitasunean.  
Ementxe zagoz, Jauna, ementxe  
Gure artean.

(Berriatua)

Egin dodan au egin eizue  
Lurrak dirauan artean;  
Sifismeneko misterio au  
Barriztau nire izenean.  
Jesukristoren itzon bitartez

Orra Jesus altarean,  
Gurtze, Bizkunde, Zeruratzea  
Gomutarazo nayeane.

ILLEN MEMENTOA

(Larrea)

Gure ildakoen alde erregutu daigun:  
Jaunak euki beiz goyan beti bere lagun.  
Geure arteko ziran gure sendietan;  
Ta joan ziran, Agur, Kristo'n besoetan.  
**Zeure argitan atsedeen bediz,**  
**Jauna, betiko glorian.**  
**Zeure argitan alkartu gaizuz**  
**Danok maitasun betian.**

(Lasuen)

Sugar bizian arimak dagoz  
Utsegin zorrak ordaintzen.  
Emoiezu, Jauna, gaxoai betiko  
Poz, argi ta atsedeen.  
Zeru argitik gure bitarteko  
Izan daiguzan lenbailen.

AGNUS DEI

(m. s. a. 34)

Zeruko Bildots Santua, Gizonen Salbatzalea.  
**Gutzaz errukitu, Jauna.**  
Jaungoikoaren Semea, gugaitik gizon egiña.  
**Gutzaz errukitu, Jauna.**  
Jesus gurutzeratua, munduko baketzalea:  
**Betor zure bakea.**

(Larrea)

Odol ixurtze bage — Ez da parkamenik.  
Ara, Bildots Santua — Golgota'n zintzillik.  
Munduko pekatuak — Berak artu ditu;  
Ta bere Odol Santuz — Guztiok garbitu.  
**Jesus, Bildots Santua, erruki zakiguz!**  
**Jesus, Bildots Santua, bakea emoiguzu.**

(Berriatua)

Orra or gure janari,  
Jesus Bildots otzana,  
Mundukoen pekatuak  
Parkatzen dituana.

**JAUNA ARTZERAKO**

(m. s. a. 35)

Aleluya

Zeinbat gaitu Jesus'ek maitatu, Aleluya.  
Bere Gorputzaz gaitu **bazkaritu**.  
Aleluya, Aleluya.  
Aleluya. Nai dauanak betiko bizi, Aleluya.  
Ezin dau janari au itxi.  
Aleluya, Aleluya.  
Aleluya. Jesus'en **Gorputz** Odolak, Aleluya.  
Batu daizala gure biotzak.  
Aleluya, Aleluya.

(m. s. a. 36)

Ogi au yaten dauanak, eukiko dau bizia.  
Ontzi ontan aurkitzen da Jaungoiko Odol gutzia.  
**Ona Jaunari eskintzen dautsagun oparia.**

Jaungoikoak deitzen gaitu: bera dogu yanari.  
Beragan dogu aurkitzen osasuna ugari.  
**Zelan begiraten dautson, Jainkoak gizonari.**  
Danok gaur yaten badogu ogi bat mai batean,  
Ezin izan gorrotorik gaur gure artean.  
**Alkar maitatu dagigun Jesus'en izenean.**

**AZKEN AGURRAK**

(m. s. a. 38)

Zurea da gure bizitza.  
Zuk egiñak gara, Jauna.  
Meza ontan emon dautzugu  
Zuri aintza ta omena.  
Erri osoak eskindu dautzu,  
Jauna, Opari Santua:  
Eliz ontan bildu garanoi  
Emon maitasun frutua.

(m. s. a. 39)

Jainko gizon egiñari, Agur, ospe, onespena;  
Jesukristo Erregeri, Esker, otoitz, maitasuna.  
Mundu guztiak bete dayala,  
Jesukristo'ren legea.  
Mundu guztira eldu dedilla,  
Arek dakarkin argia.  
Aita Santuak euki bei  
Jaungoikoaren laguntza:  
Gizon guztiak zeruratzeko  
Bedeinkatu Zuk Eleiza.  
Agertu daitela Jesus,



Etxetan eta errian,  
Egitetan ta izketan  
Gizon guztien erdian.

(Lertxundi)

(m. s. a. 40)

**Jesus munduko Argia,  
Jesus, siñezko Egia,  
Jesus betiko Bizia.**

1. Jesus, Jainko gizona, — Zuri gure Bizia.  
Artu, gure Jaun ona, — Guk daukagun guztia
2. Gure biotz barruan, — Bizitu Zure Argia:  
Gaitezen gu munduan, — Argi Jainkoz betia.
3. Etxetan, errietan — Izan danen nausia:  
Zure kristau barantzan — Izan gaiten loria.

(Lertxundi)

(m. s. a. 41)

Atsegin bekizu, Jaun argia,  
Eskindu dautzugun Oparia.  
On egin bezaigu zure errukiaz  
Yan dogu gorputza jaunartzeaz.  
Mai batean danok gara yarri  
Gorputz Odola dogu bazkari.  
Maitasuna zaran, Jaungoiko maitea  
Emoiguzu alkar maitatzea.

(m. s. a. 42)

**Eskerrak zuri, Jauna, eskerrak zuri.**

1. Zuk emona guztia, — Daukat Jainko maite.  
Zurea dot bizia — Zurea izate.

2. Gorputzeko indarra — Nik daukat Zuk emona.  
Ba-dot zure bearra — Zurea naz ni, Jauna.
3. Eguzkian argia — Zuk niretzat egiña:  
Zu zeruko argia, — Nire poz ta tsegiña.

(m. s. a. 43)

**Jesus Jainkoak eskindu dausku  
Gorputz yanaritzat.  
Gure bizitza eskintzen dogu  
Betiko beretzat.**

1. Jesus'ek Berak autortu dausku,  
Dogula gure Artzaña.  
Bere ondoan bizi gaitezen  
Yarraituaz Bere deya.
2. Gure munduko illunpe ontan  
Jesus da gure Argia;  
Argi onetan ikusi daigun  
Gure bizitza guztia.

(Berriatua)

Amaitu dogu Meza Santua,  
Aita Jainko zerutarra;  
Bertan dautzugu eskindu Jesus,  
Jaungoiko Seme bakarra;  
Bedeinka eizu emen dagozan  
Zure semeon batzarra.  
Zeru-lurrek gauza guztiak,  
Gizon, aingeru, mundua,  
Jesuskristo'ren Opariagaz  
Dana dago donetua;  
Bildots Santuak parkatzen dau-ta  
Munduaren pekatua.

(Lasuen)

Eskerrik asko, Jaun ona, dautzugu emoten,  
Altare gañean Jesus yatzulako eskintzen.  
Beragaz bat egifik beti egon gaitetzen  
Jaunak agindutakoa aleginduz betetzen.

**AMARI AGUR**

Zelan aldendu, Ama, altara ondotik  
Agurrik samurrenazu Zu agurtu barik?  
Zure Seme egin gifian Golgota mendian;  
Tu zure Seme gozuz Mezako Oparian.  
Altara ta zerutik begira zaukoguz,  
Begira beti, Ama, Biotz errukitsuz,  
**Zeuriak gozuz, Ama, emen erbestian,**  
**Zeuriak nai dogu izan betiraunian.**  
**Artu gure biotzak, Ama on ta samur,**  
**Ta zaindu maitasunez zeuriaren ur-ur,**  
**Ama Maite, Agur!!!**  
**Agur, agur, agur!!!**

(Buenos Aires)

1. Mundu nastu onetan  
Argi bat bakarra,  
Jaungoiko Jesukristo  
Gizonen indarra.  
**O Kristo lagundu**  
**Ito bear dogu:**  
**Gorrotoak aldendu,**  
**Bakea emoiguzu.**
2. Jesus'en agindua:  
Alkar maitatzea,  
Kristo'renak ez dira  
Guda ta asarrea.

**EUKARISTIARI**

**PANGE LINGUA**

1. **Pange lingua gloriosi corporis misterium**  
**Sanguisque preziosi quem in mundi prezium**  
**Fructus ventris generosi rex effudit genzium.**
2. Nobis datus, nobis natus ex intacta Virgine,  
Et in mundo conversatus sparso verbi semine,  
Sui moras incolatus miro clausit ordine.
3. In supreme nocte cene recumbens cum fratribus,  
Observata lege plene, cibus in legalibus,  
Cibum turbe duodene se dat suis manibus.
4. Verbum caro, panem verum verbo carnem efficit,  
Fitque sanguis Christi merum, et si sensus deficit,  
Ad firmandum cor sincerum sola fides sufficit.

**TANTUM ERGO**

5. **Tantum ergo sacramentum veneremur cernui;**  
**Et antiquum documentum novo cedat ritui:**  
**Prestet fides supplementum sensuum defectui.**
6. **Genitori, Genitoque laus et iubilazio**  
**Salus, honor, virtus quoque sit et benediczio;**  
**Procedenti ab utroque compar sit laudazio.**  
Amen.

**AVE VERUM (Ar. 7)**

Ave, verum Corpus natum de Maria Virgine;  
Vere passum, immolatum in cruce pro homine:  
Cuius latus perforatum fluxit aqua et sanguine.  
Esto nobis pregustatum mortis in examine.  
O Jesus dulcis! O Jesu pie!  
O Jesu, Fili Marie,  
Tu nobis miserere. Amen.

(R. P. 2)



## ADORO TE (Ar. 4)

1. Adoro te devote, latens Deitas,  
Que sub his figuris vere latitas:  
Tibi se cor meum tctum subycit  
Quia, te contemplans, totum deficit.
2. Visus, tactus, gustus, in te falitur,  
Sed auditu solo tuto creditur:  
Credo quidquid dixit Dei Filius,  
Nil hoc verbo veritatis verius.
3. In cruce latebat sola Deitas,  
At hic latet simul et humanitas;  
Ambo tamen credens atque confitens,  
Peto quod petivit iatro penitens.
4. Plagas, sicut Thomas, non intueor,  
Deum tamen meum te confiteor:  
Fac me tibi semper magis credere,  
In te spem habere, te diligere.
5. O memoriale mortis Domini!  
Panis vivus, vitam prestans homini,  
Presta mee menti de te vivere,  
Et te ili semper dulce sapere.
6. Pie pelicane, Jesu Domine,  
Me inmundum munda tuo sanguine:  
Cuyus una stila salvum facere  
Totum mundum quit ab omni scelere.
7. Jesu, quem velatum nunc aspicio,  
Oro, fiat ilud quod tam sizio,  
Ut te revelata cernens facie,  
Visu sim beatus tue glorie. Amen.

(R. P. 2)

## ADOREMUS IN ETERNUM (Ar. 1)

### Adoremus in eternum

#### Sanctissimum sacramentum.

Laudate Dominum omnes gentes,

Laudate eum omnes populi.

Quoniam confirmata est super nos misericordia eius,

Et veritas Domini manet in eternum.

Gloria Patri et Filio

Et Spiritui Sancto.

Sicut erat in principio et nunc et semper

Et in sécula seculorum, Amen.

(Plana 28)

## LAUDA SION (Ar. 12)

Lauda, Sion, salvatorem

Lauda ducem et pastorem

in Hymnis et canticis.

Quantum potes tantum aude,

Quia mayor omni laude

Nec laudare sufficis.

Laudis thema specialis

Panis vivus et vitalis

Hodie proponitur.

... ..

... ..

**Ecce panis** angelorum,

Factus cibus viatorum,

Vere panis filiorum

Non mittendus canibus.

In figuris presignatur  
Cun Isâac inmolatur,  
Agnus Paske deputatur,  
Datur mana patribus.

**Bone Pastor**, panis vere,  
Jesu, nostri miserere.  
Tu nos pasce, nos tuere,  
Tu nos bona fac videre  
In terra vivenzium.

Tu, qui cuncta scis et vales,  
Qui nos pascis hic mortales,  
Tuos ibi commensales,  
Coheredes et sodales  
Fac sanctorum civium. Amen.

### O ESCA VIATORUM (Ar. 14)

O esca viatorum, o panis angelorum.  
O manna celitum.  
Esurientes ciba, dulcedine non priva  
Corda querenzium.

O lymfa, fons amoris, cui puro salvatoris  
E corde ploffuit.

Te sizientes pota, hec sola nostra vota:  
His una sufficit.

O Jesu tuum vultum, quem colimus occultum  
Sub panis specie:

Fac ut remoto velo post libera in celo  
Cernamus facie.

(Plana 12)

### O QUAM AMABILIS ES (Ar. 16)

O quam amabilis es, bone Jesu,  
O dulcis, Jesu,

Quam delectabilis es, pie Jesu.

O cordis iubilum, mentis solacium,  
O bone Jesu, O bone Jesu.

Quam admirabilis es, bone Jesu,  
O dulcis Jesu!

Quam honorabilis es, pie Jesu.

(R. P. 24)

### O QUAM AMABILIS (euzkeraz)

Maitagarria zara, gure Jesus,  
Jesus eztia,

Gutziz maitagarria, ene Jesus,  
Biotzaren poza, gogoen argia  
Jesus maitea, Jesus maitea.

Agurgarria zara, gure Jesus,  
Jesus eztia,

Gutziz agurgarria, ene Jesus.  
Biotzaren poza, gogoen argia  
Jesus maitea, Jesus maitea.

Errukitsua zara, gure Jesus,  
Jesus gozoa

Maitetasun guztia Zugan dozu.  
Maitasunen orde z nik maiteko zaitut,  
Jesus maitea, Jesus maitea.

### SACRIS SOLEMNIIS (Ar. 25)

Sacris solemnibus juncta sint gaudia,  
Et ex precordiis sonent preconia;  
Recedant vetera, nova sint omnia,  
Corda voces et opera.



Noctis recólitur cena novissima,  
Qua Kristus creditur agnum et azyma  
Dedisse fratribus iuxta legitima  
Priscis indulta Patribus.  
Post agnum typicum, expletis épulis,  
Corpus Dominicum datum discipulis,  
Sic totum ómnibus, quod totum síngulis  
Eyus fatemur má nibus.  
Dedit fragilibus córporis férculum,  
Dedit et tristibus sanguinis póculum,  
Dicens: Accipite quod trado vásculum,  
Omnes ex eo bíbite.

Sic sacrificium istud instituit,  
Cuyus officium committi voluit,  
Solis Presbyteris, quibus sic congruit,  
Ut sumant et dent ceteris.

**Panis angelicus** fit panis hominum;  
Dat panis celicus figuris terminum:  
O res mirabilis, manducat Dominum  
Pauper servus et humilis.

Te Trina Deitas unaque poscimus,  
Sic nos tu visita, sicut te colimus:  
Per tuas sémitas duc nos quo téndimus,  
Ad lucem, quam inhábitas. Amen.

(Plana 36)

### **O SACRUM CONVIVIUM (Ar. 18)**

O sacrum convivium, in quo Cristus súmitur;  
Recólitur memoria passionis eius:  
Mens impletur gracia,  
Et future glorie nobis pignus datur.  
(Alleluja).

(R. P. 3)

### **VERBUM SUPERNUM**

Verbum supernum pródiens,  
Nec Patris linquens dexteram,  
Ad opus suum éxiens,  
Venit ad vite vésperam.  
In mortem a discipulo  
Suis tradendus émulis,  
Prius in vite férculo  
Se trádedit discipulis.

(Ar. 19)

**O salutaris Hóstia,**  
Que celi pandis óstium,  
Bela premunt hostília,  
Da robur, fer auxiliúm.

Uni trinoque Dómino  
Sit sempiterna gloria,  
Qui vitam sine término  
Nobis donet in patria. Amen.

(R. P. 28)

### **UBI CARITAS (Ar. 36)**

Ubi caritas et amor, Deus ibi est.  
Congregavit nos in unum Kristi amor.  
Exultemus et in ipso yucundemur.  
Timeamus et amemus Deum vivum,  
Et ex corde diligamus nos sincero.  
Ubi caritas et amor Deus ibi est.  
Simul ergo cum in unum congregamur,  
Ne nos mente dividamur, caveamus.

(Belloc)

Cessent yurgia maligna, cessent lites.  
Et in medio nostri sit Kristus Deus.

Ubi caritas et amor Deus ibi est.  
Simul, quoque cum beatis videamus.  
Glorianter vultum tuum, Kriste Deus:  
Gaudium quod est inmensum atque probum.  
Secula per infinita seculorum. Amen.

(Plana 34)

### O GURUTZEA (Kantikak 260)

1. Zure besotan, O gurutzea,  
Il yaku Jesus maitea,  
Aren gurutze yositzallea  
Ni naz, ni pekataria.  
**O gurutzea, O gurutzea,  
Gurutze santu maitea.**
2. Jesukristo'ren odolak zaitu  
Kalbario'an gorritu.  
Iñok geroztik munduan ez dau  
Zuk ainbeste dirdiratu.
3. Gurutz onetan etsai gaiztoa  
Izan zan oinperatua.  
Zure indarra da, Jaungoikozkoa  
Iñok ezin apurtua.
4. Etsayarekin beti burrukan  
Emen gabiltza munduan:  
Yarten ba'zara gure buruan,  
Nok gu garaitu orduan?
5. Jesukristo'ri gurutze baten  
Ba-dautso iñok yarraitzen,  
Bide orretik da beti zuzen  
Kristaua zerura eltzen.

(Belloc)

## EUKARISTIARI (Euzkeraz)

### ARIMAREN EGUZKI (Ar. 41)

Arimaren eguzki biotzaren mana,  
Argi ta gozo guri zeruak emona.  
Jesus, zeruetatik etorri gugana,  
Ta aldarean or beti izan gure yana  
Zer da, baña, O Jesus entzuten dodana?  
Arria da zurekin zorutzen ez dana.

**Arimaren eguzki  
Biotzaren mana,  
Nork etzaitu maiteko,  
Gure Jaun laztana?**

Ogiaren gozoa guk yaten doguna!  
Argiaren argia emoten dozuna.  
Bizitzaren indarra eta osasuna.  
Eriotzean barriz bideko laguna.  
Golgota'ren barritze zeruko oyartzuna.  
Jainkoaren erruki eta maitasuna.

(Plana 58)

### BASAUNTZAK ITURRI OTZA (Ar. 66)

**Basauntzak iturri otza, erleak lora maite,  
Gogoentzak ezti iturri, zu, Jesus, izan zaite.**  
Begiak egarri, bañan ezin zaitu Zu ikusi,  
Biotzak Mai Deun orretan, bai laztandu estuki.  
Zeruko itxaropenez gagoz munduan beti;  
Ta altarean zerutxo bat Zuk gureztat or euki.  
Noan ba, Jauna, Zugana: ortxe dagidan edan,  
Biotzaren egarri au, Zugan ase dagidan

(Plana 200)



### **GORATU DAGIGUN (Ar. 50)**

Goratu dagigun alkar arturik  
Gure Jaun laztana, Kristo Eroslea,  
Ostian dagoena gurtu daigun  
Apal auzpezturik.

Gora ta gora, Jesus,  
Zeru ta lurren Jaun eta Jabea.  
Oyu alaiak Zuri Orain ta beti.  
Maitasuna Zuri Jaun maitea.

### **ABESTU DAIOGUN (Plana 74)**

Abestu dayogun maitasunari,  
Abestu Jaunari; Jauna emen dago.  
Erdur, Gau gurtzalliak, gurtu daigun  
Jesus Eroslea.

Aintza Zuri, O Jesus  
Zeru ta lurrak onetsi zaizala:  
Aintza ta gora Zu, Zeruko Errege,  
Maitasuna Zuri, Jaun laztana.

### **GORATU JAINKOA (Ar. 224)**

Goratu Jainkoa, — Aintza Zuri Jauna.  
Maitagarri zara, — Lagunik onena.

1. Zerutik jatxi da — Aldare gañera:  
Gorputz ta odola — Jaten emotera.
2. Mezako oparia — Kalbario mendi  
Jesus'ek odola — Barriz dau ixuri.

### **IZAN ZAITEZ BETI (Ar. 99)**

Izan zaitez beti, Jesus maitea,  
Gure Biotzaren Jaun ta Yabea.  
Jesus'en biotza dago suturik  
Maitasuna agertzen alde guztitik.

2. Nun aurkituko da biotz gogorrik,  
Biotz onen suan urtuko ez danik?
3. Ez dau Jesus onak ez atsegiñik,  
Gu oso bereak egin bagerik.

(R. P. 3)

### **JAUNA NEURE BIOTZAK (Ar. 54)**

**Jauna neure biotzak deitzen zaitu,  
Zatozkit, bada; laster, ene Jesus,**

1. Egiaz siñisten dot, or zaozala,  
Neure Jaun eta neure Jaungoikoa,  
Zatoz, Jesus, maitea, biotzera.
2. Iñontzik artu ezik loretxoa,  
Laster ikusiko da igartua:  
Ni bere Jesus barik naz galdua.
3. Artzain on maitagarri, zaran Jesus,  
Zure ardi artean artu naizu,  
Alkar bizi gaitezen ni eta Zu.

(R. P. 3)

### **JAUNGOIKO GIZONA (Ar. 40)**

Jaungoiko gizona guretzat onena  
Aingeruen mana, Zerutik gugana  
Etorri zerana. Zuri biotz bana  
Eskintzera gatoz, Jauna.  
Jaungoiko ber-bera Zerutik lurrera  
Gizonen artera zure etorrera  
Gutziz da ederra; emendik aurrera  
Zorionekoak gara.

Ai Jesus lantana. Nor da gauza, Jauna,  
Eltzeko zugana? Jaungoikozko jana,  
Guretzat emona: Auxe bai da lana  
Nai ainbat ezin esana.

(Plana 36)

### JESUS MAITEA ZAN (Ar. 67)

1. Jesus maitea zan azken aparian,  
Bera emon nairik ardo ta ogian.  
Guretzat zalarik ilteko aurrian.  
Maitasunak eukan biotza menpean.  
**Gurtu daigun beti Jesus Jainko Jauna**  
**Sakramentu ontan gurekin dagona.**
2. Apostoluei miñaz esan dautse  
Ni gaur saldua naiz, biar ilko nabe.  
Aitarenganako denbora yat bete.  
Ona orain zenbat zaituedazan maite.
3. Ogia arturik mintzo da Jainkoa:  
"Au da nere Gorputz, zuek jatekoa".  
Orobat arturik ontzian ardoa:  
"Au da nere odol ixuritzekoa".
4. Yan edan egizue guztiok ontatik,  
Zuekaz bat nadin izan ointxegandik.  
Egizue gero egin dodana Nik,  
Nere gaurko itzak gogoan izanik.

### JESUS'EN GORPUTZ SANTUA

(T'adoriam, ostia divina)

Jesus'en gorputz santua,  
Jesus'en odol Deuna,  
Ostian gurtuten zaitut,  
Nik maite zaitut, Jauna,

1. Zu zara gure indarra  
Gizonen lagun ona.  
Arima gaxoarentzat  
Zu zeruko osasuna.
2. Zu zara gure bizitza,  
Zu, itsuen argia;  
Erakutsi egidazu  
Zerurako bidia.
3. Gexorik naukazu, Jauna,  
Zu barik ezin bizi:  
Sendatu nagizu, Jesus,  
Nerekin zaitte erruki.

(Italiarra)

### JESUS UMEA

Jesus umea joan da mastira  
Zer nai ete dau? Zer Zakar etxera?  
Odol darion mats mordo ederra.  
Jesus Umea joan da solora  
Zer billatzen dau? Zetan ete doa?  
Galburutxo bat artu dau eskura.  
Itandu eutson etxean Mariak  
Zer dakazu or, ene semetxoa?  
Aurkitu dodan gauzarik onena:  
Eukaristiko Ogi ta ardaoa.

### MAITE ZAITUT

Maite zaitut Jesus ona (Birritan)  
Aingeruaren yana, eta gizonena.  
Zeru goitik yatsi zara  
Zeru goitik lurrera  
Eta osti orretan — Gugaz bizi zara.



**Agur osti Deun ta garbi (Birritan)**  
**Aingeruen yanari, ogi zerukoa.**

1. **Zeru goitik yatsi zara**  
**Altara orren gañera;**  
**Osti zuri zurian eskutatu zara.**
2. **Biotz loi zikiñarekin**  
**Ez Jaun ona laztandu**  
**Judas gaizto bezela, etzaitzezan galdu.**

#### **NAI AL DOZUE JAKIN (Ar. 51)**

1. **Nai al dozue yakin nire guraria?**  
**Jaungoiko onarentzat da**  
**Nere min guztia.**  
**Neugan nik diardut gogoratzen**  
**Noiz ikusiko dodan neure Jainkoa.**  
**Ezin bestela bizi, ay!, iltzera noa**
2. **Bera daukat betiko neure biotzean.**  
**Bera barik ezin dot**  
**Atsedean lurrean.**  
**Beragana noa lasterka,**  
**Eutsi ta biztu dayon nire gogoa.**  
**Ezin bestela bizi, ay!, iltzera noa.**

#### **NIK AGURTZEN ZAITUT (Ar. 68)**

**Nik agurtzen zaitut, Jesus,**  
**Burua txoil makurturik,**  
**Burua txoil makurturik eta**  
**Maitez biotza suturrik.**

**Jesus gugana etorri,**  
**Janarizat emotea**  
**Ogi irudian guganaturik**  
**Gizona jaungoikotzea.**

**Jesus gugana etorri,**  
**Janarizat emotea**  
**Maitetasun beroagaz**  
**Biotzak bat egitea.**

(Jaungoiko-zale)

#### **OGI ZERUTIK (Ar. 56)**

**Ogi zerutik etorria**

**Zu zara gure poz guztia.**

1. **Bildots santua, ara emen,**  
**Munduko gatxak kentzearren**  
**Sagrarioan non dagoen**  
**Lurra zeruaz bat egiten!**
2. **Misteriorik aundiena**  
**Jaungoikoaren oroimena**  
**Gozotasunik gozoena,**  
**Gizonentzako dagoena.**
3. **Gauza guztien egillea,**  
**Zeru ta lurren erregea,**  
**Gure artean bizitea,**  
**Zer zoriona dan gurea!**
4. **Ez zaitut begiz nik ikusten**  
**Baña bai fedez dot siñisten**  
**Sakramentuan zelan zaozen**  
**Jesus laztana gu maitatzen.**

(Argia)

## OI GAUZA ARRIGARRI (Ar. 58)

1. Oi gauza arrigarri  
Ziñeskai aundia!  
Aldarean dago  
Jesus estalia.  
Or dago egiñik  
Gure janaria:  
Oi au mesedea!  
Oi gure zoria!
2. Ez dot nere begiz  
Jesus Jauna ikusten  
Ezta gorputzeko  
Zentzunez aditzen.  
Baña sendoro dot  
Or dala sinisten,  
Fedez argiturik  
Or dot ezagutzen.
3. Jaunak egin eban  
Azken aparria.  
Jateko emonik  
Bere aragia:  
Aragi santu ura  
Jaten dot nik bere,  
Au janaz uste dot  
Bizi beti bere.

(Plana 67)

## ONA BILDOTS EZTIA (Ar. 49)

Ona bildots ezitia, egiazko egia  
Zerutik da yatxia, Jainko maitea.

1. Zeruetaiko Jaun aundia,  
Egiñik gure yanaria.

- O maitetasun ugaria  
Gizonarentzat gegyegia!
2. Ontasun danen iturria,  
Iltzeko gure egarria.  
O eskutapen pozgarria,  
Zeru ta lurren miraria!

## OSTI ZURI

Osti zuri, — Osti garbi  
Osti bikain eder ori:  
Goratu bedi — Orain eta beti.

1. Jesus gure Eukaristia  
Biotz-biotzez maite daigun,  
Zeruko aingeruekin  
Agurtu bedi gau ta egun.
2. Au bai mirari aundia:  
Jauna zerutik etortzea;  
Gizon gaiztoak jatea  
Zeru ta lurren Erregea.

## OSTI ZURI

Osti zuri, Izar txuri,  
Aingeruen argizari;  
Osti zuri, Lili txuri,  
Goi urdiñeko opari:  
Osti zuri, ogi txuri,  
Jaungoiko eındako gari:  
Osti zuri, bildots txuri,  
Zaite gaur nire gozari!



Altarako Jesus ona,  
Oso nator zure egarri,  
Nire biotzak Zu bage,  
Ezin dau pozik ekarri,  
Zu yan ezkeru, beste iñor  
Zelan dagiket pozgarri?  
Betiko maitasun itza  
Emoyogun alkarreri.

(N. Etxaniz)

### OSTIAN BIZI ZARA (Ar. 57)

**Ostian bizi zara**  
**Gau ta egun nigaitik**  
**Maiteko zaitut beti**  
**Biotz biotzetik**

1. Gurutzeratu zaitu inpernuak,  
Eta munduak ukatu,  
Sagrarioan bakardadean  
Or illunpean baztertu.  
Baña guk, Jesus, Zu maitatzea  
Edo iltzea nai dogu.
2. Nor ez da arritzen Zu aldarean  
Or ikustean eskale!  
Gizaldietan biotzen billa,  
Guri begira maitale!  
Ay, ene Jesus, nere biotza  
Ezin bizi da Zu gabe.

(Seminario. Gazteiz)

### ENE MIRARI GUZTIZ (Kantikak 92)

Ene mirari guztiz, ikaragarria,  
Ogiaren irudiz, Jesus estalia.  
Bera dot agurtuten, altare gañean,  
Berbera nik dot yaten, Jaunartze Deunean.  
Nire begiak Jesus, ez dabe ez ikusten  
Gorputzeko sentzunak, ez dabe asmatzen,  
Baña Ostian dala, bardin dot siñisten  
Fedea argiturik, au dot ezagutzen.  
Jesus'ek egin eban, azken aparria  
Yanaritzat emonik, bere aragia.  
Aragi Santu bera, yatera noa ni  
Berau yanda uste dot, betirako bizi.  
Israel'ek basoan, yaten eban mana,  
Bera zan adorea, emoten eutsona,  
Jesus'en Gorputza da, nire yanaria,  
Basamortu onetan, nire indar guztia.  
Uretarain doa, basauntza gaxoa,  
Bero eta egarriz, guztiz nekatua,  
Ainbeste dot egarri, Zeru goiko ogia,  
Bete egidazu, Jauna, egarri bizia.

(Belloc)

### JESUS BERPIZTUARI (Ar. 300)

(Paskoaldian)

1. Abestu daigun danok misterio andiena,  
Garaiturik eriotza biztu da Jainkoa.  
**Aleluya. aleluya, illobitik biztu da Jauna.**
2. Ekaitzaren ondoan eguzkia agertzen da  
Garaiturik eriotza Jesus ona berpiztu da.
3. Gure Jauna biztu dala, aurretik esan bezela  
Askok dabe Bera ikusi, Aintza betiko Jesus'i.

## SAGRARIO ATEA (Ar. 55)

Sagrario atea zabaldu eiguzu,  
Ortxe bizi nai dogu, ene Jesus,  
Biotzeko zauria zabalik daukazu,  
Barrura sartu nai dot, ene Jesus.

Zure Biotz bigunak gu poztutzen gaitu  
Biotz illun nago-ta, erdu Jesus.

Urten zaitetz, o Jesus Sagrario ortatik  
Nira biotz barruan ez dago otzik.

(Erviti. S. S.)

### SINIŠTEN DOT

1. Siništen dot, autortzen dot, altarean zoala Zu.  
Ogi-ardao antza dozu, baña Jaungoiko zaitugu.  
Auzpezturik, artu nairik, Zure aurrean naukazu.
2. Egarrri naz ta gose naz, gelditu naz indar barik,  
Baña Zu or zagoz, Jauna, Gorputz-Odol garbiakin.  
Ase naizu, ta indartu, yan-edari Deun orrekin.
3. Artu eizu, yan egizu, ogi bizi yanaria:  
Sartu zaite, ase zaite, neure Odol gurgarrian,  
Sartu zaite, garbi zaite, sayetseko ur garbian.
4. Erne zaite biotzean, neure Jaungoiko maitea,  
Ez alde egin nigandikan, yosi Zu nire errayetan.  
Beti beti, bat egiñik orain eta zeruetan.

### ZUGAZ BIZI NAI DOT (Ar. 43)

(Cerca de Ti, Señor)

1. Zugaz bizi nai dot, Jesus ona,  
Zuk berotu daizun nire biotza.  
Illun nago beti Zugaz izan ezik,  
Ez dot gura beste maitetasunik.

2. Nere biotzera eldu zaitetz,  
Biok alkarrekin bizi gaitezen.  
Bete naizu beti Zure Gorputzakin,  
Atsegindu naizu Zure Odolakin.
3. Ai! Noz ikusiko Egun argi:  
Zeru ederrean Zu nire eguzki,  
Begira ni Zuri, zorioneko beti,  
Biok beti maite Zu eta ni.
4. Agur, nire Jesus, maite zaitut:  
Bizitz egarrri naz, ase nagizu.  
Zure Gorputzagaz, Zure odolagaz  
Arin yoango naz Zerura egaz.
5. Agur, neure Jesus, Agur, Agur.  
Ementxe naukazu Zure lagun  
Zeru goi-goyean ikusi nai zaitut  
Bizitz ondorean yaso nagizu.

### GORATU JAUNGOIKOA (Umientzat)

Goratu Jaungoikoa, bedeinkatu Jauna,  
Zeruan aingeruak, lurrean gizonak.

1. Sinisten dot zaozala, Jesus altarean  
Nik artu gura zaitut nire biotzean.
2. Parkatu, Jesus ona, damuturik nago.  
Nire pekatu danak garbitu geyago.
3. Nire biotz guztiaz zaitut, Jauna, maite.  
Geyago maitatzea, beti gura neunke.



## KRISTO | ERREGERI

### ALLELUIA

Aleluia, Psálite Deo nostro psálite  
Aleluia, Psálite Regi nostro psálite,  
Aleluia, aleluia.  
Aleluia Quoniam Rex omnis terre Deus  
Aleluia. Psálite sapientes.  
Aleluia, aleluia.  
Aleluia. Iubilare Deo omnis terra,  
Aleluia. Exultate et psálite.  
Aleluia, aleluia.  
Aleluia. Quoniam in eternum,  
Aleluia. Misericordia eius.

### KRISTUS VINCIT

**Kristus vincit, Kristus regnat,  
Kristus, Kristus imperat.**  
(Ioanni) Summo pontifici  
et universali Pape,  
Pax, vita et salus perpetua.  
Tempora bona veniant,  
Pax Kristi veniat,  
Regnum Kristi veniat.  
Adoramus te, Kriste, et benedicimus tibi,  
Quia per sanctam crucem tuam  
redemisti mundum.

### KRISTUS VINCIT (Ar. 107)

**Kristus vincit, Kristus regnat,  
Kristus, Kristus imperat.**

(Euzkeraz).

**Kristo nausi, Kristo errege,  
Kristo, Kristo Jaun ta Jabe.**  
Laudate Dóminum omnes gentes  
Laudate eum omnes pópuli.  
Quoniam confirmata est super nos  
Misericordia eyus,  
Et véritas Dómini manet in eternum.  
Gloria Patri et Filio

(Plana 77)

### KRISTO JESUS

Kristo Jesus, betor zure erreñua  
Zu bakarrik, zara gure nausi.  
Zure odol ta nekaldi garratzaz  
Gurutzean, ginduzun erosi.  
**Agur zeru ta lurren Yabe,  
Zu zara gure erriko buru ta errege;  
Zu gure lendakari betiko izan zaite.**  
Kristo Jesus menperatu egizuz  
Maitasunez zure etsai guztiak,  
Zure alde bizitza emoteko  
Gertu gagoz Zure gudariak.  
**Agur zeru ta lurren Yabe...**

### KRISTO NAUSI (Ar. 109)

**Kristo nausi, Jaun ta Yabe,  
Kristo Errege.**  
**Bere ikurriña; Garaitza berak daroa,  
(Kristo errege).**

Kaleak zear zabiz, ospetsu garraille,  
Didar-didarka danok : Gora gure Errege.  
Bildur barik sartu burrukan ta aurrera,  
Lenago il, ez ñoz egin atzera.

(Vellido, Bilbao)

### KRISTO GURE ERREGE (Ar. 110)

**Kristo gure Errege, agurtu dagigun**  
**Zeru lurren Yabe, autortu dagigun.**

Fede bizi baten — Danok ernai  
Zureak gara gu, — O Jesus bai  
Ez beste yaberik, — Ez dogu nai.

Jesus'en izena, — Gaur abestu.  
Bere aintza beti, — Bai zabaldu.  
Erreiñu danetan — Gora Jesus.

### KRISTORENAK (Ar. 111)

Kristorenak, Kristorenak gara,  
Kristorenak betiko izango gara.

1. Kristorenak zirean gure gurasoak,  
Baita bere euzkaldun ben-benetakoak.
2. Kristorenak gara gu, Bera da nagusi,  
Aren menpean beti, gura dogu bizi.
3. Kristo ta Ama Maria dira guretzako  
Maiterik maiteenak gaur ta betirako.

### ENTZUN, JAUNA (Ar. 108)

Entzun, Jauna, entzun Jauna, gure erregua,  
Betor, betor guregana  
Zure yabetasun gozua.  
Erdi Jesus laztana, erdu gure Errege,  
Euskal-erriak gura zaitu bere Errege.  
Erdi, Jesus laztana, Erdi gure errira,  
Zurreak euskaldunak beti izango gara.  
Bai, izango da Errege Jesus gure errian,  
Yarriko dau inperua ofiazpian.  
Emon dagigun gaurtikan, bai,  
Oyu au gogor ta alai,  
Jesus'en Biotza, bai, beti gurekin bizi begi.

(Mola Pérez. 145)

### ERREGE ZARA ZU (Ar. 223)

Errege zara Zu armarik bage,  
Gurutzean egin zara biotzen jabe,  
Gure Jesus, gure Jesus.  
Zeure jayotzetik edertasuna  
Dariozula zagoz ta maitetasuna  
Biotzetik, biotzetik.  
Lege bat badozu eta ze legea!  
Maitasunezko gozo bardin bagea.  
Jesus!, gure Jesus! Errege zaitugu  
Amai maitea dozu Ama Birjiña,  
Zu errege zaran lez, bera Erregiña.  
David'en Seme zindun Belen'en sortu  
Ta munduak Errege zaitu autortu,  
Gure Jesus, gure Jesus!

(R. P. 14)



## JESUS'EN BIOTZARI

### COR ARCA (Ar. 91)

1. Cor, arca legem cóninens,  
Non servitutis véteris,  
Sed gracie, sed venie,  
Sed et misericordie.
2. Cor, sanctuarium novi  
Intemeratum federis  
Templum vetusto sancius  
Velumque scisso utilius.
3. Te vulneratum cáritas  
Ictu patienti voluit,  
Amoris invisibilis  
Ut veneremur vúlnera.
4. Quis non amantem rédamet?  
Quis redemptus diligit  
Et corde in isto séligat  
Eterna tabernácula?
5. Decus Parenti et Filio,  
Sanctoque sit Spirituí,  
Quibus potestas, gloria,  
Regnumque in omne est séculum.  
Amen.

### AGUR JESUSEN BIOTZ GOZOA

Agur, Jesus'en Biotz gozoa,  
Euzkal biotzen zoragarria,  
Sartu ta gorde ortxe betiko  
Seme zintzo ta maitalaiak.

Judea'n zeukan Erri autuak  
Egurran josten zindutenean,  
Zure begiak eta biotza,  
Esar zenduan Euzkal-errian.

### JESUS'EN BIOTZA (Ar. 100)

Jesus'en biotza maitari gozoa,  
Zorion osoa Zurekin daukat.  
Zu zara poza ta Zu nire atsegiña,  
O Jesus biguña, ni naz Zuretzat.

Jesusen Biotza daukagu suturik  
Maitasuna agertzen alde guztitik.  
Nok euki legike ain biotz gogorrik  
Biotz onen suan urtuko ez danik.

(R. P. 28)

### JESUS LAZTANA (Ar. 101)

Jesus laztana, Maitasun utsa,  
Izan zakidaz poz ta bizieta.  
Arantzaz eta odol tantaka  
Maitasuna agertzen dauskuzun, Jesus,  
Txinpartaka gozun biotzera  
Zure artaldea eldu bekizu.  
Maite egarriz dagozan bildotsak  
Urik garbiena Zuregan dauke.  
Eldu bekizu ariñak arin  
Egarri Larriak asetutzera.

(Erviti S. S.)

### O BIOTZ SANTU (Ar. 97)

O biotz Santu maitatia,  
Zu gure Errege, Jaun andia.

1. Emen naz Jesus, zure ondoan  
Sagrarioan maite zaitut.  
Mundutik iges nator Zugana  
Ementxe, Jauna, bizi nai dot.
2. Zu zara, Jesus, Maite maitea,  
Nire yabea eta Jauna.  
Betiko nai dot, Jesus maitea  
Zu maitatzea biotzetik.

(Plana 82)

### O BIOTZ GOZO (Art. 106)

**O biotz gozo Jesusena  
Gure biotzen gozamina.  
Jesus onaren Biotz ona  
Erruki zaitetz gutzaz, Jauna.**

1. Gugaitik zagoz zauritua  
Gogor arantzaz koroitua,  
Ta gurutzean untzatua  
Guztia miñez samindua.
2. Ainbesteraño nozu maite.  
Biotza eskintzen zagoz ortxe.  
Jesus maitia bai nik bere  
Zuri erantzun gura neunke.
3. Maitezko labe goritua,  
Maitasunean sugartua:  
Sutu egizu gaur mundua,  
Gizonen biotz izoztuak.

(Arantzazu)

### JESUS'EN BIOTZ (Ar. 97)

**Jesusen Biotz maitetsua  
Zu zara gure Jaun altsua.**

Sututa zagoz beti gizonen  
Naiz gaiztoenen errukian.  
Zegaitik, Jauna, sugar biziak  
Dozuz itxiak biotzian?

Erdu gugana Jesus maitea,  
Zure erreñua ekartzera.  
Zu zara gure Errege, Yaube;  
Zuk barik bizi ezin gara.

### NIK GOGOZ (Ar. 103)

Nik gogoz gurtzen zaitut  
Jesus'en Biotz ona,  
Zeru eta lurrean dan  
Biotzik onena.

Egizu, O Jesus'en  
Biotz guztiz maitea,  
Gero eta geyago  
Nik Zu maitatzea.

### GABONETAKOAK

Adeste fideles, leti triunfantes;  
Venite, venite in Betleem.  
Natum videte Regem angelorum.  
Venite, adoremus, venite, adoremus.  
Venite, adoremus Dóminum.



En grege relicto, húmiles ad cunas,  
Vocati pastores appróperant.  
Et nos ovanti gradu festinemus.

Eterni Parentis splendorem eternum,  
Velatum sub carne vidébimus:  
Deum infantem pannis involutum.

(Plana 218)

#### **ADESTE FIDELES** (Euskeraz)

Zatoze kristauak biotzak pozturik,  
Zatoze guztiok Belenera.  
Jayo dan Ume Jesus ikustera.  
Jauna gurtu dagigun (Bi)  
Jauna gurtu dagigun auzpezturik.

Ardiak itxita datoz artzain onak,  
Zerutik deituak estalpera.  
Guazen gu bere eurakin batera.

Gure maitasunez askatxo batean,  
Otzik dardar zaozan Jesus ona.  
Erdugugana, Umetxo laztana.

#### **RESONET IN LAUDIBUS** (Ar. 71)

Resonet in laudibus  
Cum yucundis plausibus  
Sion cum fidelibus.  
Apparuit, apparuit  
Quem genuit Maria.

(R. P. 35)

#### **RESONET** (Euskeraz)

1. Gora, gora, gora otsegin,  
Alaitasun ta txaloakin  
Guztiok poztu eragin  
**Agertu da Jaungoikoa**  
**Mariagandik sortua.**
2. Gazteok danok abestu:  
Yayo barria goraldu  
Ago batez aintzatu.
3. Izan bedi onetsia  
Gizonen salbatzalea,  
Obenen kentzalea.

#### **AINTZA AINTZA** (Ar. 77)

**Aintza, aintza zeruetan**  
**Jaungoiko aundiari.**  
**Eta bakea lurrean**  
**Gogoz zintzo danari.**

1. Aur txikitxo ta polita  
Yayo yaku Belen'en.  
Guazen, guazen guztiok,  
Guazen danok lenbailen.
2. Nork lurrera yatsi zaitu,  
Zeru ta lurren Yabe?  
Zelan zagoz kutun ori,  
Iñon laguntza bage?
3. Yayo berri dar-dar dago  
Jesus otzikaragaz.  
Nai daualako berotzea  
Gure musu laztanaz.

(Karmel. Gazteiz)

## AUR EDER BATEN BILLA

Aur eder baten billa gabiltza zorutzen,  
Izarrak esan dausku jayo dala emen.  
Jaungoikoaren erri, maite Jerusalem,  
Esan eiguzu laster Jesus non jayo den.

Estalpe zar batean dago otzez dardaraz,  
Laster nai dogu Jesus berotu arnazaz.

(Seminario, Gazteiz 21)

## BELENEN SORTU YAKU (Ar. 78)

1. Belen'en sortu yaku Jainkoa  
Arratseko gaberdian.  
Otzez dardaraz dago gaixoa,  
Lasto piskaren gañean.  
Arnasa beroz berotu daigun  
Apa emonaz mosuan.
2. Maitasun sutsuz maite dot ama,  
Ni sortu ninduelako.  
Baña Ume au maiteago dot  
Nigaitik jayo dalako  
Ta gurutzean gero odol Deuna  
Ixuriko dabelako.

(Plana 197)

## BIRJIÑA MAITE (Ar. 74)

Birjiña maite, lotan dago  
Zure Semetxo Laztana  
Seaskatxo bat ipiñiozu  
Gure biotzen kutunai.

1. Ongi, bai, ongi igaro daizan  
Gabak eta egunak.  
Poliki, poliki eragiozu,  
Egin dezan lo ona.
2. Zeru goi-goitik gugana dator  
Gure Jesus laztana.  
Lasterka-lasterka goazen, kristauok  
Gure Jaunarengana.

## AINGERU BATEK DIÑO (Ar. 82)

1. Aingeru batek diño goi-gora basoan,  
Aurtxo bat yayo dala bart gure auzoan.  
Berari zorionak daiguzan eskatu,  
Aurrari bear dogu, ederki abestu.
2. Ez ete zan, Maria, orduan artzañik,  
Jesus agurtutzero leyatuko zanik?  
Bai, artzañak nebazan orduan ikusi,  
Eta euren biotz onak nebazan onetsi.
3. Esaiguzu, Matia, ba'zan Erregerik  
Zure Seme Jainkoa ikusi ebanik?  
Iru Errege ziran urrundik etorri  
Eta beren emaitzez eben ederretsi.

(Seminario. Gazteiz 21)

## GAU ZORAGARRIA

Gau zoragarria! Zerutiko argia,  
Gaberdez yatsia, Gizonen pozgarria!  
Aingeru taldia kantuz da asia:  
Eguzki bizia, Jesu da yatsia,  
Argituz gaberdia.

(M. Etxaniz)



## GABAREN ERDIAN

**Gabaren erdian Jesus yayo da,  
Alaiki ta bizkor goazen Belen'a.**

Illuna dago ez da agiri izarrik,  
Baña nik ez dot argi bearrik.  
Zu nire argia, Jesus maitea,  
Non biila Zu baño Argi obea?

(Seminario, Gazteiz, 29)

## GAUR DOGU, KRISTIÑAUAK

Gaur dogu, kristiñauak, goi ta lurren yaya.  
Goazen, bai, Belen'era Jesus yayo da ta.  
Aingeruak dabiz an, abesten egazka,  
Pozez zoraturikan artzañak saltoka.

(Seminario, Gazteiz, 22)

## GURE POTXOLO

1. Gure potxolo, gure Jesustxo,  
Begiak zabalik or askan dago.  
Amak lo eiteko abesten dautso:  
Lo lo neure maite lo lo potxolo.  
Baña otz dardaraz ezin egin lo,  
Ta bere amatxo negarrez dauko.
2. Gure potxolo, gure Jesustxo,  
Ama poztutzeko egin laster lo.  
Lo egiten dauan ume zintzoak  
Inguruan ditu aingerutxoak,  
Ekarriko dautzuz koko goxoak  
Ta egaz eiteko urrezko egoak.

3. Gure potxolo, gure Jesustxo,  
Begiak itxita lo ta lo dago.  
Amesetan dago gure potxolo,  
Gu maite gaitula beti geyago,  
Nik be maite zaitut neure Jesustxo,  
Egon gura neunke Zugaz betiko.

Txalopin txalo, txalopin txalo,  
Gure Jesus umea or askan dago,  
Txalopin txalo, txalopin txalo,  
Gure Jesus polita lo ta lo dago.

(kanta-kantari. N. Etxaniz)

## IZAR BARRIAK

Izar barriak poztu  
Dausku gaur Belen aldea.  
Gaberdi izan arren, argi da estalpea:  
Lastotan etzunda agiri da  
Jaungoikoaren Semea.

(N. Etxaniz)

## JESUS UMIA

**Jesus Umia, polit ederra  
Lasto tartean ikara.  
Gabon dalako negu gogorra,  
Or dago geuri begira.**

1. Zer gura dozu, potxolotxua;  
Nik emondako lastana?  
Gurago dozu biotz gartsua,  
Nire maitasun sakona.

2. Irri barretxo eztsitu deuna  
Egiten dautzu zure Amak.  
Izan gura dot zure laguna,  
Laztandu naizu pitin bat.
3. Ez negarrik egin, maite maitia,  
Ixildu zaitez, kutuna,  
Onduan dozu Ama Maria,  
Maitasun bero biguna.

### JESUS MAITEA

1. Jesus maitea lo gure dago,  
Seaskan ain zoragarri!  
Aingerutxoak kantari dagoz  
Lo eragiñaz Aurrari.
2. Loak artu dau. Aingerutxoak  
Egaz dabiz inguruan:  
Ixil ixilik makurtu eta  
Laztanten dabe mosuan.
3. Amesetan da Jesus maitea,  
Irri barrez bere españak:  
Bera ikusteko zabaldu ditu  
Zeruko atea Jaunak.
4. Itxartu da. Oi, Bere begiak  
negarrez betetzen yakoz.  
Aingeru batek urrezko ontzian  
Malkoak artuten dautsoz.

(N. Etxaniz)

### GAU OSKARBI (Noche de Dios)

1. Gau oskarbi, Izar argi,  
Zerutik da etorri:  
Jainkoaren Seme yayo barri,  
Aingeru danen poz iturri:  
Gogo oneko gizonei,  
Bakea dautse ekarri.
2. Guazen danok Belen'era,  
Artzañakin batera,  
Jainkoa lastotan ikustera,  
Esku txikiak laztantzera:  
Gure Jesus maiteari  
Biotza eskintzera

(N. Etxaniz)

### JESUS ASKATXOAN (Ar. 81)

#### (Noche de Dios)

1. Or nun dogun askatxoan  
Aurrik ederrera,  
Gu salbatzera datorrena  
Gu salbatzera datorrena.  
Egin dezaiogun ba  
Agurrik beroena.
2. Aurtxo txiki, aurtxo maite,  
Lastotan etzuna,  
Gure Jesus laztan-laztana.  
Gure Jesus laztan-laztana.  
Asto ta idien askan,  
Zeruko gure Jauna!



## MESIAS SARRITAN

Mesias sarritan agindu zana  
Aingeru artean dator gugana.  
Gloria zeruan, bakea emen,  
Kantari aingeruak dagoz Belen'en.

Belen'go portalian negu gogorrean,  
Yago da gure Jesus askatxo batean.  
Estalpe barik dago abere artean,  
Gutziz altsua dana zeru ta lurtean.  
Antxe dago gure Jesus; antxe dago, bai.  
Aurtxo txikia azkan dago,  
Amak esautso lo eiteko.  
Baña aurtxoak begiak  
Esaten deutso: Ama, ezin.

### OI BETLEEN! (Ar. 84)

1. Oi Betleen etorri da zure garaia.  
Oi Betleen!  
Ongi, bai, dau dizdiratzen,  
Zugandik eldu dan argiak;  
Betetzeitu bazter guztiak  
Oi Betleen! oi Betleen!
2. Artzaiñekaz eldu naz Zugana leiaz  
Artzaiñekaz  
Arek lez egin naz.  
Adoratzen zaitut, Mesias,  
Eta maite biotz guztiaz,  
Artzaiñekaz, artzaiñekaz.

## GABIZUMAKOAK

### AGUR DOLOREZKO AMA

1. Agur Dolorezko Ama larritua  
Erregiña laztan errukiz urtua.  
**Artu gaizuz, Ama, seme nekatuok.**
2. O Rakel ederra, nekez asetua,  
Gu semiok gagoz negarrez urtuak.
3. Zure biotzeko ezpata sutsuak  
Sartu izan a dautzuz gure pekatuak.
4. O Ama biguna, O errukitsua  
Arren izan gaitetz zeruan sartuak.

### DAMU DOT JAUNA (Ar. 190)

Damu dot, Jauna, biotz guztitik  
Zu naigabetu izana,  
Ez, ez geyago pekaturikan  
Neure Jaungoiko laztana.  
Miñaren miñez, Jesus maitea,  
Daukat biotza lerturik,  
Ikusirikan neure bizitza  
Dana pekatuz beterik.

Zure oñetan orain naukazu,  
Begi biotzak urtutzen,  
Barru barruko negarrarekin  
Parkaziñoa eskatzen.

(Mola Pérez, 42)

### ERDU PEKATARIA (Ar. 188)

Erdu pekataria  
Erdu eleizara.  
Jaungoikoaren berbia  
Gogoz entzutera.

1. Ez egon pekatuan, ez egon luzaro,  
Damu izan ez daizun alperrikan gero.
2. Pekatuen neurria bete ez dagizun  
Aditu Jaungoikoak zer esaten dautzun.
3. Gurutz gañetik Jesus or daukazu deyez:  
Itxi bide gaiztoa ta damutu zaitez.

(Plana 210)

### JESUS, ESKATZEN DAUTZUT

Jesus, eskatzen dautzut,  
Nik parkasiñoa,  
Lotsaz beterik nator  
Guztiz damutua.

1. Emen naukazu, Jauna, negarrez urturik  
Neure pekatuakaz ondo damaturik.
2. Jesus, eskatzen dautzut biotz biotzetik  
Bedeinkatu naizula gurutz orretatik.

### JESUS GURE JAUN MAITE (Ar. 192)

Jesus, gure Jaun maite atsekabetua  
Damu dogu guztiok Zu naigabetua.  
Josirik ikustean gurutz orretan Zu,  
Errukiz, ai, biotza nok urratuko ez dau?  
Baita baleuko bere arri biurtua:  
Damu dogu guztiok Zu naigabetua.

(Mola Pérez, 43)

### PARKA EIGUZU, JAUNA (Ar. 197)

Parka eiguzu, Jauna,  
Parkatu, bai, guri,  
Parkatu, Jesus ona,  
Pekatariari.

1. Lotsaz autotzen dautzut neure pekatua  
Jesus, Zugana nator oso damutua.
2. Ni naz gurutz orretan Josi zaitudana  
Ni iltzea or bertan merezi nebana.

(Mola Pérez, 94)

### NOIZ ARTE BEAR DOZU (Ar. 208)

1. Noiz arte bear dozu egon pekatuan  
Ikusirik zaozala ia inpernuan?  
Damuz begiraturik, arren, arimari  
Bigundu, kristiñaua, biotz gogor ori.
2. Jesus agertzen yaku dana urratu-  
rik Odola dariola gurutzeraturik,  
Ni naz, o Jesus ona, zure iltzallea  
Damu dot milla bider Zu naigabetua.
3. Emen naukazu, Jauna, negarrez urturik,  
Neure erru guztiaz oso damaturik.  
Jesus eskatzen dautzut biotz biotzetik  
Bedeinkatu naizula gurutz orretatik.

### PEKATARI GAIZTOA (Ar. 196)

Pekatari gaiztoa erdu Jesus'egana  
Josirik emen daukazu begira zeuregana.



Erdu, erdu neure arima  
Kalbario goi mendira  
Gurutze ta Jesus dira  
Deyez daukazuz begira.  
O Jaungoikozko sutzarra  
Bular gozoarena  
Adituizu zer dirautzun  
Zein maitetsua yatzatzun.

### PEKATARIOK AMA (Ar. 193)

1. Pekatariok Ama Birjiña zaitugu.  
Zugan gure biotza guk ipintzen dogu.  
**Egizu Zuk Maria gugaitik erregu**  
**Eriotzako orduan ez gaitezen galdu.**
2. Zure izen santuak lagundu bekigu  
Zure biotz onean itxaroten dogu.
3. Pekatarien Ama samurra zara zu,  
Arren zure semetzat Ama artu nagizu.

### ZERURA, GAGIZUZ, AMA (Ar. 201)

**Zerura gagizuz, Ama,**  
**Zeruratu gagizuz,**  
**Gure uste ta itxaropena,**  
**Ama zugan daukaguz.**

1. Bidez nago mundu ontan  
Ez naz emen betiko,  
Emen beti ilten nago, ta,  
Zeruan naz biziko,  
Antxe beti biziko.

2. Jaunak egin ginduzan bein  
Betiko zerurako  
Bidean galtzen ba'gara  
Barriz, inpernurako  
Betiko inpernurako.
3. Noz ez dakigu baña bai  
Bein gareala ilgo  
Orduan galtzen ba'gara  
Galduak gu betiko  
Galduak, bai, betiko.

### KRISTAU IKASBIDERAKO

**Jaungoikoaren legea kistar ikastea da**  
**Ta Bera betetzea zerurako bidea.**  
**Beti zorientsu izan nai ba'dogu**  
**Legea ikasi te bete dagigun.**

Yesu'k bere ikasleiei esan eutsen:  
Itxi umiei Niganatzen  
Jesukristo'k maite maite gaitu,  
Guk bere Jesus bardin maite izan dagigun  
Maite izan dagigun.

**Guazen dotriñara guazen batera,**  
**Or geratu barik iñor atzera.**

1. Danok bear dogu, arin ta pozik  
Dotriña Santua laster ikasi.
2. Dotriña ikasita bizitza ona,  
Au da zerurako bide zuzena.
3. Jesus Umetxoak gu maite gaitu,  
Guk e bear dogu, Jesus maitatu.
4. Jesus ta Maria ta Jose Deuna,  
Beti izango dira gure lagunak.

## ANDRA MARIA'RI

Ave Maria, grazia plena, Dominus tecum,  
Benedicta tu in mulieribus,  
Et benedictus fructus ventris tui, Jesus.  
Sancta Maria, mater Dei,  
Ora pro nobis peccatoribus,  
Nunc et in hora mortis nostre. Amen.

## SALVE REGINA

Salve Regina, Mater misericordie,  
Vita, dulcedo, spes nostra, Salve.  
Ad Te clamamus éxsules filii Eve.  
Ad Te suspiramus gementes et flentes  
In hac lacrimarum valle.  
Eia, ergo, advocata nostra,  
Illos tuos misericordes óculos  
Ad nos converte.  
Et Iesum benedictum fructum ventris tui  
Nobis post hoc exilium ostende.  
O Clemens, o pia,  
O dulcis Virgo Maria.  
**Ora pro nobis, Sancta Dei Genitrix.**  
Ut digni efficiamur promissionibus Cristi.

## TOTA PULCRA ES MARIA (Ar. 131)

Tota pulcra, es Maria.  
**Tota pulcra, es Maria.**  
Et mácula originalis non est in te.

**Et mácula originalis non est in te.**

Tu gloria Ierúsalem.

**Tu letizia Israel.**

Tu honorificencia pópuli nostri.

**Tu advocata peccatorum.**

O Maria!

O Maria!

Virgo prudentíssima.

**Mater clementíssima.**

Ora pro nobis.

**Intercede pro nobis ad Dóminum  
Iesum Cristum.**

(Plana 104)

## SALVE REGINA CELITUM (Ar. 126)

Salve Regina célitum,  
O Maria.  
Sors única terrigenum,  
O Maria.  
Yubilate Kerubim,  
Exultate Serafin,  
Consonate perpetim.  
Salve, salve, salve Regina.

Mater misericordie,

O Maria.

Dulcis parens clemencie,

O Maria.

Yubilate Kerubim...



## AVE MARIS STELA

1. Ave maris stela,           Agur Jainkoaren  
  Dei Mater alma,        Ama maite ederra,  
  Atque semper virgo     Zeruko atea,  
  Felix celi porta.        Itxasoko izarra.
2. Sumens ilud Ave        Gabirel'egandik  
  Gabrielis ore,         Agurra entzunik  
  Funda nos in pace,     Igzuzo bakea,  
  Mutans Heve nomen.    Etsaiak goiturik.
3. Solve vincla reis,     Itsuak argitu  
  Profer lumen cecis,    Lotuak azkatu,  
  Mala nostra pele,      On danak emon ta  
  Bona cuncta posce.     Gaiztoak ondatu.
4. Monstra te esse matrem   Zuk gure otoitzak  
  Sumat per te preces,    Ama erakutsi,  
  Qui pro nobis natus     Zugan guregaitik  
  Tulit esse tuus.        Gizondu zanari.
5. Virgo singularis,     Birjiña ederra  
  Inter omnes mitis,     Ezti gozoena,  
  Nos culpi solutos      Zuk egin nagizu  
  Mites fac et castos.    Garbi ta biguna.
6. Vitam presta puram     Bide zuzenetik  
  Iter para tutum,        Ibilten lagundu,  
  Ut, videntes Yesum,    Il ondoan Jesus  
  Semper colectemur.     Erakutsi eiguzu.
7. Sit laus Deo Patri  
  Summo Kristo decus  
  Spiritui Sancto,  
  Tribus honor unus.

## SALVE MATER MISERICORDIE (Ar. 125)

Salve mater misericordie,  
Mater Dei et mater venie,  
Mater spei et mater grazie,  
Mater plena sancte letizie.  
  O Maria,  
Salve decus humani géneris  
Salve Virgo dignior céteris,  
Que virgines omnes transgrederis  
Et alzius sedes in súperis  
  O Maria.

(R. P. 6)

## SALBEA (Ar. 163)

Agur, Erregiña, — **Ama errukiorra.**  
Gure bizitza, gozotasun eta itxaropena,  
  **Agur (Ama).**  
Zuri deyez gagoz,  
**Eba'ren ume erbestetuok.**  
Antziz eta negarrez — **Gatorkizuz.**  
Negar erri onetan.  
**Ea bada,** — Gure bitarteko Andrea.  
**Zure begi errukitsu orreik,**  
Gugana biurtu egizuz.  
**Eta erbeste onen ondoren**  
Erakuskuzu Jesus  
**Zure sabeleko** — Seme onetsi ori,  
**O biotz bigun!**, — O errukior,  
**O Maria Birjiña dozoa!**  
Gure alde — **Otoi egizu.**

Jaungoikoaren Ama Done orrek,  
**Jesukristoren agintzariak**  
Jadetsi daikeguzan.  
**Amen, Jesus.**

(Vellido. Bilbao)

**AGUR, AGUR AMA (Ar. 296)**

(Arrateko Ama)

1. **Agur, agur Ama.**  
(Arrateko Ama).  
**Gure Amarik onena.**  
**Gure erri dana**  
**Artu ta zaindu, Ama.**  
Zure Semeoi eskerrak  
Jadetsi eiguzuz:  
Danok zerura juan gaitezen  
Ama egizu.
2. Agur, agur Ama,  
Gure biotza zarana,  
Gure erri dana  
Guk dakargu zugana.  
Agur, ene Ama.  
Zeru goitik zatozena.  
(Arrate'tik zatozena).  
Gure erri dana  
Zurea betiko egitera.

**AGUR JESUSEN AMA (Ar. 133)**

1. Agur Jesusen Ama — Birjiña maitea,  
Agur itxasoko izar — Dizdiratzallea,  
Agur zeruko eguzki — Poz utsez betea,  
Agur pekatarien — Kaya ta estalpea.

2. Agur gizonen Ama, — Zeruko Erregiña,  
Ama gozo ta maite — Oberik eziña;  
Zugandik joatea — Gauza da samiña;  
Agur neure biotzeko — Poz eta atsegiña.
3. Bañan Zugandik alde — Biotzak ezin dau,  
Zugana berez doa, — Zugan bizi nai dau:  
Birjin bardingabea, — Onetsi nagizu,  
Agur Ama neurea, — Agur, agur, agur.

(Plana 185)

**AMA EDER (Ar. 143)**

(Dulce Madre)

Ama eder, garbi-garbi,  
Ama maite kutuna,  
Zuretat nere biotza,  
Ta nere maitasuna.  
Zu maitez bizi nai dogu,  
Zuri beti abesten.  
Egizu, Ama, zureak  
Betik izan gaitezen (Bis).  
Lagun zaiguzu, arren, ama ona!  
Ai, begiratu eriotz orduan.  
Ama maite, beti beti,  
Zurekin nai dot zeruan.  
Axe bai zoriona (Bis).

**AMA MAITE MARIA (Ar. 171)**

- Ama maite Maria, egiguzu lagun,**  
**Zure bitartez Jesus ikusi dagigun.**
1. Aingeruzko lirio txit edergarria,  
Usain gozozko lore zerutik jatxia:  
Gorde nagizu, Ama, guztiz maitatia,  
Ez dagidan zikindu onbide garbia.



2. Zure koroï ederrak ugarituzeko  
Arren eskatzen dautzut Zuk lagunduteko,  
Erdue bai gazteak zeruratuzeko  
Birjiña deyez dago berana joateko.

### AMA MARIA IZTEN ZAITUT (A. 149)

**Ama Maria izten zaitut,  
Ama laztana, agur, agur.**

1. Zure aldetik urrintzean  
Biotza izten dot zure eskutan:  
Betik zurekin nai dot bizi,  
Baita Zurekin il maiteki.
2. Pekaturako dei zitala,  
Ama, aitu ez dagidala!  
Ta arriskueta aurkitzean,  
Artu ni zure babesean.

### AMA NAI DOT (Ar. 130)

(Quiero Madre)

Ama, nai dot zure besoetan  
Umetxoak bezela lo egin.  
Ta magal bero biguñ orretan  
Maite nozula egin amesetan  
Eta gero il.

Lo goxoan antxe nengoala,  
Esan eustan ixil-ixilik:  
Zerura eroango nauala,  
Ta erantzun neuntzan bereala:  
Ama, Ze pozik!

Negarrez zure altzoan nago  
Ama, biotza urraturik,  
Esan nai dautzudala: geyago  
Barriz Zu mindu baño lenago  
Milla bider il.

(Iruarrizaga, vol. II, 153)

### AURRERA (Ar. 173)

Aurrera kristau fedez beterik,  
Aurrera Maria'rengana.  
Aurrera, bai, gaur eskeintzera  
Danok biotz eder bana.  
Begira an gure Ama,  
Begira zeñ ederra dan.  
Ez da jatxi Ama oberik,  
Zeru goitik Lurrera.  
Gure Ama biotzekua  
Munduaren erdian  
Erregiñ koroiatua ikusi artean.  
Gerra beti, gerra bizia  
Gure etsai gogorrakin,  
Su ta gar badatoz ere inpernu baltzakin.  
Zu izango zara,  
Zu izango zara, Ama, bai,  
Euskaldunen erregiña,  
Gure errien atsegiña.  
Beste Amarik ez dogu nai.  
Entzun begi, entzun begi, deabruak,  
Zure oñazpian zapalduak.  
Gogor beti, gogor etsaiari,

Gora Maria, bai. Entzun begi...  
Gora Mariari.  
Aurrera, bai, ta aurrera beti,  
Kristiñau euskaldunen fede sutua,  
Aurrera, bai, gurekin dator  
Ama Birjiña garbi sortua.

### AMA, BIRJIN MAITEA

1. Ama, Birjin maitea,  
Jaunaren Ama ta neurea  
Ama!, itxasoko izar,  
Zu zara gure zaindaria.  
**Agur Maria, Agur Maria**  
**Sortzetik garbi garbia.**  
(Begoña'ko Birjiña maite)  
(Gure Ama izan zaite).
2. Ama!, pekatariok  
Zure ofietan auzpezturik,  
Ama!, emen gaukazuz,  
Biotz biotzez damuturik.
3. Ama guztiz garbia,  
Gure zaindari maite-maite  
Ama!, Begoñakoa,  
Gure laguntza izan zaite.

### AGUR, AMA (Ar. 290)

(Salve, Madre)

**Agur, Ama; maitasun eguzki argia,**  
**Emen gaukazuz danok Zu maitatzen.**  
**Gure Erregin bikaña, maitagarria,**  
**Guretzat, izan goyan izar argia,**  
**Zeruraño eldu gaitezen zuzen.**

Ama garbi, Ama ona,  
Zugan dot itxaropena,  
Amatxo biotz biguna.  
Neure Ama, Jesus'en Ama,  
Nire bizia dan arte,  
Ez zaidala nik aztu.  
Iñoz aztuten ba'zaitut  
Ama ona, Ama ona,  
Iñoz aztuko ba'zindut  
Zu ez aztu nitzaz, Ama.

(Plana 258)

### BEGOÑAKO AMA

**Begoña'ko Ama samur maitea,**  
**Izan zaite gutzaz zeru bidea.**

- 1 Begoña'ko Birjiña,  
Bizkaiko Erregiñ.  
Jainkoaren Ama,  
Zuregana datorren  
Erri oneri egor,  
Abegi onena.
2. Eleiza onetara,  
Igon eben asabak.  
Ama ikustera,  
Gure Amak onaxe,  
Umetxotan ekarriz,  
Zuri eskintzera.

### BIZKAIKO SEME LEIALAK (Ar. 266)

Bizkaiko seme leialak,  
Otoitz ordua eldu jaku:  
Gure Begoña'ko Amari,  
Biotza eskiñi daiozun.  
Itxaso eta lurrean  
Maitasunez zaintzen gaitu  
Begoña'ko Ama biguna,  
Zure onespena emoiguzu.



### EDERTASUN GUZTIAZ (Ar. 263)

Edertasun guztiaz, ziñalako sortu,  
Lurbira ta zeruak, goratuzten zaitu.  
Jatorrizko erruak, ezinduan loitu,  
Sortzez ain garbi eder, bakarrik zara Zu.

Zeru garbi urdiña, da zure irudia,  
Izar eder-ederrez, biziro josia:  
Ainbat donetasunez zauzela jantzia,  
Sortze bertatik, Ama, osoro garbia.  
Agur, agur, agur Maria,  
Agur, agur guztiz garbia.

### ETXEAN BA-DOT AMA

Etxean ba-dot Ama — Jainkoak emona,  
Zeruan beste Ama — Maria laztana.  
Bi ama, ta bietan — Maria onena:  
Bien eskutik noa — Ni Jesus'engana.

(N. Etxaniz)

### EUSKALDUNEK (Kantikak 183)

1. Euskaldunek, o Birjiña Maria,  
Maitasunez, goratzen zaitugu  
Ain zara on, altsu, miragarria,  
Ezin esan zein eder zeran Zu.

**Zu zaitugu, Ama ona,  
Euskaldunen Erregiña.  
Gure alde, otoi Jauna,  
Eta emon zoriona.**

2. Gure Ama zerala oroi zaite,  
Gurutzetik Semeak emona.  
Semetxuaok, ainbeste gozuz maite,  
Zu zara ba Jainkoaren Ama.
3. Zoritxarrez, lurrekoak galdurik,  
Oso dogu bakarrik fedea,  
Euskalduntzat ez da ezagaturik,  
Gutartean siñiste gabea.
4. Euskaldunei, fedea kendu nairik,  
Etsai baltzak gaitue inguratzen  
Zu Maria, gure alde yarririk  
Iñoz bere ez gaitu bidurtzen.

(Belloc. URT)

### GUZTIZ GARBIA (Ar. 264)

(Arantzazu'ko)

Guztiz garbia zara Birjiña,  
(Arantzazu'ko Ama Birjiña)  
Zeruko Erregiñ andia,  
Kendu pekatu danen arantzak,  
Emon jaunaren grazia.

Agur zeruen edertasuna,  
Larrosa zuri gorria,  
Apaindurikan lore bikañez,  
Jaungoiko berak jantzia.  
Arantz artean arantza bage,  
Arantzan gora jaikia,  
Agur Amatxo biotz biguna,  
Grazi beraren jargoia.

Ortixek zagoz euskalerriko  
Seme gaxoei begira,  
Gaur zure seme orreïn kontrako  
Etsayak naiko ba dira.  
Zugana gatoz, Ama maitëa,  
Zure estalpe argira,  
Itxuri egizu zure indarra,  
Euskal biotzen erdira.

### IKUSTEN DODANIAN (Ar. 180)

1. Ikusten dodanian egun sentia,  
Jagiten naz esaten: Agur Maria.  
**Agur Maria, agur, agur,  
Sortzez garbia, agur, agur.**
2. Goyen gora danian gure eguzkia,  
Pozez biotzak diño: Agur Maria.
3. Eguna eskutatzean baltzez jantzia,  
Auzpez jarririk diñot: Agur, Maria.

### IKUSTEN DODANEAN (Angelus)

1. Aingeruak diñotso: Agur Maria,  
Jaungoikoaren Ama zara Maria.  
**Agur Maria, agur, agur,  
Sortzez garbia, agur, agur.**
2. Jaunaren mirabea izan naz beti:  
Goikoaren esana egiña bedi.
3. Jainkoaren Semea qizon egin zan,  
Eta gure artean bizi izan zan.

### AGUR IZAR EDER (Ar. 142)

Agur izar eder argiz jantzia,  
Agur zerurako gure bidea,  
Agur, Ama, zeruko atea.  
Zure malpean gura dot bizi,  
Zure besoetan gura neunke il,  
Zugandik ez dot nai alde egin.  
Izate guztia eskintzen dautzut,  
Zure biotzean gorde nagizu,  
Amatxo, bedeinka nagizu.

(Plana 172)

### GOGO LARRI (Ar. 160)

1. Gogo larri ta biotz illunaz,  
Ama, ikusten bagaituzu,  
Poza dakarzun, izar eder oi,  
Goian agertu zakiguz.
2. Goizeko izar, argi ekarle,  
Gure atsegiñ onena,  
Erruki zaitte, erakusguzu  
Zeruko bide zuzena.
3. Izar argitsu, atsegingarri,  
Kristauen argitzallea,  
Itxas arrotu suminkorrari,  
Emon eiozu bakea.

(Plana 167)

### GORATU DAGIGUN (Ar. 140) (Lourdes)

1. Goratu dagigun Ama Maria,  
Birjiñ eder-eder zoragarria.  
**Agur, agur, agur Maria,  
Agur, agur sortzez garbia.**



2. Bai zori onean ziñala sortu,  
Jainkoak amatzat zinduzan autu.
3. Goizeko izarra bai da ederra:  
Ederrago, Ama, zure sorrera.
4. Maria amatzat artu genduan  
Ama obagorik ez da munduan.

**FATIMA'KO AMARI (Ar. 271)**

1. **Mayatzak Amairu Koba de Iria,**  
**An agertu yaku Andra Maria.**  
Agur, agur, agur Maria.  
Agur, agur, sortzez garbia.
2. Eguzkiz yantsirik Andra Maria  
Iru antzaintxori an da agiria.
3. Negarrez egoan Andra Maria,  
Zugaitik negarrez, pekataria.
4. Alaitu dagigun Bere Biotza  
Sarritan esanaz bere agurtza.
5. Zu izango zayakuz, Andra Maria,  
Gure Ama maite zoragarria.

(Mola Pérez, 225)

**GOAZEN, GOAZEN GUZTIOK (Ar. 168)**

**Goazen, goazen guztiok**  
**Birjiña Amagana,**  
**Eskintzera biotzez**  
**Loretxo eder bana:**

Lore mota guztiak, — lurraren gañean  
Zure antzeko dira — Edertasunean.  
Bardiñik ez dozula — Edertasunean,  
Lili ederrak diño — Arantza tartean.  
Lorak ezer ez dira — Ezpada biotzik  
Onbidez apaindua — Loretan gorderik.

**GUZTIA EDERRA (Ar. 158)**

**Guztia ederra zara Zu, Maria,**  
**Sortzetik zarala errubagea.**

1. Bardiñik ez daben  
Izar ederrena,  
Zoragarriena  
Zara Maria.
  2. Grazien iturri  
Aitutzen ez dana,  
Guretzat zara Zu,  
Ama laztana.
- (Mus. Sacr. Hisp.)

**IKUSTEN DOZU MUNDU ONTAN (Ar. 145)**

Ikusten dozu mundu ontan, Ama,  
Zenbat naigabe daukagun,  
Ama maite!, gure Ama!  
Zerutik eiguzu lagun.  
Ama, Zuk ondo dakizu  
Zelako arantz zorrotzak  
Zulatzen ditun biotzak  
Bizitzako bide latz  
Eta aldapa gora-goran.  
Zure esku orren gozoa  
Noizpait senti dagigun.  
Ama maite!, gure Ama!  
Zerutik eiguzu lagun.

(Plana 147)

**ITXASOKO IZAR EDERRA (Ar. 121)**

1. Itxasoko izar ederra,  
Naigabez diranen Ama.  
Zuretzat naigabe dana,  
Poza guretzat dozu.

- Jesus zendun zure poza:  
Gure amatxo laztana;  
Baña len zure poz zana  
Gaur gure poza dogu.
2. Gurutze baten oñetan  
Gure pekatuen sari  
Ta Aitaren betiko opari,  
Zuk bein emon euzkuzun.  
Geroztik Aldare ortan  
Erbestetuen pozkarri  
Ta esker danen iturri,  
Or da Jesus gau ta egun.

(Iruarrizaga, II, 169)

#### IZAR EDER EDER (Ar. 146)

Izar eder eder zoragarria,  
Zeru goiar, zeru goian,  
Zara Maria.  
Izar eder zoragarria,  
Zara Maria, zara Maria.

Goizeko izarra  
Ez da aiñ ederra,  
Nola dan, Ama,  
Nola dan zure sorrera.  
Gutziz ederra zara Maria,  
Sortzetik zara garbi garbia.

(R. P. 5)

#### JAINKOAREN AMA (Ar. 166)

**Jainkoaren Ama, Ama guttiz ona,  
Maite zaitugu, beti, beti.**

1. Zureak betiko izan nai dogu,  
Zure biotz onak artuko gaitu,  
Ama guttiz ona, maitatzen zaitugu,  
Betí, betí.
2. Gugandik etsayak bialdu egizuz,  
Gugana begiak biurtu egizuz,  
Ama guttiz ona, gure alde erregutu,  
Betí, betí.

(Alcácer, 185)

#### KONTZESIÑOKO (Ar. 286 bis)

Kontzesiñoko orbangabakua,  
Zeure alaben Ama zerukua!, (Zis)  
Zuk zapaldu zenduan deabrua,  
Zuk bakarrik birrindu  
Zeutzazun burua. (Bis)

Euskalerrian gaur  
Eskatzen deutzugu guztiok:  
Zeure estalpian  
Gorde, gorde gaizuz.  
Gora beti, gora, Maria, zure izena.  
Gerra beti,  
Gerra zure arerioari,  
Gerra pekatuari.  
Zaindu egizu Euskalerría.  
Bizi bedi Ama garbi garbia,  
Bai, Kontzesiñokua.



## NORK LEIKEN POZEZ (Ar. 130)

(Quiero Madre)

1. Nork leiken pozez, Ama maitea,  
Zure besotan lotxo egin,  
Ume txikitxo baten antzera,  
Bere ames danak dituela amatxorekin.  
Orduan, Ama, entzungo neuke,  
Biotzak ondo dakiana:  
Zein gozokiro maite gaituzun,  
Ta zein maitez emoten dauskuzun.  
Zure laztana.
2. Zeru goietan eder izarra,  
Zelaietan eder lorea,  
Guztiz ederra illargi betea:  
Ederrago Zu, Amatxo guztiz  
Maite-maitea.  
Jesusen Ama, Ama Birjiña.  
Zuretzat gu gara guztia.  
Zurekin beti bizi bagiña:  
Ze zoriona, ze atsegiña!  
Andra Maria.

(Iruarizaga, II, 153)

## POZIK IKUSTEN ZAITUGU

(Mira il tuo popolo)

Pozik ikusten zaitugu zerura zoazela,  
Ama, zerura yoan da Semea bezela.

**Nik be gura neuke zurekin gora,  
Ama, eroan naizu, zure ondora.**

Jesus zerutik ekarri zenduan bein batean:  
Ta Berak ipiñi zaitu zeruko atean.

Jesus zeruan Errege, Zu barriz Erregiña.  
Buru gañean koroï bat izarrez egîña.

(Italiarra)

## ZERUKO AMA (Planas 159)

Zeruko Ama, izar argia,  
Zugana gatoz poz-pozik. (Bis)  
Geure biotzak artu eiguzuz,  
Zaindu gagizuz zerutik. (Bis)

Gomutau zadi, Ama on-ona,  
Iñoi bez entzun ez dala  
Zuri deitu ta laguntza barik  
Iñortxo itxi dozula,  
Iñortxo itxi dozula.

## ZERU ETA MUNDUAK (Ar. 159)

1. Zeru eta munduak  
Zurekin pozturik,  
Kanta-kantari dagoz,  
Biotzak suturik.  
**Agur, agur, agur Maria  
Agur, agur guztiz garbia.**
2. Maria sortu ziñan  
Orban bagekoa,  
Donetasun guztiaz,  
Apaindutakoa.

3. Oñazpian lerturik  
Luzbeli burua,  
Garaitu dozu, Ama,  
Betiko inpernua.

(Plana 149)

### ZUK ZER DOZU (Ar. 307)

**Zuk zer dozu, Arantzazu,  
Ames-kabi, otoiz leku?  
Euskalerrria oso-osorik  
Kantari dijoakizu.**

1. Izena bera "Arantzazu",  
Kanta ederrena dozu,  
Itz bakar ori mintza orduko,  
Kantari jartzen gaituzu.
2. Izen ori "Arantzazu"  
Mintzatzen ezin aspertu.  
Ama-izenak daben gozoa,  
Zuk euskaldunentzat dozu.

### ZERURA BEAR DOT (Ar. 167)

Zerura bear dot, zerura gure errira,  
Ta gure Ama Maria an ikusiko dot,  
Zeru goi-goyan bai, antxe ikusiko dot,  
An ikusiko dot Ama zoragarria,  
Ta aren sortze garbia nik abestuko dot.

### KARMEN'GO AMARI (Ar. 294)

**Agur Birjiña garbi, Ama Karmen'goa  
Agur, lore txit eder, gure Erregiña.**

Zure babes bigun ta gozoaren billa  
Lurreko erbestean guztiok gabiltza.  
Iñoz garbitokira, ba'gara yausiten,  
Arren, andik atera gagizuz lenbailen.

(Karmeldarrak, Gazteiz)

### KARMEN'GO AMARI ERESERKIA (Ar. 274)

Agur, aintza zuri, Ama on biguña,  
Zu zara Karmel'go edertasuna.  
Zu Jaunaren Ama, Birjiña garbia,  
Karmel'go odeitxoan, bein ikusia.  
Agur, Ama ona, Agur, Ama ona,  
Gure maitasunez apaindu gaituzu  
Zure kutunez.

Kutun onek gaitu il arte zainduko  
Baita ilda gero Zuganatuko.  
Gure zoriona zure babesean,  
Danok anai zure maitasunean.  
Ez gu iñoz itxi ta il ezkerokoan  
Bildu gaizuz danok zure ondoan.

### KARMEN'GO AMARI (Ar. 268)

**Zeru goi goitik Karmen'go Amak  
Beti bereak zaindu ditu.  
Beraz zaintzea gogo ba'dozu  
Zintzo maitatu egikezu.**

Karmen'go mendirantza itxaso barrutik  
Odei zuri polit bat etorri zan goitik.  
Jaunak bialdua zan Amaren aurretik  
An biurtuko zalako errukiz gugaitik.

(Plana 164)



## MONTSERRAT'EKO AMARI

(Virolay)

Mendi lore, Ama birjiñ ederra,  
Zeru goi- izarra,  
Argi iguzu ludi illunpe onetan  
Zuzendu gagizuz zeru goyetera.

Illunpetan itxas argi bizia,  
Argi egin, argi egin,  
Zabaldu dizdirak, zabaldu dizdirak.  
Itxasoan galdu zorian gabiz, itxasoan.  
Artu gaizuz zeruko kayean.  
Zeruko kayean.

## LOURDES'KO AMARI

**Lourdes'ko lorea Ama maite Maria,  
Betiko da zurea euzkaldun yentea.**

1. Aur bat dozu artu: Ari Zu agertu  
Orra danok deitu, lurra zeruratu.
2. Beraz euzkaldunak daitezela danak  
Beti kristau onak, egiz fededunak.
3. Danak dira emen Zurekin zoratzen,  
Arimak goratzen, gexoak sendatzen.
4. Kantuz gau ta egun, Zu maite zaitugun  
Zerua Zu lagun, irabazi daigun.

## JOSE DOATSUARI

### ELIZ AMA DEUNAREN (Ar. 210)

Eliz Ama Deunaren  
Zaindari aundia,  
Entzun eizu zerutik,  
Gure otoitz deia,

Jesus eta Maria,  
Zu il ziñanean  
Laguntzen egon ziran,  
Jose zure aldean.  
Atoz, atoz, bai, laguntzera,  
Zori ain larrian.  
Il, il gaitezan gu bere  
Jaunaren bakean.  
Il gaitezan gu bere  
Jaunaren bakean.

(Plana 236)

### ELIZ AMA DEUNAREN (Ar. 212)

**Eliz Ama Deunaren  
Zaindari indartsua,  
Zaindu gagizuz, arren,  
Jose errukitsua.**  
Bildur barik dijoa  
Pedro'ren ontzia,  
Zu zaralako bere  
Zaindari aundia.

Betoz ekaitzak,  
Betor itxasoa gozez,  
Ez, ez dabe ondatuko  
Ontzi ori, Jose.

(Plana 237)

### JESUSEN AITA ORDE (Ar. 213)

Jesusen Aita orde,  
Mariaren lagun:  
Jose, zure bitartez,  
Zerua dagigun.

Pekatarari gara ta  
Ausartzen ez Jesusen aurrera.  
Baña or zagoz zu,  
Jesusentzat bitarteko altsu.  
Sartu gaizuz Mariarengana,  
Gure Jose laztana,  
Ta aintxe dago Jesus.

### SAN JUAN BAUTISTIARI (Ar. 301)

Ez da ifun gizonik  
San Juan dan beste  
Santu goitar ta aundirik  
Arkitzen.  
Berau da Jaunen Seme zuzena,  
Jordan'en bataitu ebana.  
Entzun gizonak, entzun erriak,  
San Juan doai arrigarria.  
Gora gizonak, abestu erriak,  
Bere goitasun goragarriak.

Amagan ziñala Jaunak zindun deitu,  
Ordutik zinduen maitatu.  
Ume au aundia izan dedin beti,  
Goikoak daroa eskutik.  
Ama sengeagandik zu jaiio ziñan,  
Onbidez beterik donean.  
Entzun...  
Goragarriak, goragarriak.

### LOYOLA'KO IÑAKI DEUNARI (Ar. 288)

Iñaki, Gure zaindaria aundia,  
Jesus'en lagundia,  
Zuk bildu eta indartu dozu.  
Ez da ez etsairik yarriko zaitzunik,  
Iñolaz aurrean gaurko egunean,  
Naiz betor Luziper gokaiztua,  
Utzirik inpernua.

Zure Lagundia, beti da bildur gabe,  
Bere Yaun ta Yabe da Jesus aundia.  
Garaitu ditu zure lagundiak,  
Etsayak.  
Ez dauka Eleizak, ez Euzkal-erriak,  
Ez dauka bildurrik ifungo aldetik:  
Iñaki or dago, beti indartsuago,  
Dauka Lagundia su-garrez betia,  
Guda-guda nairik, ikurriñak zabalik.  
Gau t'egun guk guztiok bakea dezagun.  
Beti gau eta eta egun.

(Plana 253)



Inazio,  
Gure patroia aundia,  
Jesusen Konpañia,  
Fundatu eta dezu armatu,  
Ez da ez, etsairik jarriko zaitzunik.  
Iñolaz aurrean gaurko egunean,  
Naiz betor Luzifer deabrua,  
Utzirik inperua.

Zure soldaduak dirade aingeruak,  
Zure gidaria da Jesus aundia:  
Garaitu ditu zure Konpañiak,  
Etsaiak.

Ez dauka fedeak, ez kristau nereak,  
Ez dauka bildurrik iñungo aldetik.  
Inazio or dago, beti ernai dago,  
Armentan jarria dauka Konpañia,  
Txispaz armaturik, bandera zabalik:  
Gau ta egun guk guztiok  
Bakea dezagun, beti gau eta egun.

#### MIKEL DEUNARI (Ar. 304)

1. O aingeru bizkorrena, Mikel Deuna.  
Bizitzan guri begira.  
**Gure burrukan otoiitz egizu,**  
**Mikel Deuna.**  
**Olantxe.**
2. Jaunak nai zaitu lenengo, Mikel Deuna,  
Bere semeak zaintzeko.
3. Betiko Deabru ori, Mikel Deuna,  
Zapaldu dozu gogorki.
4. Aingeru zintzo ta azkarra, Mikel Deuna.  
Begira eiguzu maiteki.

#### MIKEL DEUNARI (Ar. 305)

1. Guazen, guazen, kristauok, Mikel Deunagana:  
Guztiok alkaturik Agur egitera.  
**Agur, agur Mikel gurea,**  
**Zaindu beti Euzkal-erria.**
2. Alperrik gure etsaya leyaka asiko da:  
Ez dausku ez kenduko siñismen sendoa.
3. Zaindu daigun osoro siñisten doguna,  
Esanaz Mikel'ekin: "Nor Jaungoiko aña?"

#### BERRIO-OTXOA'RI (Ar. 275)

**Bizkaiko seme goragarria,**  
**Elorrioko loria.**  
**Aintza ta gora, gure Balentin,**  
**Zorunez beti-betia.**

Bizkaiko lorategian erne dan  
Lorarik ederrena!  
Bere ortzian argi dagian  
Izarretan argiena.  
Bere semien artian  
Jaingo maitalerik  
Zintzo-zintzoena.  
Entzun eiguzu zeru ortatik  
Gaur dagitzugun arrena.

#### ZEZILIA DONEARI (Ar. 278)

Aingeruak kantari, daukaguz zeruan.  
Zezilia aingeru garbi, ziñan zu munduan.  
Zeruetan bardifiik ez daukan soñuan,  
Kantari mundu onetan abesten zenduan

Orain zeru goyan.  
 Txori alayak kantuz egun sentiari  
 Zu bere bardin beti Jesus maiteari.  
 Guk bere gura geunke izan abeslari  
 Soñuz erantzuteko zure kantuari.  
 Orain eta beti.

### EUKARISTI-GUDARI ABESTIA (Ar. 281)

Txiki ta andi, guztiontzako deya,  
 Zabaldu dau Jesus'ek munduan:  
 Eukaristi ederraren bitartez  
 Danok nai gaitu bere ondoan:  
 Baña txikiontzat da, batez bere  
 Jesus'en dei otsa:  
 "Erdue, maiteok, etorri bizkor;  
 Zuentzako da neure Biotza".  
 Bildu gaitezen, bada, guztiok  
 Mai Santuaren inguruan;  
 Ikurrin ederragorik,  
 Ez da lurrean, ezta ez zeruan.  
 Aita gurea españetan,  
 Gurutz ederra gorputzean  
 Jesus'en Ogi zuri gozoa  
 Beti dogula biotzean.  
 Gure Yabe, Gure Errege,  
 Jesus izan bedi orain eta beti  
 Gure Errege.

(Zubizarreta, Begoña-Bilbao).

A. M. D. G.

## O A R R A

**Abestien buruko laburpenak esan gura dau:**  
 (Ar) = Aranburu, "Eliz-Abesti-Sorta".  
**Abestien azpiko laburpenak organu laguntza non aurkitzen dan esan gura dau:**  
 (R. P.) = Repertorio Músico, Mensajero, Bilbao.  
 (Plana) = Selección P. Plana.  
 (Iruarrizaga) = Obras completas.

### BILLA-BIDEA

GOIZEKO OTOITZAK ... ..	8
BESTE OTOITZ BATZUK ... ..	12
GABEKO OTOITZAK ... ..	14
AUTORTZA ... ..	15
JAUN ARTZEA ... ..	20
IKUSTALDIAK ... ..	24
MEZA SANTUA ... ..	30
MEZA OSTERAKO ... ..	55
AGURTZA ... ..	58
GURUTZ-BIDEA ... ..	71
JOSE DOATSUARI.—Atsekabe-atsegiñak ... ..	90
ANDRA MARIA'RI.—Lore illa ... ..	92

### ABESTIAK

#### Meza-Santurako

SARRERA ... ..	94
KYRIE ... ..	98
GLORIA ... ..	98
CREDO ... ..	99
OFFERTORIUM.—Eskintza ... ..	100
SANCTUS ... ..	104
BIZIEN MEMENTOA ... ..	106
SAGARA OSTEAN ... ..	107



ILLEN MEMENTOA .....	109
JAUNA ARTZERAKO .....	110
AZKEN AGURRAK .....	111

### EUKARISTIARI

Pange lingua .....	115
Tantum ergo .....	115
Ave verum .....	115
Adoro te .....	116
Adoremus in eternum .....	117
Lauda Sion .....	117
O esca viatorum .....	118
O Quam amabilis .....	119
O Quam amabilis (Euzkeraz) .....	119
Sacris solemniis .....	119
O Sacrum convivium .....	120
Verbum supernum .....	121
O Salutaris Ostia .....	121
Ubi caritas .....	121
O Gurutzea .....	122
Arimaren eguzki .....	123
Basauntzak iturri otza .....	123
Goratu dagigun .....	124
Abestu daiogun .....	124
Goratu Jainkoa .....	124
Izan zaitetz beti .....	124
Jauna neure biotzak .....	125
Jaungoiko gizona .....	125
Jesus maitea Zan .....	126
Jesus'en gorputz Santua (T'adoriam, ostia divina). .....	126
Jesus Umea .....	127
Maite zaitut .....	127
Nai al dozue Jakin .....	128
Nik agurtzen Zaitut .....	128
Ogi zerutik .....	129
O gauza arrigarri .....	130

Ona Bildots ezta .....	130
Osti Zuri .....	131
Osti Zuri (Etxaniz) .....	131
Ostian bizi zara .....	132
Ene mirari .....	133
Jesus Berpiztuari .....	133
Sagrario atea .....	134
Sifisten dot .....	134
Zugaz bizi nai dot (Cerca de Ti, Señor) .....	134
Goratu Jainkoa .....	135

### KRISTO ERREGERI

Alleluia .....	136
Kristus vincit .....	136
Kristo Jesus .....	137
Kristo nausi .....	137
Kristo gure Errege .....	138
Kristorenak .....	138
Entzun Jauna .....	139
Errege Zara zu .....	139

### JESUS'EN BIOTZARI

Cor arca .....	140
Agur Jesus'en .....	140
Jesus'en biotza .....	141
Jesus laztana .....	141
O Biotz Santu .....	141
O Biotz Gozo .....	142
Jesus'en Biotz .....	143
Nik gogoz .....	143

### GABONETAKOAK

Adeste fideles .....	143
Adeste fideles (Euzkeraz) .....	144
Resonet in laudibus .....	144

Resonet (Euzkeraz) ... ..	145
Aintza, aintza ... ..	145
Aur eder baten billa ... ..	146
Belenen sortu yaku ... ..	146
Birjiña maite ... ..	146
Aingeru batek diño ... ..	147
Gau zoragarria ... ..	147
Gabaren erdian ... ..	148
Gaur dogu kristiñauak ... ..	148
Gure Potxolo ... ..	148
Izar barriak ... ..	149
Jesus Umia ... ..	149
Jesus maitia ... ..	150
Gau oskarbi ... ..	151
Jesus askatxoan ... ..	151
Mesias sarritan ... ..	152
Oi Betleen ... ..	152

**GARIZUMAKOAK**

Agur dolorezko Ama ... ..	153
Damu dot Jauna ... ..	153
Erdu pekataria ... ..	154
Jesus eskatzen dautzut ... ..	154
Jesus gure Jaun maite ... ..	154
Parka eiguzu, Jauna ... ..	155
Noiz arte bear dozu ... ..	155
Pekatari gaiztoa ... ..	155
Pekatariok Ama ... ..	156
Zerura gagizuz, Ama ... ..	156

**KRISTAU-IKASBIDERA KO**

Jaungoikoaren legea ... ..	157
Guazen dotrinara ... ..	157

**ANDRA MARIA'RI**

Ave Maria ... ..	158
Salve ... ..	158
Tota pulcra ... ..	158
Salve Regina celitum ... ..	159
Ave Maris Stela ... ..	160
Salve Mater misericordie ... ..	161
Salbea (Euzkeraz) ... ..	161
Agur, Agur Ama ... ..	162
Agur Jesus'en Ama ... ..	162
Ama eder (Dulce Madre) ... ..	163
Ama maite Maria ... ..	163
Ama Maria izten zaitut ... ..	164
Ama, nai dot (Quiero Madre) ... ..	164
Aurrera ... ..	165
Ama, Birjin maitea ... ..	166
Agur Ama (Salve Madre) ... ..	166
Begoña'ko Ama ... ..	167
Bizkaiko Seme leyalak ... ..	167
Edertasun guztiaz ... ..	168
Etxean ba-dot Ama ... ..	168
Euskaldunek ... ..	168
Gutziz garbia ... ..	169
Ikusten dodanian ... ..	170
Agur izar eder ... ..	171
Gogo larri ... ..	171
Goratu dagigun (Lourdes) ... ..	171
Fatima'ko Amari ... ..	172
Goazen, goazen guztiok (Lore-illerako) ... ..	172
Guztia ederra ... ..	173
Ikusten dozu mundu ontan ... ..	173
Itxasoko izar ederra (Madre de amor y consuelo). ... ..	173
Izar eder eder ... ..	174
Jainkoaren Ama ... ..	175
Kontzesiñoko ... ..	175



Nok leiken pozez (Quiero Madre) ... ..	176
Pozik ikusten zaitugu (Mira il tuo popolo) ... ..	176
Zeruko Ama ... ..	177
Zeru eta munduak ... ..	177
Zuk zer dozu Arantzazu? ... ..	178
Zerura bear dot ... ..	178
Karmen'go Amari ... ..	178
Karmen'go Amari ereserkia ... ..	179
Karmen'go Amari ... ..	179
Monserrat'eko Amari (Virolay) ... ..	180
Lourdes'ko Amari ... ..	180
Eleiz Ama Deunaren (bi) ... ..	181
Jesus'en Aita Orde ... ..	182
San Juan Bautistari ... ..	182
Loyola'ko Iñaki Deunari ... ..	183
Mikel Deunari ... ..	184
Berrio-Otxoa'ri ... ..	185
Zezilia Doneari ... ..	185
Eukaristi Gudari abestia ... ..	186

**Euzkaldun irakurle: utsuneak asko dira-ta, parkatu.  
Zer kendu, aldatu edo ipiñi gura dozun bigarren argitaratzean, idatzi:**

**Aita Goikoetxea'tar Iñaki'ri, S. J.  
PP. Jesuitas.—Durango.**

A. M. D. G.